

Jean-Jacques Rousseau

Ibiltzale bakartuaren ametseriak

*

*

Jean-Jacques Rousseau-ren « *Les rêveries du promeneur solitaire* » Jean-Baptiste Orpustan-ek euskarara itzuliak

IBILALDI LEHENA

Huna beraz bakarrik nizala lurrean, nihaurez bertze anaiarik, urkorik, adixkiderik, giza-ingurumenik gabe. Gizonetan den bertzekoien eta amultsuenaren bahitzeko guziak bat izan dira. Zuten herraren zorrotzenezan bilatu dute zein oinazkatze izan zaitekeen ene arima sendikorrarendako gaixtoenik, eta haiekin nituen lokarriak oro bortizki hautsi dituzte. Gizakiak maitatuko nituen berek ez nahi ukanik ere. Ezin dute ene maitasunetik ihes egin, hala izaitetik geldituz baizik. Horra beraz enetako atze, arrotz, ezteus direla hala nahi ukana dutenaz geroz. Baina ni, hetarik eta orotarik berex, nihaur zer niz? Horra zeren bilatzea zatan egiteko gelditzen. Zorigaitzez bilatze horren aitzinetik ene egonarari behako baten emaita beharrezkoa da, hortarik baitezpada iragan behar dutan gogamena, hetarik nihauren gana jiteko.

Baduelarik hamabortz urte 'ta gehiago egonara bitxi huntan nizala, amets bat bezala badidurit oraino. Beti uste dut barne nahaste batek oinazkatzen nauela, badagitala lo gaixto bat, eta ene bihotz-minaz arindurik iratzarriko nizala neure burua adixkiden artean berraurkituz. Bai, iduriz, ohartu gabean atzarritik lora jauzi bat egina duket, edo izaitekotz bizitik heriora. Gauzen arau zuzenetik nik dakita nola ekhendurik, neure burua ikusi dut hartan jeus-jeusik ikusten ez tuta nahasmen ezin entzun batera egotzirik; eta gehiago bademot gogoia orai nizanari, are gutiago dezaket nun nizan ikus.

He! nola ikusi ahalko nuen aitzinetik igurikatzen ninduen zoria? Nola gogoan har dezaket oraino gaur egun haren menean nagolarik? Asma nezakeena ene gogo onean egun batez, nik izana nintzan gizon berak, oraino nizan ber hunek, mustro, pozointzale, erahiltzale baten aipamena ukanen nuela, hala hartua izanen nintzala, giza-arrazaren hastioa bilakatuko, zirtzileriaren jostagailua, ibiltzalek eginen zautaten agur guzia gainera thu egitea izanen zela, gizaldi oso bat libertituko zela oro batean bizirik ene ehorzten? Aldamen bitxi hori egin zenean, ustegabetarik hatzemaña, lehenik gogoz nahasia izan nintzan. Ene asaldurek, sumindurak, murgildu ninduten ez titzeko hamar urte sobera ukan ez tituen nahasmen batean, eta arte hortan, hutsetik hutsera eroririk, gaizkitik gaizkira, zozokeriatik zozokeriara, ene zuzurgabekeriez eman dezteet ene zortea eskuan dutener itzultzerik gabe horren jartzeko trebeki erabili dituzten bertze hainbertze tresna.

Luzaz ihardoki dut bortizki bezain debaldetan. Trebetasunik gabe, antzerik gabe, gordekeriarik gabe, zintzo, idekia, ezin egona, jauzkor, zalapartan eztut neure burua gehiago estekan ezarri baizik eta eman dezteet ethengabe haien bazterrera uztea ahatzi eztuten harguneak. Azkenean ene indar guziak baliogabeak sendituz eta nihaur osoki debaldetan oinazkatzen, hartu dut egiteko gelditzen zizatan alderdi bakarra, ene zoriari amor emaita halabeharrari gehiago ihes egin gabe. Onhartze hortan aurkitu dut ene gaitz guzien ordaina, badematan sosegutik, eta mingarri bezain ondorio gabeko ihardokitze baten indar jarraikiarekin ezin bat zaitekeenetik.

Bertze gauza batek laguntza ekharri dauko sosegu horri. Bere hastioaren zorrozkeria guzietan, herrak ahatz-arazi dauen bat utzi dute bazterrera : hori zen mailez mail eraginen hain ontsa azkartzea nun ene bihotz-minak ethengabe bizirik atxiki eta berritu ahalko baitzituzten eni beti jaukitze berri zenbait eginez. Esperanza leinuru baten eni uzteko antzea ukan balute hortarik atxikiko ninduten oraino. Nitaz bere jostagailua egin zezaketen oraino enganio zenbaiten bidez, eta gero ene itxaropen bairatuaren gatik oinazkatze beti berritu batez zauritu ahalko ninduten. Baina bere atherabide guziak hautsi dituzte aitzinetik ; eni ezer ez utziz bere buruari daukote guzia ekhendu. Hetaz estali nauten gaitzerrana, aphaltzea, trufa, laidoa ezin daitezke gehiago ez handituak ez eztituak izan ; ahal gabe berdinean gira, hek horien azkartzeko ni ihes egiteko. Hanbat dira lehiatu ene miseriako neurriaren mukurrura eremaiten nun giza-bothere guziak, ifernuko amarru guzietan lagundurik ere, ezpailakike gainera jeusen emaiten. Soineko oinazeak berak ene bihotz-mina handitu orde hortarik bazter nindezake. Oihuak jalgi-araziz, behar bada, intziraka artzetik arinduko ninduen, eta soineko urradurek bihotzekoak geldi-araziko zituzten.

Haien ganik zertaz beldurtu behar dut oraino guzia egina denaz geroz ? Ene egonara ezpaitezakete gehiago gaizta, elukete gehiago ene baitan izipenik sor-arazteko ahalik. Khexua eta lazta behin betikotz hetaz liberatu nuten gaitzak dira : arintze bat da oro har. Gaitz egiazkoek hartze guti dute ene baitan ; jasaiten ditutanez etsi bat egiten dut, ez izitzen nautenez. Ene asmamen ohilduak elgarrekin nahasten ditu, itzulikatzen, hedatzen eta handitzen. Haien aiduru egoiteak hor izaiteak baino ehun aldiz gehiago oinazkatzen nau, eta mehatxua ukaldia baino izigarriago zata. Badatorzen ordu berean, gertaldiak ekhentzen baitaue asmamenezkoa zuten guzia, duten neurri zuzenera laburtzen ditu. Uste ukana nuena baino ainitzez ttipiango aurkitzen ditut, eta oinazearen erdian ere, enindauke arindua

senditu gabe. Izanara hortan, lotsa berri edozeinez liberatua eta esperanzak bademan khexutik arindua, ohitzea bera aski izanen zata jeusek gaizki eztezakeen egonararen egunetik egunera jasangarriago egiteko, eta iraupenaz horren senditzea higitzen zatan arau berriz phizteko biderik eztute. Horra ene jazarlek bere herraren ukaldi guziak agortuz eman dautaten ongia. Ene menperatzeko indar oroz gabetu dira, eta hetaz irri badagiket hemendik goiti.

Eztu oraino bi ilabete jabaldura osoa berriz jarria zatala bihotzean. Enuen aspaldidanik gehiago jeusen beldurrik, baina esperanza nindagon oraino, eta itxaropen hori, aldiz leriatura aldiz hautsia, mila sendimendu ezberdinek hartaz gelditu gabe nahasten ninduten hargune bat zen. Gertaldi mingarri bezain ustegabeko batek ekhendu daut berriki bihotzetik ezperanzazko leinuru ahul hori eta ene zoria ikus-arazi behere huntan itzultzerik gabe behin betikotz jarria dela. Ordutik osoki amor eman dut eta bakea berraurkitu.

Zimarkuari ohartzen hasi nizaneko bere hedamen guzian, bizi nizano nitaz jendearen berriz zuzentzeko aburua betikotz galdu dut, eta ere berzuzentze hori elgarren alderakoa ezin izanez ontsa denbaldekoa nuke hemendik goiti. Gizonak berriz enegana itzultzen ahal lizateke, gehiago enindezakete aurki. Eman-arazi dautaten gutiespenarekin haiekin egoitea geza aurki nezake eta ere phizu, eta haien artean biziz izan nindaikkeen baino ehun aldiz zoriondunago niz ene bakartasunean. Errotik athera dauzate bihotzetik gizarteko eztitasun guziak. Berriz elaitzke sor ene adinean; berantegi da. Hemendik goiti gaizki ala ongia egin dezataten oro berdin zata haien aldetik, eta zer badagite ere, ene adinekoak etzazta gehiago nehoiz jeus izanen.

Baina geroari nindagon oraino, eta uste nuen gizaldi hobe batek, hobeki ikertuz bai oraiko hunek nitaz emanak dituen jujamenduak bai nola ari izana den enekin, errex berexiko zuela buru dituenen jukutria eta ikusiko ninduela nizan bezala. Esperanza horrek dauzta *Elgarrizketak* izkiria-arazi, eta gerokoer iragan-arazteko mila entsegu ero asma-arazi. Uste horrek, nahiz urrungoa, bazadukan ene arima munduan oraino bihotz zuzen baten bila nindabilaneaneko asaldura berean, eta urrunera igortzen ahal nituen esperanzek berdin ezartzen ninduten oraiko gizonen eskupean. Uste hori zertan oinarritzen nuen errana dut ene *Elgarrizketetan*. Hutsean nintzan. Aski goiz senditu dut zorionez azken orena baino lehen jabaltasun bete 'ta atsedean osozko ephe baten oraino aurkitzeko. Aipatzen dutan aro hartan hasia da arte hori, eta badut uste eztela gehiago moztua izanen.

Ontsa egun guti iragaiten zata gogamen berri batzuez baieztatua izan gabe zenbat hutsean nintzan jendea berriz itzuliko zitzatala beha egonez, bertze adin batean ere, hastioan hartua nauten jende multzoetan ethengabe berritzen diren bidari batzuek eremana denaz geroz ene aldera. Jende bereziak hiltzen dira, baina multzotan bilduak direnak ez. Hetan sendimendu berek beti irauten dute, eta duten herra sutsua, debrua bezala hil ezina, beti berdin alha da. Ene etsai bereziak oro hilak izanen direnean, medikuak, oratorianoak biziko dira oraino, eta bi multzo horiek baizik ezpanitu jazarletako, segur izan behar dut eztutela ni hil ondoan ene orhoitzapena bakean utziko bizi nizano nihaur uzten nuten baino gehiago. Behar bada, demboraren arau, medikuak, zinez laidoztatu baititut, ezti ahal laitezke : baina maite nituen oratorianoak, estimatzen, hetan konfienxia osoa nuelarik, eta nehoiz laidoztatu eztitutanak, Elizako jende 'ta erdi fraide, betikotz amorratuak izanen dira ; bere bidegabeak badagi duten bere alderako amodiak ehoiz barkatuko eztautan ene gaizkia, eta ethengabe haren etsaitasuna arthoski bizirik atxikiko eta sustatuko duten jendea, ezta hek baino gehiago jabalduko.

Oro egina da lurrean enetako. Ezin egin zata gehiago ez onik ez gaitzik. Eztut mundu huntan ezeren aiduru ez beldur izaiterik, eta horra nun nizan lezearen zolan geldirik, gaizo hilkor zorigabea, baina Jainkoa bera bezain sorgor.

Nihaurtarik kampo den guzia arrotz zata hemendik goiti. Gehiago eztut mundu huntan ez urkorik, ez lagunik, ez anaiarik.. Lurrean izarbel arrotz batean bezala nago, bizi nintzanetik hartara eroria bainintzateke. Inguruan zerbait baldin badazagut eztira gauza deitoragarri eta bihotz erdiragarri batzu baizik, eta begiak eztezaket hunkitzen eta inguratzen nauenera eman hetan aurkitu gabe sumintzen nauen zerbait gutieskarri, edo lastimatzen nauen mingarri. Gogotik bazter ditzadan beraz oinazetan bezain debaldetan har nindezaketen gauza penagarriak. Bakarrik gelditzen zatan biziko, konsolamendua, ezperanza eta bakea eztezaketanaz geroz aurki nihauren baitan baizik , nitaz baizik eztut behar eta nahi axolatu. Izanara hortan dut berriz hartzen ene *Aithormenak* izendatu nituen ikerraldi biphil eta zintzoen jarraipena. Azken egunak badematzat neure buruaren ikertzen eta nitaz berandu gabe emanen dutan khonduaren aitzinetik prestatzen. Demagun beraz osoki neure arimarekin solastatzeko atsegin eztiari gizonek ekhertzen ahal eztezataten bakarra denaz geroz. Neure baitan datzanaz gogoetatzearen bortxaz ordenu hobean ezartzera heltzen baldin baniz eta han geldi daitekeen gaitzaren zuzentzera, eztira ene gogoetak osoki debalde izanen, eta lurrean jeusetako ezpaniz on ere, eztitut ene azken egunak osoki galduko. Ene ibilaldi egun orotakoen astiak

usu beteak izan dira haien orhoitzapena galdurik urruki dutan beha egoite goxagarriez . Izkirioz ezarriko ditut oraino jiten ahalko zaztanak ; berrirakurriko ditutan aldi orok hetaz gozatzea itzuliko dauta. Ene zorigaitzak ahatziko ditut, ene jazarleak, ahalgeak, ene bihotzak merezi ukanen zuen saria gogoan.

Eztira garbiki orsto hauk ene ametserien egunkari moldegaitz bat baizik izanen. Nihaurez ainitz ariko da, gogoetatzen den bakarti bat bere buruaz ainitz axolatzen baita nahitez. Gainera ibiltzean burutik iragaiten zaztan bertze gogoeta guziek ere bere lekua hor hartuko dute. Gogoan ukan dutana jin bezala erranen dut eta ohian bezperako gogoetek biharamunekoekin duten bezain lotura gutirekin. Bederen ene jitearen eta omorearen ezagutza berri bat geldituko da, dutan izanara bitxian ene izpiritua hetaz egun oroz alha den sendimendu eta gogamenen bidez. Orsto hauk ikus daitezke beraz ene *Aithormen*-en osagailu bat bezala, baina eztauet gehiago izenburu hori emaiten, ezer ezpaitut hori merezi duenik sendi. Bihotza garbitu zata nahigabearen mortairuan, eta doi-doia daukot arthoski zundatuz gaztigagarri den ixuri zenbait aurkitzen. Zer ukan nezake oraino aithortzeko lurreko atxikimenduak oro ebakiak zazkonez geroz ? Eztut neure buruaren gaizkitzekorik laudatzekorik baino gehiago : jeus eniz gehiago gizonen artean, eta izan naitekeen guzia hori da, egiazko harremanik gabe, zinezko giza-ingurumenik gabe. Gaizkira itzul eztaitekeen ongirik batere ezin gehiago eginez, urkoari edo nihauri kalterik ekharri gabe ezin ariz, ene eginbide bakarra elikatzea bilakatu da, eta ahal bezenbat betetzen dut. Baina soinarene auhertasun hortan arima alhan dut oraino, sendimenduak sortzen ditu, gogoetak, eta duen bizi barnatu eta morala badiduri handitu dela lurreko ete aroko abantail-nahi ororen hiltzeaz. Etzata gehiago soina traba bat, poxelu bat baizik, eta ihes egiten daukot aitzinetik ahal dutan bezainbat.

Izanara hoin bereziak merezi du segurki ikertua eta erakutsia izaita, eta ikertze horri dauzkot emaiten ene azken astiak. Ondorio onarekin egiteko ari izan bekar lizateke ordenuz eta arautuz : baina eztut lan hortako ahalik eta ene helburutik bazter nindezake ere, neure arimako aldatzez eta hauk jarraitzen diren moldez khondu emaita baita. Nihauren gainean eginen ditut fisikariek egunean duen izanararen ezagutzeko aireaz egiten dituztenen iduripen zenbait duten lanak. Aroneurtzekoa ezarriko dut ene ariman, eta lan ontsa zuzendu eta luzaz errepikatu horiek eman ahal lezaztate haienek bezain ondorio onak. Baina eztut ene xedea hortarano eremaiten. Gertatuen zerrendaren atxikitzea askiko dut sistima batera biltzea entseatu gabe. Montaigne-ren langai bera egiten dut , baina harenak zuenaren

helburu osoki kontrakoarekin : ezen etzituen bere *Entseguak* bertzendako baizik izkiriartzen, eta eztitut ene ametseriak nihaurendako baizik egiten. Ene zaharraroko azken egunetan, abiatzerakoan, baldin banago, uste dutan bezala, orai dutan gogo berean, haien irakutzeak orhoit-araziko dauta izkiriartzean hartzen dutan atsegin ezta, eta neuretako horrela iragan aroa berriz sortuz, ene izaitea bikunduko bezala du. Gizonak gatik ere jakinen dut oraino gizarteko goxotasunaren jastatzen eta okitua neure buruarekin biziko niz bertze adin batean, adixkide gutiago zahar batekin egin nezakeen bezala.

Ene lehenbiziko *Aithormenak* eta *Elgarrizketak* izkiriartzen nituen ene jazarlen aztaparretarik gordetzeko biden axola ethengabea, bertze gizaldi batzuer ahal bazen emaitokotan. Griña berak enau batere izkirio hunendako oinazkatzen, debalde lizatekeela badakit, eta gizonez hobeki ezagutua izaiteko gutizia iraungi baitzata bihotzean, eztauko axolagabe barnatu bat baizik uzten ene izkirio egiazkoen eta ene ogengabetasunaren lekukotasunendako, oro behar bada jadanik betierekotz suntsituak baitira. Badagitana begizta dadila, orsto hautaz khexa ditela, har ditzatela, suntsi ditzatela, alda ditzatela, hori guzia berdin zata hemendik goiti. Eztitut ez gordetzen ez erakusten. Bizi nizalarik ekhertzen baldin bazazta eztautate izkiriartzean hartu dutan atsegina ekhenduko, ez badaukatenaz orhoitzea, ez haien emaitza diren gogoeta bakartiak, ezpaita hauen ithurburua ene arimarekin baizik hilen. Ene lehenbiziko helgaitzetan jakin banu ene zorteari jazartzen, eta gaurregun egiten dutan xedearen hartzen, gizonen indarrak oro, haien jukutria izigarriak oro ene baitan ondoriorik gabe izanen ziren, eta etzuten bere zimarku guziez ene atsedena uhertuko orai bere irabazi guziez egin dezaketen baino gehiago ; goza beite nahitara ene ahalgeaz, eztautate neure ogengabetasunaz gozatzea debekatuko eta haien gatik ere azken egunen bakean bururatzea.

IBILALDI BIGARRENA

Hastean harturik beraz ene arima ohian nola den erakusteko xedea hilkor bat ehoiz gerta daitekeen izanara bitxienean, eztut langai horren betetzeko molde lañoagorik eta segurragorik aurkitu ene ibilaldi bakartien eta betetzen dituzten ametserien errexistro zintzo baten atxikitzea baino, burua osoki libroan uzten dutalarik, eta gogoetak bere ixurian joaitera ihardokitzerik eta trabarik gabe. Bakartasuneko eta gogoetatzeko ordu horiek egunean beteki nihauren jabe nizan bakarrak dira, eta nihauren jabe izan naitekeena baztertzerik gabe, behaztopatzekorik gabe, eta naturalezak nahi ukan duena nizala zinez erran dezaketana.

Laster senditu dut langai horren betetzeko gehiegi berandu dutala. Ene asmamena jadanik gutiago bizia ezta lehen bezala sutzen sustatzen duen gauzari beha egoitean, ametseriaren eroaldiaz gutiago xoratua niz ; emaiten duenean bada orai danik egintza baino orhoitaldi gehiago, guritze ephel batek ene ahal guziak ahultzen ditu, biziko gogo mailka iraungitzen ari da ene baitan ; arima etzata bere azal erorkorretik nekez baizik hegaldatzen, eta merezi dutalako ustean ukaiteko gutizia dutan izanararen esperanzarik gabe, bizirik enuke orhoitzapenen bidez baizik.. Horrela nihauri beha egoiteko beherapeneratu aitzinean, urte zenbaitez bederen gibelera egin behar dut, behere huntan itxaropen oro galduz eta bihotzaren alhatzekorik lurrean gehiago ez aurkituz, apurka jartzen ari nintzalarik bere baitako janaritik haren hazten eta behar zuen janari guziaren neure baitan bilatzen.

Atherabide hori, etzizatarik berant baizik gogoratu, hain emankor bilakatu zen nun orotaz ordaintzeko laster aski izan baitzizatan. Neure baitan sartzeko ohidurak gal-arazi zautan azkenean ene gaitzen sendimendua eta abantzu orhoitzapena, ikasi nuen horrela nihauren ezagutzatik egiazko zorionaren ithurria gure baitan dugula, eta zoridun izan nahi duela badakienaren zinez zorigaitzeko bilakatzea eztela gizonen meneko. Bazen laur edo bortz urte arima amultsu eta eztiak behamenean aurkitzen dituzten barneko atsegin horietaz gozatzeko ohidura hartua nuela. Bakarrik horrela ibiliz batzuetan senditzen nituen xoramen horiek, gogoairatze horiek , ene jazarler zor nezteen atseginak ziren : izan ezpalire nehoiz enituen aurkituko ez ezagutuko neure baitan nindaduzkan thesorak. Hoinbertze aberastasunen artean, nola atxik horien errexistro zuzen bat ?

Ondorio hori ontsa senditu nuen ene *Aithormen*-en jarraikitzeke xedearen ondotik egin nituen ibilaldietan, oroz gainetik aipatzera noanean hartan ustegabeko ixtripu bat jin baitzizatan gogoetetako hariaren moztera eta aldi batendako haier bertze bide baten emaitera.

1776-ko urriaren ortzegun 24-an, bazkalondoan karrika handietan gaindi « Chemin-Vert »-eko karrikarano joan nintzan eta handik Menilmontant-eko gainetarano igan, eta hortik bidexkak hartuz mahasti eta phentzetan zehar, Charonne-rano iragan nuen bi herrixka horiek berexten dituen eskualde alegera, gero itzuli bat egin bertze bide bat hartuz phentze beretarik itzultzeko. Hetan iragaiteak jostatzen ninduen leku gozagarriek beti eman dauztagen atsegin eta oharpenarekin, batzuetan geldituz belarrean landare batzuer beha. Ohartu nintzan Paris inguruan aski bekan ikusten nituen bier eta alde hortan biziki nasai aurkitu nituenak. Bata *peris hieracioïdes* da, lore multzokatuen familiakoa, eta bertzea *pluverum falcatum* lore ekhitako arakoenekoa. Aurkintza horrek bozkariatu ninduen eta biziki luzaz jostatu eta bururatu zen landare oraino bekanago batenetik, bereziki herrialde hoin gora batean, jakiteko *cerastium aquaticum*, egun berean gertatu zitzatan ixtripua izanik ere, neurekin nuen eta hartan ezarria nuen belhar bilduman berraurkitu dutana.

Azkenean oraino lilitan ikusten nituen bertze landare batzuetan ibilirik, ontsa ezagutzen nituen haien itxura eta izenek hala ere beti atsegin emaiten baitzautaten, haier so egoitea utzi nuen emeki emeki, neure buruaren emaiteko horrek guziak osoan nitan egiten zuen sendimendu ez gutiago gozagarri baina hunkigarriagoari. Bazen zenbait egun mahats biltzea bururatua zela ; laborariak ere landak uzten ari zituzten neguko lanetarano. Baserriak, oraino musker baina zatiz jadanik orstoz murriztua, orotan eskaintzen zituen bakartasunaren iduria eta neguaren hurbiltzea. Bazetorren haren itxuratik sendimendu ezti eta trixte nahasteka bat, sobera ene adinaren eta zoriaren idurikoa ez nihauren gainera hartzeko. Banindakusan bizi ogengabe eta zorigaitzeko baten beherapenean, arima oraino sendimendu biziz betea eta izpiritua ere lore zenbaitez aphaindua, nahiz jadanik tristeziak zimelduak eta nahigabek idortuak. Bakarrik eta utzia, sendi nuen lehenbiziko hormen hotza jiten, eta ene asmamen agortzera abiatuak etzuen gehiago bakartasun hori ene bihotzaren araura moldatu izaitez jendeztatzen. Nihauri nion hasperenka : zer egin dut behere huntan ? Bizitzeko egina nintzan, eta bizi gabe hiltzera noa. Ezta bederen ene hutsez, eta ene arimaren egileari eremanen daukot, ezpada egitera utzi enauten ongi eginen eskaintza, baina bederen hetaz gabetu nauten xede onen zerga, sendimendu on baina ondorioz gabetuena, eta gizonen

gutiesteari ihardokitzeko pairamenarena. Gogamen horietan berazten nintzan, gaztarotik ene arimaren harat-hunatak berriz ikusten nituen, eta adinera heldurik, eta gizonekin egoitetik berexi nautenean, eta egunak hartan bururatu behar ditutan erretreta luzean. Itzultzen nintzan goxotasunekin bihotzeko maitasun guzietara, atxikimendu hain samur baina hain itsuetara, zenbait urtez geroz izpiritua hetan alhatua nuen gogamen konsolagarri baino gutiago trixtetara, eta haietaz aski orhoitzera nindoan hetara emana nintzanean hartua nuen atsegin abantzu berdin batekin erakusteko. Arratsaldea gogamen ezti horietan iragan zizatan, eta itzultzen ari nintzan ene egunaz biziki askietsia, ametseriaren azkarrenean haren erraitea gelditzen zatan gertakariak handik athera ninduellarik.

Sei orenak hirian Menilmontant-eko jaustean nintzan abantzu Baratzegile Galantari bekoz beko, aitzinean zoazkitan jende batzu bapatez bazterturik ikusi nuenean ene gainera lasterrez heldu zakur danes gotor bat, karrosa baten aitzinean lauhazkan abiaturik, ikusi ninduenean ezpaitzuen ez lasterraren eztitzeko ez baztertzeke astirik ukan. Uste ukan nuen lurrera aurdikia ez izaiteko nuen bide bakarra jauzi handi baten egitea zela hain zuzen nun zakurra azpitik joan zakiditan airean nintzalarik. Gogamen hori zimizta baino zaluagoa eta arrazoinkatzeko ez egiteko astirik ukan enuena izan zen ixtripua baino lehen ukan nuen azkena. Enituen senditu ez ukaldia ez erortzea, ez eta ondotik gertatu zen edozer neure baitaratu nintzan ordua baino lehen.

Berriz ezagutzaratu nintzanean abantzu gaua zen. Zer gertatu berria zizatan erran zautaten hirurzpalaurre mutiko gazten besoetan nintzan. Zakur danesa bere oldea ezin atxikiz ene bi zangoetara ambildua zen eta, bere phizuaz eta lasterraz joz, buruz aitzinera eror-arazia ninduen : gaineko matel-hezurak ene soinaren phizu guziarekin harlauza biziki latz batera joa zuen, eta erortea are gehiago bortitza izana zen nun beheitirakoan izanez, buruak oinak baino beherago emana baitzuen.

Zakurra harena zen karrosa heldu zen berehala gibeletik eta gainetik iraganen zizatan karrosazainak ezpalitu ordu berean zaldia atxiki. Horra zer nuen ikasi xutitua nindutenen eta neure baitaratu nintzanean oraino banindaukatenen erranetik. Ordu hartan nintzan izanara bereziegia da erakustaldi baten hemen ez emaiteko.

Gaua heldu zen. Ikusi nituen zerua, izar batzu, orstatze apur bat. Lehenbiziko sendimen hori ephe ezin goxoago bat izan zen. Enuen oraino neure burua hortarik baizik senditzen. Bizira orduan iaiozten ari nintzan, eta baziduritan ikusten nituen gauzak ene izaita arinaz betetzen nituela. Guzia orai hortara osoki

emana jeusetaz enintzan orhoitzen ; enuen neure buruaren senditze berezirik, ez gertatu berria zizatanaz den gutieneko gogorik ; enakien ez nor ez nun nintzan ; enuen sendi ez gaitzik, ez beldurrik, ez khexurik. Banakusan odola zariotala lats bat joaiten ikusiko nuen bezala, gogora nihundik eman gabe ere odol hori enea zela. Neure soin guzian sendi nuen jabaldura xoragarri bat, ezpaitezakoket, hortaz orhoitzen nizan aldi oroz, atsegin ezagun guzien artean berdingarri bakar bat aurki.

Galdegin zautaten nun bizi nintzan ; ezin erran nuen. Nun nintzan geldegin nuen ; erran zautaten *Gaineko Mugarrian : Atlasko mendian* errana izan balizata bezala izan zen. Galdegin behar izan ziren jarraikian han nintzan herria, hiria eta auzoa. Hori guzia etzen oraino neure buruaren ezagun-arazteko aski izan ; hortik karrika handiranoko bide guzia behar izan zizatan ene egoitzaz eta izenaz orhoitzeko. Ezagutzen enuen jaun batek eta ephe batez ene laguntzeko onezia ukan zuenak, hoin urrun bizi nintzala jakinez, eman zautan Temploan fiakra bat har nezan etxera eremaiteko. Biziki ontsa nindabilan, biziki arinki, oinazerik ez zauririk senditu gabe, nahiz ez ainitz odolez thu egin gabe. Baina banuen ene hortz hautsiak biziki erakaizki klaska-arazten zauztan hotz-ikara hormatu bat. Templora heldurik, nekerik gabe nindabilanaz geroz, uste ukan nuen hobe zela neure bideari jarraikitzea oinez fiakra batean hotzez hiltzeko irriskuaren hartzea baino. Horla egin nuen Templotik Platrière karrikara den lekoa erdia, nekerik gabe ibiliz, traba eta karrosetarik baztertuz, bidea hautatuz eta hartuz osagarri betean eginen nuen bezain ontsa. Ethortzen niz, karrikako athean ezarr-arazia den segeretua idekitzen dut, mailaldea ilunbean igaiten, eta etxera sartzen niz azkenean oraino ere hartaz ohartzen enintzan erorikoaz eta haren ondokoez bertze ixtripurik gabe.

Ene emaztearen oihuek ene ikustean harr-arazi zautaten usten nuen baino gehiago ere gaizkitua nintzala. Huna biharamunean zer nuen senditu eta ikusi. Gaineko ezpaina barnetik urratua nuen sudurrerano ; kamptik larruak hobeki gerizatua zuen eta etzuen osoki berextera uzten ; laur hortz sartuak gaineko matelhezurrean, estaltzen duen aurpegi alde guzia azkarki hantua eta uspeldua, behatz eskuna behartua eta biziki lodi, ezkerrekoa larriki zauritua, beso ezkerra behartua, belhaun ezkerra ere biziki hantua eta ukaldi azkar eta minbera batek osoki plegatzetik debekatzen zuena. Baina harramantza horrekin guziarekin hautsirik deus ez, ez eta hortz bat, eroriko hortan bezalako batean miratik baduen zoriona.

Horra zuzen-zuzena ene ixtripuaren ixtorioa. Egun gutiz Parisen hedatu zen, hainbertze aldatua eta bertzelakaturia nun jeus ezpaitzizakokeen ezagun. Bermoldatze horren beha egona izan behar nuen ; baina hanbat gertaldi lotu zizakon,

hanbat elhe uher eta ixilkeriek lagundu zuten, hanbat segetu irriegarriekin aipatzen zitzatan nun mixterio horiek guziek khexu ezarri baininduten. Ilunbekeriak beti hastiatu ditut, berez lazta bat emaiten dautate, hainbertze urtez geroz haiekin inguratzen nautenek ezpaitukete ttipitu.

Lenoir Jaunak, poliziako Ordezkarri orotakoak, harekin behin harremanik ukan ezutalarik, segetaria igorri zuen ene berrien jakiteko, eta othoitzez zerbitzu handi batzuen eskaintzera, ene sendatzeko aldi hortan balio handikoak iduritu etzizaztanak. Haren segetaria etzen egon eskaintza horietaz baliazera bizi-bizia ni hertsatu gabe, ezpanintzan hartan fidatzen Lenoir Jaunari zuzen izkiria nezakeela erraiterano. Artha handi horrek eta gaineratu zaukon segetuzko itxurak harr-arazi zautaten bazela hortan guzian zilatzeraz debaldetan ari nintzan mixterio zenbait. Etzen ene ohiltzeko hoinbertze behar, oroz gainetik ixtripuak eta harekin jina zen sukarrak ezarria ninduten asaldurazko izanaran. Mila ustekeria khexagarri eta trixtetan ari nintzan, eta inguruan gertatzen zizaztanak banabiltzan gogoan sukarraren nahasmena odol hotza baino gehiago erakusten zuen moldez.

Atsedenen uhertzera ethorri zitzatan bertze gertakari bat. Ormoyko Anderea bila ibilia zizatan zenbait urte hetan, nik zergatik zen jakin gabe. Emaitza ttipi hunki-nahi batzuek, arrazoin eta atsegin gabeko ikustaldi batzuek aski entzutera uzten zautaten horrek guziak helburu segetuzko bat bazuela, baina ez erakusten. Erreginari eskaintzeko egin nahi zuen elaberri bat aiphatua zautan. Emazte idazlez gogoan zer nuen errana naukon. Entzun-arazia zautan langai horrek haren fortunaren berjartzeko helburua zuela, hortako gerizapen beharretan baitzen ; ezer enuen horri ihardesteko. Gero erran zautan, erreginaren ondora ezin heldu ahal izanik, liburuaren emaitera publikoari deliberatua zela. Etzen gehiago galdegiten etzautan aholkuen emaiteko ordu, eta haier jarraikiko etzizeenen. Ezkuizkirioa lehenik erakutsiko zautala errana zautan. Etzezan egin othoiztu nuen, eta etzuen egin.

Egun batez, sendatzen ari nintzalarik, haren ganik ukan nuen liburu bat guzia moldizkitua eta estaliz josia ere, eta ikusi nituen aitzin-solasean nitaz hain lausengu zuri gotorak, hain erakaizki lotuak eta hainbertze hunki-nahiekin nun gozagaizki hunkia izan bainintzan. Hor sendi-arazten zen lausengu arrunta etzaitkeen behin ere ongi-nahiarekin bat izan ahala, ene bihotza eztaiteke hortan engana.

Zenbait egun berantago Ormoy-ko Anderea jin zizatan bere alabarekin. Ikasi zautan haren liburuak harrabots handia egiten zuela hori eman-arazten zaukon ohar baten gatik. Ohar hori doi-doia nuen ikusia elaberri horri lasterrez begi emaitan. Berrirakurri nuen Ormoy-ko Anderea joan eta, nola itzulia zen ikertu, uste ukan ikustaldien, lausenguen, aitzin-solaseko laudorio gotorren arrazoina zer zen aurkitzen nuela, eta gogoan hartu horrek guziak etzuela bertze helbururik publikoaren baitan oharra enea zelako sinestearen, eta beraz agertua zen gertaldian egileari ekhar zazokeen gaizkiaren jartzea baizik.

Erran-merran horren eta ukan zezakeen ondorioaren aurdikitzeo biderik enuen batere, eta ene menean zen gauza bakarra ez alhan atxikitzea zen Ormoy-ko Anderearen eta haren alabaren ikustaldi debaldeko eta agerien jarraitzea gehiago ez jasanez. Huna amari hortako igorri naukon hitza :

« Rousseau-k ezpaitu etxera idazlerik batere onhartzen Ormoy-ko anderea eskertzen du bere oneziez eta othoizten eztezan gehigo bere ikustaldiez ohora. »

Eskutitz moldean zintzoa zen, baina horrelako aldietan izkiriitzen zauzta guziak bezala itzulia zen batez ihardetsi zautan. Abreki ganibeta sartua naukon bere bihotz sendikorrean, eta behar nuen sinetsi ene aldera zituen sendimendu hoin bizi eta egiatiekin etzuela hauste hori hil gabe jasanen. Horrela dira gauza orotan zuzentasuna eta zintzotasuna gaizki-egin hastiagarri batzu munduan, eta ene arokoer gaixto eta abre agertuko nindeen ezpanu ere haien begietan ez hek bezala falsu eta enganakor izaitez bertze gaizki-eginik.

Aldi batzuez atheraia nintzan jadanik eta banindabilan aski usu Teilerietan, aurkitzen ninduten batzuen ustegabetzetik ikusi nuenean bazela ere oraino nitaz enakien bertze berri zenbait. Ikasi nuen azkenean jendearen erran-merrana ene erorikotik hila nintzala zela, eta erran hori hain laster eta hisituki hedatu zen nun hori jakin nuenetik hamabortz egun baino gehiagoren buruan Erregek berak eta Erreginak gauza segur bat bezala aipatua zutela. *Avignon-go Berriek*, eni izkiriatzeko hartu zen artharen araura, berri on hori iragarkiz, ni hil eta ene orhoitari, hil pheredikutako, moldatzen ari zauzkon laido eta itsuskerietan aitzinetik minzatzea etzuten huts egin.

Berri hori gertaldi oraino bitxiago batez lagundua izan zen ustegabeen baizik ikasi enuena eta xehatasunik batere ezin jakin daukotana. Hori zen aldi berean « suskriptione » edo diru biltze bat idekia zela ene etxean aurkituko ziren esku-izkirio guzien imprimatzeko. Hortik gogoan hartu nuen ni hil eta berehala

espesuki ene gain emaiteko egina idazki bilduma bat prest-presta bazatxikatela; ezen gogatzea alabaina aurkituko ahal zena zuzen-zuzena imprimatuko zutela, zentzuko jende baten izpirituan ezin sar zaitekeen zozokeria bat zen, eta hamabortz urtez ikusiek sobera baizik hartarik segurtatu enautena.

Ohar horiek bat bertzearen ondotik eginik eta gutiago ustegabegarri etziren bertze ainitzez jarraikirik, epheldua uste nuen asmamena berriz ohildu zautaten, eta ethengabe ene inguruan azkartzen ari zituzten ilunbe beltz horiek zuzenki bazemataten lazta guzia berphiztu. Hortaz guziaz mila arrazoinamenduetan akitzen nintzan eta enetako zilatu ezinak bilakatuak dituzten mixterioen argitzen. Hoinbertze asmagaien ondorio bakarra aitzinean eginak nituen guzien baieztatzea izan zen, erran nahi da nihauren zortea eta ene aiphamenarena oraiko gizaldi osoak batean mugatuak izanik, edozein ene indarrek enindezakeela hartarik bazter, ezin dezakatenaz geroz deus ere utz bertze adin batzuetara, adin huntan horren barreatzera ari diren eskuetarik iragan-arazi gabe.

Baina aldi huntan urrunago joan nintzan. Hoinbertze gertaldi ustegabekoen metatzea, ene etsai amorratuenen goititzea, halabeharrak lagundua bezala, Estatua gobernatzen duten guziak, jendearen gogoia bidatzen duten guziak, karguetan diren guziak, ahalean diren guziak taulan bereziak bezala nitaz gorromio segeretuko zenbait dutenen artean, ororen bat izaite hori ohigabekoegia da huts-hutsa ustegabetakoa izaiteko. Haren alde jartzea onhartuko etzuen gizon bakar bat, kontrakoa izanen zuen gertakari bakar bat, traba ekharriko zaukon ustegabeko gertaldi bakar bat, aski zen haren eror-arazteko. Baina nahikaria horiek orok, halabehar orok, fortunak eta gizonen lana azkartu dituzten itzulika orok, eta mirazkoa badidurien orotako bateratze horrek enindezake utz ondorio osora heltzea betiereko erabakietan izkiritua dela dudatzera. Ohar berezi andana batek, ala iraganean, ala oraian, hanbat dauta gogoia aburu hortan azkartzen nun ezpainindaike egon hemendik goiti zeruko segeretu ezin zilatu hetarik bat bezala ikusi gabe, orai arteo gizonen gaiztakeriaren emaitza batendako nadukan hori bera.

Gogamen horrek, oinazkatzale eta urragarri izaitetik urrun, konsolatzen nau, jabaltzen, eta etsitzera laguntzen. Enoa san Agustin bezain urrun, danatua izaiteaz konsolatuko baitzen Jainkoaren nahia hori izan balitz. Ene etsipena ithurri gutiago abantail-nahigabetik dator egia erran, baina ez gutiago garbi eta adoratzen dutan Izaite beteginarendako gutiago gai denetik ene ustez. Jainkoa zuzena da; sofri dezadan nahi du; eta ogengabea nizala badaki. Horra ene konfienciaren arrazoina, bihotzak eta gogoak oihu egiten dautate enuela enganatuko.

Utz ditzagun beraz egitera gizonak eta halabeharra ; ikas dezagun murmurikatu gabe sofritzen ; guziak azkenean ordenuan sartu behar du, eta ene aldia ere jinen da goiz edo berant.

IBILALDI HERENA

« *Zahartzen ari niz beti ikasiz.* »

Zolonek neurtitz hori zaharraroan usu errepikatzen zuen. Erran-nahi bat badu nihaurenean ere erran nezakeena ; baina jakitate ontsa trixtea da biziak hogeituz geroztik ukan-arazi dautana. Nahigabea segurki ikasle handi bat da, baina ikastaldiak khario paga-arazten ditu, eta ainitzetan hartarik ukaiten den ongiak ezta gosta den saria balio. Bertzela ere, irabazi hori guzia hoin ikastaldi berantekoetarik ukana baino lehen, baliatzeko aldia galdua dute. Gaztaroa zuhurtziaren ikasteko ordua da ; zaharraroa haren baliatzekoa. Ikusi denak erakasten du beti, aithor dut ; baina ezta baliorik aitzinean den unearendako baizik. Hil behar den orduan nola bizi behar izanen zen ikasteko aro dea ?

He ! zer balio dute enetako ene zoriaz eta haien ondorioa den bertzen sendimenduez hoin berant eta hoin mingarriki hartu argiek ! Eztut gizonen hobeki ezagutzen ikasi hartan murgildu nauten miseriaren hobeki senditzeko baizik, ezagutza horrek, haien jukutria guziak ager-araziz, horietan bat ezpaitauta huts egin-arazi ahal. Zergatik eniz beti egon hainbertze urtez ene adixkide harrabostunen menekoa eta jostagailua bilakatu ninduen konfiencia zozo baina ezta hartan, inguratzen ninduten zimarku guzien den gutieneko aierurik ere enuelarik ! Haien enganagaia eta bitima nintzan, egia da, baina uste nuen maite nindutela, eta ene bihotza gozatzen zen sor-arazia zautaten adixkidantzaz ene alderako bertze hainbertze bazutela uste nuelarik. Amets ezta horiek ezeztatu dira. Demborak eta arrazoinak ene zorigaitza sendi-araziz agertu dautaten egia ilunak ikus-arazi dauta erremediorik gabea zela eta etzizatala etsitzea baizik gelditzen. Horrela ene adinean bizi ukanak ditutan guziak izanara huntan oraiko baliorik gabe dira, eta geroko abantailik.

Iaiotzean gudugunean sartzen gira, hiltzean handik atheratzen. Zer balio du karroaren bidatzen ikastea karrikaren buruan denean ? Ezta orduan nola jalgiko den gogoan ukaitea baizik gelditzen. Agurearen ikaskizuna, egiteko gelditzen baldin bazako oraino, hiltzen ikastea da bakarrik, eta hura da bereziki ene adinean gutienik egiten dena, orotaz gogutzen da, hortaz salbu. Zahar guziak biziari haurrak baino atxikiagoak dira eta gaztek baino gogo gaixtoagoz uzten dute. Ezen lan guziak bizi hortako bereko eginik, bururatzean akhidura guziak galdu dituztela baitakusate.

Artha guziak, ontasun guziak, beila lantsuen ondorio guziak, oro uzten dituzte bizia uzten dutenean. Bizi zireno eztira hiltzean ereman zezaketen ezeren biltzeaz gogatu.

Hori guzia neure baitan erran dut erraiteko ordu zenean, eta ene gogoetearik ezpadut abantail hoberik ukaiten jakin, ezta ordu zeno ez eginak ukanik eta ontsa egosirik. Haurzarotik munduko zirimolara egotzia, biziak goizik ikasi zautan enintzala bizitzeko egina, eta nehoiz ere enintzala ene bihotzak behar zuela sendi zuen izanarara helduko. Beraz haien artean ezin aurki nezakeela sendi nuen zorionaren bilatzetik geldituz, ene asmamen gartsuak jauzi egiten zuen doi-doia hasia nuen biziko unearen gainetik, arrotz zizatan eremu batetik bezala, han jar nindaitekeen leku geldi batean atsedean hartzeko.

Sendimendu horrek, erakaskuntzan haurzarotik hazia eta bizi osoan bete duen miseriaz eta zorigaitzezko jostura luzeak azkartua, bila-arazi dauta ordu oroz ena jitearen eta bilakaeraren ezagutza edozein bertze gizonen baitan aurkitu dutan baino jakin-nahi eta artha gehiagorekin. Ainitz ikusi ditut filosofian ari zirenak nik baino ontsa jakitate gehiagorekin, baina bere filosofia hala erraiteko arrotz zizeen. Bertze batzu baino jakintsunago izan nahiz, mundu osoa ikertzen zuten nola antolatua zen jakiteko, ikusia zuten mekanika zenbait eginen zuten bezala, ikus-nahi hutsez. Giza-naturaleza ikertzen zuten hartaz jakitate gehiagorekin mintzatu ahal izaiteko, baina ez ezagutzeko : bertzen argitzeko ari ziren, baina ez barnera bere argitzeko. Hetarik batzuek etzuten liburu bat egin nahi baizik, zein nahi, onhartua izan zadin ber. Egina zutenean eta agertua, etzuten barnean zuenaz gehiago neholako axolarik, bertzer onharr-arazteko ezpada eta asaldua gertatzen baldin bazen zaintzeko, baina bertzela berek erabiltzeko ezer hartarik athera gabe, ez axolatuz ere bazadukana gezurra zenez ala egia ezeztatua etzen ber. Nik aldiz ikasi nahi ukan dutanean nihaurek jakiteko zen eta erakasteko ; beti uste ukan dut bertzeak erakatsi baino lehen behar zela nor berarendako aski jakitetik hasi, eta bizian gizonen artean egitera entseatu nizan ikaspen guzietan guti da ene gainerateko egunendako hara bazterturik izanen nintzan irla huts batean ere berdin eginen enuenik. Egin behar dena sinesten denaren menean da handizki, eta naturalezaren lehenbiziko beharrer lotua ezten guzian gure aburuek badagite gure egintzen eredia. Gogamen hortan, beti enea izan zena, usu bilatu dut eta luzaz, biziko moduaren bidatzeko, zer duen egiazko helburua, eta laster konsolatu niz mundu huntan trebeki ibiltzeko nuen antze gutiaz, horrelako helbururik etzizakola bilatu behar sendituz.

Onestasuna eta debozioea nagusi ziren familia batean iaioa, gero elizako minixtro zuhartziaz eta erlisione ez bete baten etxean ez tiki hazia, ttipi-ttipitik ukanak nituen erregelak, zuhurtziazko legeak, batzuek erran lirote aitzin-gogamenak, behin ere ezpainute osoki utzi. Haur oraino eta nihauri utzia, pherekuez azikatua, handieriaz gutzizatua, ezperanzaz enganatua, beharraz bortxatua, katholiko bilakatu nintzan, baina beti girixtino gelditu, eta berehala ohidurak harturik, bihotza erlisione berriari zintzoki lotu zizatan. Warens-ko Anderearen erakaspeneak, behazunek bizkortu zautaten atxikimendu hori. Gaztaroko lorea hartan ereman dutan bakartasun baserritarrak, osoan hartara eman nintzan liburu onen ikaspenak, azkartu zituzten haren ondoan sendimendu amultsuetarako jitez nituen ixuriak, eta abantzu Fenelon-en moldean «debot» bilakatu ninduten. Hartara baztertua nindagon baserriko gogoetatzek, naturalezaren ikertzeak, mundo osoari beha egoiteak, bakartua den bat bortxatzen dute gelditu gabe gauzen egilearen aldera oldez abiatzera eta khexu ezti batean badakusan ororen azken finaren eta sendi duen guzia egile izana denaren bilatzea. Ene zoriak berriz munduko uhaitzera egotzi ninduelarik ezer enuen han aurkitu bihotza ephe batez ere balaka zezatanik. Ene iragan asti ez tien urrikia orotan jarraiki zizatan, axolagabea eta narda eman-araziz fortunara eta ohoretara eremaiteko eskura nezakeen guziari. Ene gutizia khexuetan segurtasunik gabe, esperanza guti eduki nuen, gutiago ukan, eta joritasunaren leinuruetan beretan senditu nuen bilatzea uste nuen guzia eskuan ukanen nuenean ere enaukola aurkituko bihotza hartaz gose nuen zorion hura zer zen ikusi gabe. Horrela orok baninderaman mundu huntako atxikimenduetarik baztertzerara, osoki hartan arrotz bilaka-araziko ninduten zorigaitzak baino lehen ere. Berrogei urtetarano heldu nintzan, beharraren eta fortunaren artean zalantzaka, zuhurtziaren eta erokeriaren, ohidurako bizioz betea bihotzean ixuri gaitzik batere gabe, gertaldika biziz arrazoinak ontsa manatu araurik gabe, ene eginbidetarik baztertua hek gutietsi gabe alta, nahiz ainitzetan ontsa ezagutu gabe.

Gaztarotik berrogei urteko adin hori jarria nuen zerbaitetara heltzeko ene indarren eta handi-nahi mota orotakoen muga bezala. Ontsa deliberatua, adin hortara heldua izan orduko eta zer nahi egonaratan izan nindadin, handik atheratzeko ez gehiago indarretan artzera eta gainerateko egunak egunetik egunera iraganez ethorkizunaz gehiago batere axolatu gabe. Ordua jin zenean, xede hori nekerik gabe bete nuen, nahiz ene fortunak segurkiago jartzera zoala iduri zuen ; etsia hartu nuen ez bakarrik urrikirik gabe baina egiazko atsegin batekin. Neure burua amarru horietarik guzietarik liberatuz, esperanza hutsal horietarik, beteki

eman nintzan axolagabeari eta betidanik ene gustu azkarrena eta ixuri iraunkorra izana zen gogoko atsedinari. Utzi nituen mundua eta haren ospeak oro : gehiago ez ezpatarik, ez sakelako orenik, galtzerdi xuririk, urrierarik, ile antolatzerik, perruka xoil-xoil bat, oihalezko jantzi lodi on bat, eta hori oro baino hobeki, errotik athera nituen uzten nuen guziari balioa emaiten zaueten bihotzeko nahikariak eta gutziak. Orduan banadukan lekuari uko egin naukon, ezpainintzan batere hartako gai, eta musika kopiatzen hasi nintzan hunenbertzeko orrialdean, beti hartako gustu deliberatua ukana dutan egitekoa.

Enuen ene erreforma kampoko gauzetan mugatu. Senditu nuen horrek berak behar zuela baitezpada bertze bat dudarik gabe nekeagoa, baina beharragoa gogamenetan, eta bietan ez hastera deliberatua, abiatu nintzan neure baitako ikerraldi biphil baten egiten, gainerateko biziko hiltzean aurkitu nahi nuen bezala ezarria izan zadin.

Nitan egin berria zen itzultze handi batek, begietara agertzen zizatan moralezko bertze mundu batek, aitzinera zenbat haien bitima izanen nintzan ikusi gabe arrazoiingabea senditzen hasten nauen gizonen aburu zentzugabekoak, beti handitzen ari zen literaturako aiphamenxkaz bertze on baten beharrak, haren usainak doi-doia hunki eta jadanik higundua baininduen, gainerateko biziko erdia hartan ereman berria nuen baino bide gutiago dudazko baten marratzeko nahikariak, orok bortxatzen ninduten aspaldidanik beharra senditzen nuen ikerraldi handi hortara. Hasi nuen beraz eta eskuan nuen ezer enuen langai horen ontsa egiteko baztertu.

Dembora hortara eman dezazket munduari osoki uko egitea eta geroztik utzi enauen bakartasuneko gustu bizia. Hasten ari nuen lana etzaitkeen bakartasun osoan baizik egin ; galdatzen zituen gizarteko harramantzak ezin jasan dezazkeen luze 'ta bakezko gogoan sartzeak. Horrek bortxatu ninduen ephe batendako bertze bizi modu baten hartzera gero hartaz hain ontsa aurkitu bainintzan nun, ez gero bortxaz baizik hautsirik eta arte gutiendako, berriz gogo betez hartu baitut eta hartan nekerik gabe egon bainiz ahal ukan dutenetik ; eta gero gizonen bakarrik bizitzera hertsatu nautenean urrikalgarri bilakatzeko bahituz, ene zorioneko nihaurek egiten jakina nuen baino gehiago egina zutela aurkitu dut.

Hasia nuen lanari jarraiki nintzan, bai gauzak zuen baliorendako, bai haren beharretan nintzala senditzen nuenarendako behar zen baino gemen gehiagorekin. Orduan bizi nintzan filosofo zaharren egite guti duten filosofo berri batzuekin. Ene duden eta deliberamendu eskasen zuzentzeko orde, haien ezagutzea

baitezpadakoenik zizatan gauzetan banituela uste nuen sinesmen guziak khordokatuak zauzaten ; ezen atheismoko misionest suhar eta dogmatikalari biziki manukari, etzuten edozein gauzetan bat hek ez bezala gogatzera ausart zadin haserrerik gabe jasaiten. Usu aski ahulki ihardokia nauen aharraren hastioz eta haren atxikitzekeo antze guti ukanez ; baina ehoiz enuen onhartu haien dotrina lastimagarria, eta hoin gizon gogo bortitzez ihardokitze hori, bere ikuspenak bazituztenak bertzela ere, etzen haien gorrotoa sustatu zuen arrazoin ttipienetarik bat izan.

Eninduten bildua baina bai khexu ezarria. Haien arrazoinek khordokatua ninduten behin ere haien sinestera ekharri gabe; enauen ihardespen onik aurkitzen baina sendi nuen bazaitekeela. Neure burua salatzen nuen hutsez baino gehiago zozotasunez, eta ene bihotzak ihardesten zauen arrazoinak baino hobeki.

Azkenean egin nuen neure baitan : betiereko utziko niza arrazoin alegiazko hobeki erranez bimbilikatzera, enizalarik segur ere pheredikatzen dituzten aburuak, haien bertzer onharr-arazteko hainbertze suhartasun badutelarik, zinez bere-bereak dituztela ? Bere dotrina manatzen daueten tirriek, hunen edo horren sinets-arazteko abantail-nahiek, berek zer sinesten duten ezin zilatua bilakatzen dute. Gogo zuzenik aurki daitekea alderdi bateko buruzagien baitan ? Duten filosofia bertzendako da ; nihaurena dutan bat behar nuke. Ene indar guziez bila dezagula oraino ordu deno ibilmoldeko eredu bat ukan dezadan gelditzen zaitan egunendako. Huna nun nizan adinaren zohian, adimenaren indar bete-betea. Jadanik beherapena hunkitzen dut. Gehiago igurikatzen baldin badut, deliberamendu berantegian eztut ene indar guzien baliatzeko ahalik ukanen ; ene gogoko antzek bere bizitik galdua ukanen dute jadanik, gaizkiago eginen dut gaurregun ahal bezain ontsa badagiketana ; une baliagarri hau har dezagun ; ene kampoko eta gauzetako erreformaren ordua da, gogokoa eta moralekoa ere izan dadila. Behin betikotz geldi ditzagun ene aburuak, prinzipioak, eta gelditzen den biziko izan gaitela ontsa gogatu ondoan izan behar dutala aurkituko dutan hura.

Xede hori emeki bete nuen eta aldi batzuetan berriz hasiz, baina ahal nuen indar eta ohar emate guziarekin. Azkarki sendi nuen ene azken egunetako atsedena eta zori guzia horren menean zaudela. Lehenik aurkitu nintzan halako traba, neke, ihardokitze, bihurtzea, ilunbetako galgunetan, nun hogeit aldiz guziaren uztera gutiziatua, bilaketa hutsal batzuer uko eginez ene deliberamenduak gelditzer bainituen ohiko zuhurtziaren eredueta, haien berexen hainbertze neke ukana nuen

ekhaietan hek bilatu gabe. Baina zuhurtzia hori ere hain zizatan arrotz, hain guti sendi nintzan horren ukaiteko gai, nun ene bidatzeko horren hartzea ezpaitzen, itsasoetan, ekaitzetan gaindi, lemarik gabe, otanik gabe, abantzu ezin heldua eta porturik batere erakusten etzautan gauargi bat bilatu nahi ukaitea baizik..

Neure hartan egon nintzan alta : biziko lehen aldikotz kuraia ukan nuen, eta hortan ontsa heltzeari zor daukot ordukotz, nihaurek aierurik batere gabe, iguruan jartzen hasia zizatan zorte lazkarriari ihardoki ahal ukaitea. Behin ere behar bada hilkor batek eginak izan diren bilaketa suhar eta zintzoenen ondotik, bizi guziko deliberatu nintzan haien ukaitea beharrezkoa zitzatan sendimendu guziez ; eta ondorietan huts egin ahal baldin badut, segur niz bederen eztela ene hutsa gaizkitzat gainera eman ahal zatana, indar guziak egin baititut hortarik gerizatzeko. Eztut dudatzen, egia da, haurzaroko aitzin-gogoek ene bihotzeko agiantza segetuzkoek eztutela haztakina enetako konsolagarriena zen alderdira makurrarazi. Nekez du nork bere burua zaintzen hanbat suhartasunekin gutiziatzen denaren sinestetik, eta nork duda dezake bertze biziko jujamenduen onhartzeko ala ukatzeko nahikariak eztuela gizon gehienek esperanzaz ala beldurraz duten sinesmena moldatzen ? Horrek guziak ene gogamena lillura zezakeen, egia da, baina ez ene fede ona alda, ezen gauza orotan huts egiteaz beldur nintzan. Guzia bizi huntako erabilpenean baldin bazatzen, jakin nezan baitezpadakoa zen, hortik hartzeko bederen, ordu zeno, ene menean zen alderdi hoberena, eta osoki enganagai ez itaiteko. Baina sendi nintzan izanaran oroz gainetik munduan beldur izaiteko nuena, ene arimaren betiereko zoriaren lanjerrean uztea zen mundu huntako ontasunez gozatzeko, ehoiz ezpaitzazta balio handikoak iduritu.

Aithor dut ere trabatu ninduten neke horiek oro, eta gure filosofoek hain usu beharriak hetaz joak zauzatenak, enituela beti askietsia izaiteko neurrian baztertu. Baina, giza-adimenak hetan hoin hartze guti duen ekhaiez erabakitzera deliberaturik azkenean eta alde orotan mixterio ezin zilatu eta arrazoin ezin argiturik baizik ez aurkituz, hartu nuen gauza bakoitzeko zuzen hobeki jarria iduritu zizatan sendimendua, berez sineskarriena, ezin argi nezazkeen baina berak kontrako sistiman bertze ez gutiago azkarrago batzuez ezeztatzen ziren arrazoin batzuetan gelditu gabe. Doinu dogmatikoa eztoa gauza horietan tartarikarien ahoan baizik ; baina nor berarendako sendimendu baten ukaitea beharrezkoa da, eta eman daitekeen gogoko seriestasun guziarekin horren hautatzea. Hori eginik ere, hutsera erortzen baldin bagira, ezkinuke zuzenbide onez ogendun izaitea jasan behar hutsa

egin nahi ukanen eztugunaz geroz. Horra ene segurtasuna oinarritzen duen erregela ezin khordokatua.

Ene ikerraldi nekagarrien ondorioa gero *Bikari saboiatarraren* sinestezko aithormenean ezarri dutan bezalatsukoa izan zen, oraiko gizaldiak gaizkira ahalgegarriki itzuli duena, baina egun batez gizonen artean iraultze bat egin dezakeena ehoiz zentzua eta gogo ona berphizten baldin badira.

Geroztik, hoin gogatzeko luze 'ta serioaren bidez hartuak nituen erduetan geldirik, hortaz egin dut ene bizimoduko eta sinesteko erregela ezin aldatua, gehiago khexatu gabe ez ezin argitu nituen kontrako arrazoinaz ez aitzinetik ikusi ahal enituen eta noizten berriz gogoratzen zizaztanez. Khexu ezarri naute batzuetan baina nehoiz ez khordokatu. Erran dut beti neure baitan : hori guzia ezta arrazoinkeria eta metafisikako zorrozkeriaz bertzerik, phizurik batere ezpaitute nihauren arrazoinak onhartuak dituen oinarrizko erduen ondoan, bihotzak baieztatuak, eta orok baitakarte tirrien ixilean barneko baiaren zigilua. Giza-adimendua baino hanbatez gorago diren gai horietan, ezin argi dezaketan kontra-arrazoin batek aurdikiko dua dotrinazko gorputz hoin azkar bat osoa, hoin ontsa josia eta hoinbertze gogamen eta arthaz moldatua, ene arrazoinari hoin ontsa doakona, ene bihotzari, ene izaite guziari, eta bertze guzier huts egiten dauela sendi dutan neure baitako baimenaz azkartua ? Ez, arrazoinkatze hutsal batzuek eztute barreatuko ene izaite hilgaitzaren eta mundu hunen egituraren eta hortan nagusi den gauzetako ordenuaren artean badakusatan egoki izaitea. Horri doakon moraleko gaian eta sistima ene bilaketen ondorioa duenean aurkitzen ditut bizirik nahigaben jasaiteko behar ditutan laguntzak. Bertze edozein sistimetan behar denik gabe bizi nintzateke eta esperanzarik gabe hil. Izaitetan den zorigaitzekoena nintzateke. Gauden beraz fortunaren eta gizonen gatik ere eni zorion emaitako aski den hartan.

Deliberamendu horrek eta hortarik athera nuen ondorioztatzeak eztiduritea zeruak berak emanak, ukan behar nuen zorioneko prest izan nadin eta horren jasaiteko heinean ezarria ? Zer bilakatuko nintzan, zer bilaka nindaikere oraino, ethortzeko ziren antsia izigarrietan eta hartara gainerateko biziko hertsatua nizan izanara sinets ezinean, ene asaldatale amorratuatarik hara ihes egin dezaketan atherberik gabe gelditurik, ikusi baldin banu neure burua oso-osoan utzia edozein hilkorrek lurrean jasan ahal duen suerte laztagarrienera ? Ene ogengabea geldirik, enuelarik gizonen artean ene alderako estimu eta ongi-nahirik baizik asmatzen ; ene bihotz ideki eta fidakorra adixkide 'ta aniaekin konfiñxian zelarik, saltzalek ixilki estekatzen ari ninduten ifernuen zolako aroztegietan landu burdin-saretan. Arima

burgoi batendako datezkeen zorigaitz ustegabeko eta laztagarri guziek hatzemanik, lohian herrestatua behin ere nork eta zergatik jakin gabe, desohorezko leze batean murgildua, haien artetik gauza gaizkorrik baizik ikusten enuen ilunbe laztagarriez inguratua, lehenbiziko ustegabeen lurrera aurdikia izan nintzan, eta nehoiz enintzan aitzinera ikusi gabeko zorigaitz mota horrek bota ninduen etsipen hortarik atherako, ezpanitu aitzinetik erortetarik zutitzeko behar ziren indarrak bilduak ukan.

Enuen khexuzko urte 'ta urteak ondoan baizik senditu, neure baitaraturik azkenean, nahigabetako moldatuak nituen atherabiden balioa. Gauza orotan nola behar nuen gogatu deliberaturik, ikusi nuen, ene erregelak nintzan ararekin gomparatuz, gizonen jujamendu zoroer eta bizi huntako gertakari ttipier emaiten nauela zuten baino balio phizu biziki gehiago. Bizi hau ez izanez atheka gaixtozko izanara bat baizik, horiek halako moldekoak izan zaiten nun hartako eginak ziren ondorioa ukan zezaten baitezpadakoa zen, eta beraz athekak gehiago handiak, azkarrak, errepikatuak izanez haien jasaiten jakitea are gehiago abantailgarri. Nahigabe bizenek orok indarra galtzen dute haien ordaintzea handi eta segur badakusateneendako ; eta ordaintze horren segurtasuna zen aitzineko gogoetetarik hartua nuen fruitu nagusia.

Egia da hetaz lehertua sendi nintzan ezin zenbatuzko laidoen eta neurrigabeko itsuskerien erdian, khexuz eta dudazko arte batzu heldu zizaztala noizten ene esperanzaren khordokatzerara eta atsedenen uhertzera. Ezin argitu nituen kontra-arrazoin azkarrak heldu zizaztan orduan gogora indar gehiagorekin ene osoki aurdikitzeke, etsipenean erortzera nindoan orduetan zuzen-zuzena. Ainitzetan eman nahi nituen arrazoin berri batzu gogora heldu zizaztan, jadanik oinazkatua nindutenean azkartzeko. Ha! nion orduan neure baitan ithotzera ninderamaten bihotz herstura batzuetan, etsitzetik nork zaindu nau ene zoriaren laztan arrazoinak emaiten zautan konsolamenduetan ezpadut ametsetakorik baizik ikusten ? Zer laguntza munduan ni baizik leriartzen eztuten lilluramendu batzuetan ? Oraiko gizaldi osoak eztu hutsik eta aitzin-gogamenik baizik ikusten ni bakarrik hetaz alhatzen nizan sendimenduetan ; egia, argia enearen kontrakoa den sistiman aurkitzen ditu ; badiduri ere gogo onez onhartzen dutala ezin sinets dezakeela, eta nihaurek ene nahi guziaz hartara emanik, ezin argi dezaketan baina hetan egoitea ezin utz dezaketan neke ezin garhaituak aurkitzen dauzkot. Zuhur bakarra niza bada, gizakien artean argitu bakarra ? gauzak horrela direla sinesteko eni ontsa zazitza izaita aski dea ? konfienxia argitu bat har dezaketa bertze gizonen begietan bermurik jeus eztuten itxurapen batzuetan eta nihauri ere, bihotzak ezpalata

arrazoina azkartzen, lillurazkoak iduritu zizaztanetan ? Ene asaldatzalen gudukatzea harma berdinekin etzena hobe izanen haien gogamenak onhartuz, haien ukaldien meneko nihaurenen ametsetan egoitea baino haien gibelatzeko ezer egin gabe ? Zuhur nizala uste dut, eta ez enganatua, ez huts debaldeko baten bitima eta martira.

Zenbat aldiz, dudazko eta zalantzazko ordu horietan, neure buruaren etsipenera uztekotan izan nintzan. Ilabete oso bat iragan ahal baldin banu izanara hortan, ene biziaz eta eneaz egina zen. Baina gaitzaldi horiek, nahiz lehenago aski usuak, beti labur izanak dira, eta orai enizalarik hetaz osoki arindua, hain bekan dira eta laster nun ezpaitute ene atsedenen uhertzeko indarririk ere. Khexaldi arin batzu dira arima eztautatenak hunkitzen erre kara erortzen den lumak ura alda dezakeen baino gehiago. Senditu dut aitzinean erabakiak nituen ekhai beren berriz deliberamendutan ezartzea, argi berri batzu banituela uste ukaitea zela edo ene ikerraldien ordu hartan nuen baino adimendua hobeki moldatua nuela edo egiarendako khar gehiago ; horrelako gertalditan ez izanez eta ez ahal izanez ere, enezazkeen edozein arrazoin azkarren bidez hautets, ene miseriaren handitzeko baizik gutzizatzen enituen aburu batzu, adinaren azkarrenean, gogoaren zohitasun osoan, ikermen gogatuenaren ondotik, eta biziko geldiak egiaren ezagutzeaz bertze abantail nagusirik uzten etzautan orduetan hartu sendimendu batzuer. Gaurregun ene bihotza antsiaz hertsatua, ene arima nahigabek aurdikia, ene asmamena ohildua, ene burua inguratua nizan hainbertze mixterio laztagarriez nahasia, gaurregun ene antze guziak, adinak eta antsiek ahuldurik, bere gemena galdua dutelarik, abiatuko niza antolatuak nituen atherabide guzien neure gostuz haustera, eta beherapenean den ene arrazoinean zuzengaizki khondatzera zorigaitzeko bilakatzekotan, arrazoin bete eta azkarrean baino hobeki, merexitu gabe oinazkatzen nauten gaitzen ordaintzeko ? Ez, eniz galde handi horietaz deliberatu nuenean baino ez zuhurrago, ez jakinduruago, ez gogo hobeko ; enintzan orduan gaurregun neure burua hetaz nahastera uzten dutan nekeak jakin gabe ; eninduten gelditu, eta oraino gogoratua etzizeen berri zenbait aitzineratzen baldin bazata, eztira metafisika zorrotz bateko arrazoin gezurrezkoak baizik izanen, ezpailakikete aro guzietan, zuhur guziek onhartu, herri guziek beretu dituzten eta hizki ezin ezabatuz bihotz orotan sartuak diren betiereko egien garhaitzen. Gai horietaz gogoetatzean, banakien giza-adimenduak, sentsuek mugatua baita, etzezazkeela bere hedadura osoan entzun. Ene menean zenean gelditu nintzan beraz gainditzen zuenera sartu gabe. Alderdi hori arrazoinekoa zen, lehenago hartu nuen, eta hartan egon nintzan ene bihotzaren eta arrazoinaren baimenarekin. Zeren gatik utziko ditut orai hainbertze gauza

indardunek haier eratziki behar nautenean ? zein lanjer haier jarraitzean ? zein abantail nuke hek utziz ? Ene jazarlen dotrina hartuz, hartuko duta ere haien morala ? Bere liburuetan edo antzokiko egintza distiratu zenbaitetan ospatsuki hedatzen duten morala errorik ez ekoizpenik gabeko hura, ezer behin etzakolarik bihotzean ez gogoan sartzen ; ala bertze morala bortitz eta segetuzko hura, haiekin ikasiak diren guzien golkoko dotrina, bertzea ezpaitzako maskatzeko baizik baliatzen, bere egintzetan bakarrik erabiltzen dutena eta ene aldera hain trebeki baliatu ? Morala hori, osoki jaukitzeko egina, ezta zaintzeko erabilgarri, eta asaldetzeko da bakarrik on. Hertsatu nauten izanara huntan nola balia nezake ? Ene ogengabetasun bakarrak nau zorigaitzetan laguntzen ; eta zenbat zorigaitzekoagoa bilaka ninzateke oraino, atherabide bakar baina azkar hori utziz, gaixakeriaz ordaintzen banu ? Gaizkiko antzean helduko niza haien heinera, eta heltzen baninz ere, zein minez arin nindezake haier egin nezakeenak ? Neure estimua gal nezake eta haren orde ezer ez irabaz.

Neure buruarekin horrela arrazoinkatuz nintzan heldu ene erregeletan arrazoin amarrutsu, kontra-arrazoin ezin hautsi, eta ene ahala eta behar bada giza-izpiritua gaintitzen zuten batzuez khordokatzeraz ez gehiago uztera. Eman ahala naukon leku azkarrenean ezarririk, ene izpiritua konzienziaren itzalean atsedena hartan hartzeraz hain ontsa jarri zen nun bertze dotrina zahar edo berri edozeinek ezpaitezake ephe batez ere ene atsedena higi ez uher. Ahuldurara eta izpirituko dorpetasunera eroririk, ene sinesmena eta erregelak hetan oinarritzen nituen arrazoinamenduak berak ahaztiak ditut, baina behin ere eztitut ahaztiko ene konzienziaren eta arrazoinaren baimenarekin hetarik athera ditutan ondorioak, eta hetan nago hemendik goiti. Betorz filosofo guziak haier kontra erraitera : dembora eta nekeak galduko dituzte. Banago gelditzen zatan biziko, gauza orotan, hautatzeko izanara hobean nintzanean hartua dutan xedean.

Gogamen horietan geldirik, aurkitzen dauet, nihauren askiestearekin, ene izanaran behar ditutan esperanza eta konsolamenduak. Ezin daiteke bakartasun hoin osoak, hoin iraunkorak, bereaz hoin trixteak, oraiko gizaldi guziaren gorroto beti sendikorak eta beti biziak, ethengabe hetaz lehertzen nauen laidoek enezaten batzuetan aurdik ; esperanza khordokatuak, duda etsigarriak heldu zaza oraino noiztenka arimaren uhertzera eta trixtezia betetzera. Orduan dut, segurtatzeko behar diren izpirituko indarren egiteko ahalik gabez, ene aitzineko deliberamenduez orhoitu behar ; haien hartzeko ukanak ditutan arthak, oharpena, bihotzeko zintzotasuna gogora heldu zaza orduan eta konfiencia berremaiten

dautate. Horrela neure burua ideia berri guzietarik baztertzen dut itxura gezurrezko bat baizik ez tuten eta atsedenen uhertzeko baizik on etzaztan huts hilgarri batzuetarik bezala.

Beraz ene lehengo ezagutzen eremu hertsian gelditua, ez tut, Zolonek bezala, zahartzean egun oroz ikasi ahal ukaiteko zorionik, eta behar dut ere hemendik goiti ontsa jakiteko gai ez nizanaren ikasi nahi ukaiteko urgulu lanjeroretik neure burua gerizatu. Baina biltzeko gauza guti gelditzen baldin bazata argi baligarrien aldetik, egiteko biziki gotorak gelditzen zazta ene izanaran beharrezko diren bertutenetik. Hor lizateke ene arimaren aphaintzeko ordu berekin ereman ahal lezakeen irabazi batekin, trabatzen eta itsutzen duen soin huntarik berexirik , eta egia estalgirik gabe ikusiz, gure jakintsun alegiazkoak hetaz hoinbertze espantu badagiten ezagutza guzien ezteusa agertuko zaukonean. Bizian hek ukan nahiz galdu dituen orduz auhenka ariko da. Baina pairamena, ez titasuna, etsia, onestasuna, zuzenbide alderdi gabekoa nor berarekin eremaiten diren onak dira, hetaz beti aberasten ahal baita, herioak berak haien balioa gal-araziko daukula beldur izan gabe. Ikaste bakar eta baliagarri horri daukot emaiten zaharraroko gaineratekoa. Dohatsu neure aitzinatzen bidez, bizitik jalgitzen ikasten baldin badut, sartzean nintzan baino ez hobeturik, hori ezina baita, baina bertute gehiagorekin.

IBILALDI LAURDENA

Batzuetan oraino irakurtzen ditutan liburu gutietan, Plutarque da gehienik banatxikana eta baliatzen zatana. Ene haurzaroko lehen irakurtzea izan zen, zaharraroko azkena izanen da ; zerbait abantail bildu gabe nehoiz irakurri ahal eztutan idazle abantzu bakarra da. Herenegun, haren moraleko lanetan irakurtzen nuen *Nola batek etsaiez abantail har dezakeen* gaikoa. Egun berean, egilek igorriak dauztaten liburuxka batzuen lerrokatzean, Rosier aphezaren egunkarietarik baten gainera erori nintzan, izenburuan hitz hauk ezarriak baitzituen : *Vitam impendere vero* (*), Rosier. Jaun horien itzuliez sobera jakina hortan huts egiteko, entzun nuen jendetasunezko itxura horren giblean eni egia kontrako gaixto baten erraitea uste ukana zuela : baina zertan oinarritua ? zergatik trufa hori ? zer arrazoin emana ahal ote nuen hortako ? Plutarque onaren ikastaldiez baliatzeko deliberatu nuen biharamuneko ibilaldia gezurrean neure buruaren ikertzeko erabiliko nuela, eta joan nintzan Delphes-ko Temploko *Ezaguk heure burua* etzela ene *Aithormen*-etan uste ukana nuen bezain jarraik errexa.

Biharamunean, delibero horren betetzekotan abiatu, jin zizatan lehenbiziko gogoeta neure baitan sartzerakoan gaztaro lehenean egina nuen gezur ezin itsusiago batena izan zen, haren orhoitzapenak bizi guzian nahasi bainau eta baitator, zaharrarorano, ene bihotz hainbertze zorigaitzek zaurituaren oraino iluntzera. Gezur hori, bereaz gaizkin handi bat izan zena, handiago bat izan zaitekeen oraino beti hek jakin gabe egona nizan ondorioez, baina urrikitzeak ahal zen bezain bortitzak asma-araziak dauztanak. Bizkitartean, orduan nintzan sendimenduari baizik ez behatuz, gezur hori etzen ahalge gaixto baten ondorioa baizik izan, eta haren bitima izan zen nexkari kalte ekhartzeko nahitik biziki urrun, zeruaren aitzinean zin egin dezaket ahalge gorde horrek ekhertzen zautan ordu hartan berean odol guzia bozik emanen nuela haren ondorioaren itzul-arazteko osoki neure gainera. Ordu hartan ene jite herabeak, sendi uste dutan bezala, bihotzeko agiantza guziak menperatu zauztala erranez baizik argi eztezaketan eroaldi bat da.

Egitate zorigaitzeko horren orhoitzapenak eta utzi dauztan urriki ezin agortuek eman dautate gezurrarendako bihotza geroko bizi guziko bizio hortarik begiratu ahal dautan laztura bat. Ikurburu hori (*) hartu nuenean, sendi

nuen horren merezitzeko egina nintzala, eta enuen hortako gai nintzala dudatzen Rosier aphezaren hitzean hasi nintzalarik neure buruaren seriockiago ikertzen.

Orduan arthoskiago miatuz, ontsa ustegabetua izan nintzan egia bezala erranak ukanik orhoitzen nintzan neure asmu bakarreko gauzen andanaz, egiarendako nuen maitasunaz neure baitan urgoi izanez, haren meneko ezartzen nituelarik segurtasuna, abantailak, neure burua, gizakien artean behazunik batere ezagutzen eztaukotan alderdigabetasun batekin.

Gehienik ustegabetu ninduena, gauza hutsezko horietaz orhoituz, urrikirik batere enuela sendi da. Ni falsukeriarendako dutan higunaren ezer berdinik eztutana bihotzean, ni gaztigu garratzenak jasan nezazkeena gezur batekin baztertu behar balire, zein ahuleria bitxiaz nuen gogo alaiez horrela gezur erraiten, beharrik gabe, abantailik gabe, eta zein kontra-egite ezin asmatuaz enuen hortaz den gutieneko urrikirik sendi, ni gezur baten erraiteaz urrikitzeak enauelarik berrogei-ta hamar urtez gelditu gabe lastimatzetik utzi? Ehoiz eniz neure hutsetan gogortu; asmu moralak beti ontsa bidatu nau, konzienziak atxiki dauta lehenbiziko osotasun hura, eta ene abantailetara jaustean andeatu izan baliz ere, nolaz, bere zuzentasun guzia atxikiz gizona bere tirriez bortxaturik bederen duen ahultasunaz desenkusa daitekeelarik, galtzen du bederen hetan bizioak desenkusatzetik ez ukanez orobatekoak diren gauzetan? Ikusi nuen galde horri ihardestetik zetorrela nihaurez gauza hortan ekharri behar nuen jujamenduko zuzentasuna, eta ontsa ikerturik huna argitzera nola heldu nintzan.

Orhoit niz filosofiako liburu batean irakurririk gezur erraitea agertu behar den egia baten gordetzea dela. Mugabide hortarik ongi badator erraitea baitezpadakoa ezten egia baten gordetzea eztela gezur erraitea; baina aldi hortan egiaren ez erraitea ez aski ukanez kontrakoa diona, gezurrean dea, ala ez? Mugabidearen arau, gezurra badagiela ezin daiteke erran. Ezen diru falsa baldin bademo haren aldera zorrik eztuen gizon bati, enganatzen du, dudarik gabe, baina eztu ebasten.

Hemen bi galde badira ikertzeko, baitezpadakoak bata eta bertzea. Lehena, noiz eta nola egia erran behar zakon urkoari, beti eman behar etzakonaz geroz. Bigarrena, ogenik gabe enganatzen ahal den aldiak badirenez. Bigarren galde hunek ihardespren biziki argia baduela ontsa badakit; liburuetan ezetz, hor morala biphilena ezpaitzako egileari jeus gostatzen, gizartean baietz, hemen liburuetako morala ezin egin daitekeen elhasturia batendako hartzen baita. Utz ditzagun beraz

elgarri kontra erraiten duten nagusi horiek, eta bila nihauren erregelekin galde horier zer ihardets.

Egia orotako eta gogoko hori ontasun guzietan baliosena da. Hori gabe gizona itsu da ; arrazoinaren begia da. Hortarik ditu gizonak ikasten bizi moldea, izan behar duenaren izaiten, bere helburu egiazkora indar egiten. Egia berezia eta bakoitzarena ezta beti ontasun bat, batzuetan gaitz bat da, biziki usu gauza ezpaiko bat. Haien jakitea gizon batendako beharrezkoa den gauzak eta haien ezagutzea zorionarendako baitezpadakoa, eztira behar bada ainitz ; baina zenbat ere izan daiten berea duen ontasun bat dira, aurkitzen duen leku orotan galdegiteko dretxotan dena, eta hura ukan gabe utz eztaitekeena ohointza orotan zuzengaitzena hari egin gabe, emaitak emaita gabetzen eztuen ontasun ororen hetarik denaz geroz.

Erakaspenerako ez egintzako balio motarik batere eztuten egiak aldiz, nola litzateke ukan behar den ontasun bat, ontasun ere eztirenez geroz ? eta jabegoa baliagarri izaiten baizik oinarritua eztenaz geroz, baliagarri izaiten ezin datekeen lekuan jabegorik ezin daiteke izan. Alhor bat galdegin daiteke nahiz agorra den lur batean egoitza bederen egin baitaiteke ; baina gauza ezteus, edonorrendako alde orotarik ezpaikoa eta ondoriorik gabea den bat egia ala gezurra izan dadin, horrek eztu nehor hunkitzen. Moraleko gaian ezta baliagarri eztenik jeus gauzetako gaian ezten bezala. Deusetako on eztenetik ezta deus zor izaiten ahal ; gauza batek zor izaiteko, baliagarri behar du edo baliagarri izan ahal. Beraz, zor den egia zuzenbidean sartzen dena da eta haien izaiten guziendako ezpaikoa den gauzetan, eta haien ezagutzea osoki debaldekoa denetan ezartzea egiaren izen sakratu horren profanatzea. Egia balio mota orotarik eta balioa ukan dezakeenetik ere gabe, ezin daiteke beraz zor den gauza bat izan, eta ondorioz erraiten eztuenak edo aldatzen duenak eztu gezurrik erraiten.

Baina badea egia hain beteginki agor horietarik nun orotako osoki debaldekoak diren ? hori eztabadatu behar den bertze gai bat da eta sarri hortara itzuliko nizana. Goazen oraikotz bigarren galdera.

Egia denaren ez erraiten eta gezurra denaren erraiten bi gauza biziki ezberdinak dira, baina ondorio bera eman dezaketena hala ere ; ezen emaiten duten hori segurki gauza bera da ondoriorik eztuten aldi oroz. Egia ezpaikoa den orotan kontrako hutsa ezpaikoa da ere ; hortik baitator horrelako aldietan egiaren kontrakoa erranez enganatzen duena eztela jeus ez erranez enganatzen duena baino zuzengaitzekoago ; ezen egia debaldekotan, hutsak eztu jakingabeak baino

gaitzgorik jeus. Uste ukan dezatan itsaso zolako ondartzia zuria ala gorria, etzata hori zein koloretakoa den ez jakitea baino axola gehiagokoa. Nola ninzatake ne hori kalterik egin gabe zuzengaitz izan, zuzengaitza bertze bati kalte egitean baizik ez datzanaz geroz ?

Baina horrela gaingiroki erabaki gauza horiek ezin lezate oraino egintzako erregela segurrik batere eman, gerta daitezkeen aldi oroz erregela horri zuzenki jarraikitzeo aitzinetik behar diren argitze ainitzik gabe. Ezen egiaren erran beharra ezpada haren baliagarri izaitean baizik oinarritzen, nola niz balio horren juje bilakatuko ? Baten abantailak bertzearen kaltea egiten du ainitzetan, nor beraren abantaila abantzu beti abantail publikoaren kontrakoa da. Nola egin horrelako alditan ? Hor eztenaren abantaila behar dea hari mintzo denaren jendearenari sakrifikatu ? Egia behar dea gorde ala erran, bati abantail emanez bertzearen kaltetan denean ? Erran behar den guzia phizatu behar dea ongi publikoaren phizu bakarrean ala zuzenbide orotara arautuan, eta gauzen arau guzien ezagutzeaz aski segur niza ditutan argi guzien ez erabiltzeko zuzentasunaren erregeler jarraikiz baizik ? Gainera, bertzer zor dena ikertuz, nor berari zor daukona aski ikertu duta, egiari egia delakotz zor dena ? Bertze norbait enganatuz kalterik batere ezpadaukot egiten, hortik heldu dea ez tuala kalterik nihauri egiten, eta nehoiz zuzengaitz ez izaitea aski dea beti ogengabea izaiteko ?

Baina hori argitu gabe galdearen moztea da. Egitekoa etzen beti egiaren erraitea on lizatekeenez erabakitzea, baina hortara beti berdin bortxatua zenez, eta ikertzen nuen mugabideaz, etzela bortxatua emanez, egia baitezpada zor den aldiak zuzengaitzik gabe gorde 'ta gezurrik gabe alda daitekeenetarik bereztea : horrelako aldiak badirela egiazki aurkitu baitut. Egin behar dena, beraz, horien ezagutzeko eta ontsa mugatzeko erregela baten bilatzea da beraz.

Baina erregela hori eta hutsik ezin egin dezakeelako phorogua nundik har ?... Hau bezalako moraleko gai zail guzietan arrazoinaren argiez baino ene konzienziaren mintzoaz deliberatuz beti hobeki aurkitu niz. Ehoiz enau asmu moralak enganatu : hunarano ene bihotzean bere garbitasuna atxikia du hari konfienxia osoaren eman ahal ukaiteko, eta ene eginarako tirrien aitzinean ixilik baldin badago batzuetan, orhoitzapenetan burupea hartzen du beti. Hor dut neure burua jujatzen bizi hunen ondotik juje goienak jujatuko nauen bezenbat biphiltasunekin behar bada.

Gizonen hitzez jujatzea badematzaten ondorioen araura, ainitzetan haien gaizki estimatzea da. Ondorio horiek ez beti sendigarriak ez eta ezagutzeko

errexak izaiteren gainera, mugarik gabe aldatzen dira hitz horiek hetan atxiki izanak diren gertaldiak bezala. Baina atxikitzen dituenaren xedeak ditu bakarrik estima-arazten eta du haien gaizkia edo ongia mugatzen. Egia eztenaren erraitea ezta gezurra enganatzeko xedetik baizik, eta enganatzeko xedeak berak, beti kalte egitekoari lotua izaitetik urrun, helburu osoki kontrakoa du batzuetan. Baina gezur bati ogengabea izaiteko etzako kalte egiteko xederik ez ukaitea aski, behar da gainera segur izan mintzo zeen jendendako hartara egozten diren hutsa edozein moldez kaltegarria ezin izan daitekeela ez eta ere nehorendako. Segurtasun hori ukan daitekeela bekan da eta neke ; hortako da gezur bat ogengabea izan daitekeela ere bekan eta neke. Nor bere abantailetan gezur erraitea baira da, bertze norbaiten abantailetan erraitea enganatzea, norbaiti kalte egiteko erraitea gaitzerraitea : gezurretan gaixtoena. Gezur erraitea nor berari edo bertze norbaiti kalterik egin gabe ezta gezur erraitea, iduripena da.

Gaia moralekoa duten iduripenak apologoak edo alegiak deitzen dira, eta duten helburua ezta edo ezta izan behar molde sendigarri eta gozagarri batzuetan gauza baliagarri batzuen inguratzea baizik ; aldi horietan indar guti egiten da egiaren jantzia baizik ezten gezur hutsaren gordetzeko, eta alegia alegiatzat emaiten duenak ezta edozein moldez gezurrik erraiten.

Bertze iduripen batzu badira osoki hutsalak, hala nola ipuin eta elhaberri gehienak, hauek, egiazko erakaspenik batere eduki gabe, jostatzeaz bertze helbururik ezpaitute. Moraleko balio mota orotarik murriztuak, ezin estima daitezke asmatzen dituenaren xedetik baizik, eta emaiten dituelarik zinezko egia batzu bezala baieztatuz, ezin daiteke uka egiazko gezurrak direla. Bizkitartean nor da ehoiz gezur horietaz biziki arranguratu, eta nork du egiten dituztener ehoiz erasia handirik egin ? Moraleko gai zerbait baldin bada, behazenez, *Le Temple de Gnide* delakoan (**), gai hori atseginezko xehetasun eta iduri lizunez ontsa itzalia eta andeatua da. Lañotasunezko azal batez horren estaltzeko egileak zer egin du ? Bere lana alegia eskuizkirio greka baten itzulpena izan baliz bezala eman, eta ezkuizkirio horren aurkitzeko ixtorioa egin du irakurtzaleari ziona egia zela sinets-arazteko molde egokienean. Ezpada hori zinez gezur bat, derratatela bada gezur erraitea zer den ! Nork du bizkitartean egileari gezur hortako gaizki eginaz erasia egitea gogoan ukan eta egileari enganatzale erraitea?

Hori jostagailu bat baizik eztela debaldetan erranen da, eta egileak eztuela ezer ehoi sinets-arazi nahi ukan dion batean, ezer eztuela zinez nehoi sinets-arazi, eta publikoak eztuela delako lan greka horren itzultzale baizik etzela

ziona egiazki egilea zela dudan eman. Ihardetsiko dut horrelako jostagailu helbururik batere gabeko bat etzela haurkeria ontsa zozo bat baizik izanen, gezurtari batek eztuela gutiago gezur erraiten sinets-arazi gabe ere gezurrez mintzo denean, jende argitutik berezi behar dela esku-izkirioraren ixtorioa, egile larri batek gogo onezko itxura batekin errana, zinez errespeturekin hartu duen irakurle laño eta sineskoi andanatik, beldurrik gabe edan baitute, molde zaharreko kopa batean, oraiko baso batean eskainia izan balizaie hartaz bederen mesfidatuko ziren pozoina.

Berexkuntza horiek liburuetan izan daiten ala ez, eztira hala ere bere baitan gogo onezkoa den gizon ororen bihotzean gutiago eginak izaiten, konzienziak hartaz erasia lezakeen ezer onhartu nahi eztuenean. Ezen egia gezurrezko baten nork bere abantailetan erraitea ezta norbaiten kaltetan erraiten baliz baino gutiago gezur erraitea, nahiz gezurra gutiago den gaixtoa. Ukan behar eztueneri abantail emaita ordenuaren eta zuzenbidearen uhertzea da ; nork bere buruaren edo bertze norbaiten gain hartarik laudorio edo gaizki, ogendun izaite edo xuritze jalgi daitekeen egintza baten gezurrez emaita, zuzengaitz den zerbaiten egitea da. Horra muga zuzena : baina, egiaren kontrakoa den orok eztuelarik edozein molde zuzenbidea hunkitzen, ezta iduripenezkoa baizik, eta aithor dut iduripen hutsaz bere burua gezur batez bezala erasiatzen duen batek konzienzia nik baino beratzagoa duela.

Baliagarriak deritzeeten gezurrak egiazko gezurrak dira, ala bertze norbaiten ala nor beraren abantailetan burupe ukaitea eztelakotz haren kaltetan ukaitea baino zuzengaitzago. Egiaren kontra laudatzen edo erasiatzen duen orok gezur erraiten du, egiazko norbaitez ari den orduko. Asmuzko izaite batez ari baldin bada hartaz nahi den guzia baderrake gezurrik egin gabe, ezpadu bederen asmatzen dituen egintzen moralezko zuzentasunaz jujatzen eta gaizki jujatzen ; ezen orduan ezpadu gauzan gezur erraiten, egia moralaren kontra hala erraiten du, gauzetakoa baino ehun aldiz errespetagarriagoa baita.

Munduan egiatiak deritzoten jende horietarik ikusi dut. Haien egiatasun guzia solasaldi auher batzuetan ahitzen da, zintzoki leku, aro, jende izendatzen, iduripenezko ezertara menturatzea onhartu gabe, gertaldi baten inguruan hedatzera, jeusen ez handiegitzera. Bere abantaila hunkitzen eztauen orotako bere erranetan egia ezin hautsienekoak ; baina berekin ikusteko duen zerbaitez ari izan behar dea, hurbildik hunkitzen dituen egintza baten erraiteaz : horra margo guziak erabiliak gauzen erakusteko beretako abantalgarriena duten argi-pean, eta gezurra baliagarri bazaie eta hori erran gabe baldin badaude, trebeki

laguntzen dute eta haien gain eman gabe onhar dadin moldean egiten. Haien zuhurtziak horrela nahi du : egiari goraintzi !

Egiatia diotan gizonak osoki alderantziz badagi. Gauza osoki balio gabekoetan bertzeak orduan hain azkarki errespetatzen duen egiak biziki guti hunkitzen du, eta ezta biziki arranguratuko lagundia baten jostatzeaz egiazkoak eztiren gauzekin hauek eztutelarik zuzengazko jujamendurik batere emaiten, hil ala bizi, ehoren aldera ez kontra. Baina norbaitendako zuzenbidearen eta egiaren kontra doan abantaila ala kalte, estimu ala gutieste, laudorio ala gaizki bademan hitzaldi oro, gezur bat da ehoiz haren bihotzera, ez ahora, ez lumaren azpira hurbilduko eztena. *Egiati* da zinez, bere abantailaren kontra ere nahiz aski guti duen hala nahi izan solasaldi debaldekoetan : *egiati* da eztuelakotz nehoren enganatzea bilatzen, salatzen duen egiari ohoratzen duenari bezain atxikia delakotz, eta nehoiz ezpaitu burupe ukan nahi ez bere abantaileko ez etsaiari kalte egiteko. Ene gizon *egiati* eta bertzearen artean den ezberdintasuna hau da beraz : mundutarra baitezpada atxikia dela jeus gostatzen etzakon egiari, eta eneak eztuela harendako nork bere burua suntsitzera utz lezakeenean baino hobeki ehoiz zerbitzatzen.

Baina, dute erranen, nola batera axolagabe hori neure burua hartaz goستن dutan egiaren maitasun gartsu horrekin ? Maitasun hori gezurrezkoa da beraz hoinbertze nahasteka jasaiten duenaz geroz ? Ez, huts-hutsa da eta zinezkoa : baina ezta zuzenbidearen maitasunak bademan ondorioa baizik eta nehoiz eztu gezurrezkoa izan nahi usu alegietakoa izanik ere. Zuzenbide 'ta egia haren gogoan erran-nahi bereko hitz bi dira bata bertzearendako berdin hartzen dituenak. Haren bihotzak adoratzen duen egia saindua eztatza gauza ezpaiko eta izen hutsaletan, baina bakoitzari zor zakonaren zuzenki emaiten egiazki harenak diren gauzetan, edo gogamen onetan edo gaitzetan, ohorez edo gaizkiz, laudorioz eta erasiaz sarizatzean. Ezta gezurrez ari bertzearen aldera, duen zuzentasunak hori debekatzen baitauko eta ezpaitu nehoi kalterik egin nahi zuzengazki, ez eta bere aldera, konzienziak debekatzen baitauko eta ezpailakike berea eztuenaz jabetzen. Bere baitako estimuaz da oroz gaineratik bekaizti ; hori da gutienik gabe egon daitekeen ongia, eta egiazko galtze bat sendi lezake bertzerena irabazten balu ongi horren kaltetan. Gezur erranen du beraz batzuetan gauza ezpaikoetan urrikirik gabe 'ta gezurra diola uste ukan gabe, nehoiz ez bertzearen edo bere damuko edo abantaileko. Ixtorioko egiari doakon orotan, gizonen egin-moldeaz ari den orotan, zuzenbideaz, gizarteko harremanez, baliagarri diren argiez, hutsetik zainduko ditu bai bere burua bai bertzeak haren menean den guzian. Hortik hara den gezur oro,

haren ustez, ezta gezur. *Le Temple de Gnide* lan baligarria baldin bada, esku-izkirio grekaren ixtorioa ezta iduripen osoki ogengabe bat baizik ; gezur osoki zehazkarri bat da liburua lanjerosa baldin bada.

Horiek izan ziren gezurraz eta egiaz ene konzienziako erregelak. Bihotza ohartu gabean jarraikitzen zizeen, arrazoinak onhartuak zituen baino lehen, eta moralezko asmu bakarrak zituen egintzaratu. Marion gaixoa haren bitima izan zen gezur gaixtoak (***) urrikalmendu ezin erranak utzi dauzta, gainerako bizi guziko zaindu bainute ez bakarrik mota hortako gezur orotarik, baina edozein moldez bertze norbaiten abantaila eta aipamena hunki zezazketen guzietarik ere. Horrela gezurretik begiratzea orotara hedatuz abantailaren eta kaltearen zuzen-zuzena estimatzetik baztertu niz, eta gezur kaltegarriaren eta gezur abantailgarriaren arteko muga zuzenen ezartzetik. ; bata eta bertzea berdin ogendun ikusiz, biak debekatu dauzkot neure buruari.

Gauza huntan gainerateko guzian bezala, ene jiteak eragin handia ukan du ene moraleko eginbidetan, edo izaitekotz ene ohiduretan ; guti bainiz erregelen araura ari izan edo gauza orotan ene jitearen oldez bertze erregeler guti bainee jarraiki. Aitzinetik gogatu gezurrik ehoiz etzata gogora hurbildu, ehoiz eztut neure abantailetan gezurrik erran ; baina usu gezur erran dut ahalgez, gauza ezpaikoetan edo ni baizik hunkitzen etzutenetan eragozpenetik atheratzeko, solasaldi zenbaitetan mintzatu behar nuenean ene gogoeten baratzak eta ene solasaren agorrek zerbaiten erraiteko iduripener hel egitera bortxatzen nindutenetan. Baitezpada mintzatu behar denean eta egia jostagarririk etzatanean gogora aski goiz jiten, alegietan ari niz muttu ez egoiteko ; baina alegia horien asmatzean, behatzen dut, ahal bezainbat, gezurrak izan eztaiten, erran nahi da eztezaten ez zuzenbideari ez egiari kalte egin, eta mundu guziarendako bezala enetako iduripen ezpaiko batzu izan daiten. Banuke holakoetan egintzetako egiaren orde moraleko egia baten ezartzeko nahikaria, erran nahi da giza-bihotzaren sendimendu jitezkoen ontsa erakustekoa, eta hortik beti erakaspén baliagarri zenbaiten jalgi-araztekoa, hitz batez hetaz moraleko ipuin, apologo batzuen egitea ; baina behar lizateke nik dutan baino gogo bizitasun eta elhean errextasun gehiago solasaldiko hitz-mitzeria erakaspének baliagarri nola egin jakiteko. Haren urratsak, ene gogoetena baino lasterragoa baita, abantzu beti gogoetatu baino lehen mintzatzera bortxatuz, usu asma-arazi dauzta ahotik jalgitzen zizaztan arau arrazoinak onhartzen eta bihotzak aithortzen etzaztan arinkeria eta zozokeria batzu, baina nihauren jujamendua aitzinduz hunek ezpaitzitzen gehiago zuzentzen ahal.

Jitearen lehenbiziko olde ezin atxiki hortaz da oraino gertatzen ustegabeko aldi lehiatu batzuetan, ahalgeak eta herabeak gezur batzu jalgi-arazten dauztatela hortan ene nahia batere barne izan gabe, baina zerbait moldez aitzinatzen baitute ordu berean ihardetsi ukan beharraz. Marion gaixoaren orhoitzapen barnatuak traba dezazke beti bertzearendako kaltegarri izan laitezkeen gezurrak, baina ez egitekoa nitaz bakarrik denean eragozpenetik atheratzeko balia dezazketanak, hori ezpadoa ere ene konzienziaren eta erregelen kontra bertzearen zoria hunki dezaketena baino gutiago.

Zerua hartzen dut lekuko berehala gero desenkusutzen nauen gezurra ekhen ahal baneza eta zamatzen nauen egia erran neure buruari laido berri bat egin gabe, bihotz osoaz banagikeela ; baina neure buruaren horrela hutsean hatzemaiteko ahalgeak banatxika oraino, eta zin-zinez ene hutsaz urriki dut, zuzentzera menturatu gabe alta. Behazun batek hobeki argituko du zer erran nahi dutan eta enizala gezurrez ari ez abantail-nahiz ez neure amodioz, baina bakarrik eragozpenez eta ahalge gaixtoz, biziki ontsa jakinez ere ainitzetan gezur hori horrela ezagutua dela eta ezin zatala jeusetako baliagarri izan.

Duela zenbait dembora Foulquier Jaunak ereman-arazi ninduen ohi dutanaren kontra emaztearekin bazkariz joaitera, « pika-nika » moduz, harekin eta Benoit bere adixkidearekin Vacassin anderearen etxera, ostalera hura bere bi alabekin gurekin bazkaldu baitzen ere. Bazkari erditan, alaba zaharrena, ezkondua baita eta haur beharretan, hasi zen bapatez eni galdutuz eta begiak nitan itzatzuz hea haurrik ukana nuenez. Ihardetsi nuen, ñiñiketarano gorrituz, zorion hori enuela ukana. Irriño maltzur bat egin zuen kompainiari behatuz : etzen hori guzia biziki ilun, enetako ere.

Argi da lehenik ihardespen hori eztela egin nahiko nuena, burupe ukaiteko xedea ukan banu ere ; ezen galdea egiten zautanari ikusten naukon gogoan, ontsa segur nintzan etzaukola ene ezak gauza hortan aburua batere aldatzen. Ez horren beha zauden, sustatzen zen ere eni gezur erran-arazia ukaiteko atseginaz gozatzekotan. Enintzan horren ez senditzeko aski zozotua. Bi minuta berantago, egin behar ukana nuen ihardespena jin zizatan bere baitarik. *Horra galde zuhurtzia gutiko bat andere gazte baten ganik mutil zahartua den gizon bati.* Horrela mintzatzuz, gezurrik gabe, edozein aithormenez gorritu behar ukan gabe, irri egileak neure aldera ezartzen nituen, eta hari ikastaldi xipi bat egiten berez ene galdekatzeko apur bat gutiago ausart bilakatuko zuena. Enuen horrelakorik ezer egin, ez erran behar nuena erran, behar etzena erran nuen eta ezertako balia etzaikiditana. Segur da beraz

ihardestea etzautatela ez adimenduak ez nahiak eman-arazi eta ene eragozpenaren ondorio hutsa izan zela. Lehenago enuen horrelako eragozpenik eta ene hutsen aithormena ahalge baino zintzotasun gehiagorekin egiten nuen, ezpainuen dudatzen garbitzen zuena ikusten zela eta neure baitan sendi nuena ; baina maltzurreriaren ikusteak lastimatzen nau eta nahasten ; zorigaitzekoago bilakatzean herabeago bilakatu niz eta eztut ehoiz herabez bazik gezurrik erran.

Gezurrendako dutan jitezko hastioa ehoiz eztut ene *Aithormen*-en izkiriartzean bezain ontsa senditu, hor baitziren tentamenduak usu eta azkar izanen, neure baitako ixuriak alde hortara ereman baldin banindu. Baina ixilean jeusen uztetik urrun, neure kontra zatekeen jeusen gordetzetik, argitzeko neke zatan gogo molde batez eta ihakin orrendako dutan urruntasunetik badatorrenaz behar bada, sendi nintzan izaitekotz bertze aldera gezur erraitera ixuriagoa, neure burua lardekiegi salatuz, desenkusatur barkatzera ekharria baino. Bai hala diot eta hala dut sendi arimako goititze burgoi batekin, idazki hortan ereman ditut fede ona, egiatasuna, zintzotasuna, nehoiz bertze edozein gizonek egin duen bezain urrun, eta ere, uste dut bederen, urrunago ; ongiak gaizkia gainditzen zuela sendituz guziaren erraita neure abantailetan zen, eta guzia erran dut.

Ehoiz eztut gutiago erran, batzuetan ba gehiago, ez gertatuetan, baina gertaldietan, eta gezur mota hori nahiaren egintza baino gehiago asmameneko erotasunarena izan zen. Huts egiten dut ere gezurra izendatuz, ezen gertatuaren gainerako horietarik bat ezpaitzen hala izan. *Aithormenak* ja zaharturik izkiriartzen nituen, eta beti gaingiroki hunkiak nituen biziko atsegin hutsal eta ene bihotzak hutsak zirela ontsa senditua zuenez higundua. Orhoituz izkiriartzen nituen ; orhoitze horrek usu huts egiten zautan edo etzautan orhoitzapen eskasik baizik emaiten, eta hutsuneak betetzen nituen orhoitzapen horien gainera asmatzen nituen xehetasun batzuez, baina haien kontrakoak ehoiz etzirenez. Ene biziko ephe zorionekoetan hedatzea maite nuen, eta batzuetan edertzen nituen urriki samur batzuek ekhartzen zautaten aphaindurez. Ahatziak nituen gauzak izan behar ukanak zutela iduritzen zizaztan bezala erraiten nituen, izanak ziren bezala behar bada, nehoiz izanak zirela orhoitzen nintzan kontrako moldean. Egari banemazkon batzuetan goxatasun arrotz batzu, baina nehoiz eztut egiaren orde ene bizioen estaltzeko, edo bertute batzuen zuzengabe hartzeko gezurrik ezarri.

Eta batzuetan, gogoari eman gabe, nahigabeko olde batez alderdi moldegaitza gorde baldin badut neure burua orrazez erakutsiz, ixilkeria horiek ordainduak izan dira bertze bitxiago batzuez, ainitzetan ongia gorde-arazi baitautate

gaizkia baino arthoskiago. Hau ene jitearen berezitasun bat da gizoner hunen ez sinestea biziki barkakizun baitzaie, baina, sinets-ezina izanik ere gutiago egia eztena : usu gaitza erran dut bere zozotasun osoan, ongia maitagarririk ukan zuen guzian bekan, eta ainitzetan osoki ixildu dut gehiegi ohoratzen ninduelakotz, eta *Aithormenak* eginez neure laudorioa egina ukanen nuela iduriko bainuen. Gazte urteak erakutsi ditut ene bihotza hetaz dohatua zen zorionezko gaitasunekin espanturik gabe eta ere sobera argian ezartzen zituen gauzak ekhenduz. Hemen haurzaroko biga gogoratzen zazta, biak orhoitera ontsa jin baitzazta izkiriatzean, baina biak baztertu baititut orai aipatu dutan arrazoin bakarraren gatik.

Abantzu igande oroz banindoan Bazko egunaren iragaitera Fazy Jaunaren etxera, ene izebetarik batekin ezkondua baitzen eta baitzuen han oihal indiana egiteko landegi bat. Egun batez oihal hedategian nintzan lisa-brentsako gambaran hango burdin-urtuzko biltzekoer beha : hauen dirdirak ikuspena gozatzen zautan, han erhien ezartzeko gurak harturik banerabiltzan atseginekin biribilaren leunean, Fazy gazteak errotara joanik itzuli laurden bat eman zaukonean hain trebeki nun ezpaitzen hartua izan ene bi erhi luzenen puntta baizik ; baina mutturretik haien lehertzeko aski izan zen eta bi azkazalen han uzteko. Oihu samin bat egin nuen, Fazy-k berehala errota baztertzen du ; baina etziren azkazalak biribilean gutiago gelditu eta odolak bazarion ene erhietarik. Fazy-k, lastimatua, oihu egiten du, errotatik atheratzen da, besarkatzen nau, eta oihuak ezti nitzan othoizten, galdua zela gaineratuz. Neure oinaze minean, harenak hunki ninduen, ixildu nintzan eta arrainen putzura joan ginen han eskuen ikuzten lagundu baininduen eta goroldioarekin odolaren geldi-arazten. Nigarrekin othoi-othoiztu ninduen sala enezan ; hitzeman naukon eta hain ontsa atxiki, nun hogeit urte berantago nehork ezpaitzakien zer gertaldietan nituen erhi bi orbainduak ; beti hala gelditu baitira. Ohaturik gelditu nintzan hirur astez goiti, eta eskua baliatu ahal gabe bi ilabetez, beti erranez harri handi batek erortzean erhiak lehertuak zauztala.

Gogo-handiko gezurra ! noiz ote da egia

*Hain eder nun hiri hautesten ahal zaikan ? (****)*

Gertaldiaz ixtripu hori ontsa sendikor izan zizatan alta, ezen burgesia hetan ibil-arazten zen manubretako dembora zen, eta egina ginuen bertze ene adineko hirur hurrekilako lerro bat haiekin behar bainuen soldado-jantzietan

ene auzoko kompainiarekin ibili. Ukan nuen kompainiako atabalaren entzuteko bihotz-mina ene hirur lagunekin leiho azpian iragaiten, ni ohean nindagolarik.

Bertze ixtorioa berdin-berdina da, baina adin aitzinagotu batean.

Mailu jokoan ari nintzan Palazio-Lauan Pleince izeneko ene lagun batekin. Jokoan kalapitan hasi ginen, joka, eta buruan mailu ukaldi bat eman zautan hain zuzen joa nun esku azkarrago batez buru-munak jauz-araziko baitzautan. Erotzen niz ordu berean. Bizian enuen ikusi mutiko gaizo hura hartu zuen nahasmena ene iletarik odolak bazariola ikusiz. Hila ninduela uste ukan zuen. Jiten zata lasterrez, besarkatzen nau, hertsiki tinkatzen nigarretan hasiz eta oihu samin batzu eginez. Nik ere indar guziez besarkatu nuen hura bezala nigarretan, eztitasun zenbait gabekoa etzen sendimen nahasi batean. Azkenean eman zen beti banarion odolaren geldi-arazteari, eta, ikusiz gure bi mokanesak aski ezin zatezkeela, bere amaren etxera ereman ninduen baratze xipi bat baitzuen handik hurbil. Andere on hura ni izanara hortan ikusiz aldixartzer zen. Baina aski indarren atxikitzen jakin zuen ene lotzeko, eta zauria eztiki ontsa ureztatu ondoan, aguardientean mariatu lirio loreak ezarri zautan, hauteko zauri sendagailua eta gure herrian biziki erabilia. Haren nigarrak eta semearenak hainbertzetarano bihotzean sartu zizaztan nun luzaz ama bat bezala ikusi bainuen eta semea anaia bat bezala, bat eta bertzea ikuspenetik galdurik, apurka apurka ahatzi nitueno.

Ixtripu hortaz bertzeaz egin nuen segeretu bera atxiki nuen, eta molde bereko bertze ehun gertatu zazta bizian, ezpainiz hetaz mintzatzera entseatu ere ene *Aithormen*-etan, hain guti nuen hor ene jitean sendi nuen ongiari balioaren emaiteko antzea bilatzen. Ez, ezagutzen nuen egiaren kontra mintzatu nizanean, ezta nehoiz gauza ezpaiekoetan baizik izan, eta gehiago mintzatzeko eragozpenez edo izkiriatzeko atseginean, neure abantaileko edozein arrazoinez eta norbaiti abantail edo kalte ekartzeko baino. Eta ene *Aithormen*-ak alderdikierarik gabe irakurriko dituen edonork, ehoiz hori gerta badadi, sendituko du hor egiten ditutan aithorrak ahalgegarriago direla, egiteko nekeago, gaitz handiago baina erraiteko gutiago ahalgegarri batekoak baino, eta egin eztutalakotz nizala erran gabe egon.

Gogamen horietarik orotarik jarraikitzen da hartua dutan egiatasunezko xedeak oinarria gauzen izaitean baino gehiago zintzotasunezko eta zuzentasunezko sendimenduetan duela, eta egintzetan ene konzienziako bide moraler jarraiki neela egiaren eta gezurraren ideia hutser baino gehiago. Usu alegia ainitz erran dut, baina gezurra biziki bekan. Erregela horier jarraikiz, nihauri jaukitzeko aldi ainitz eman dut bertzer, baina eztut behargaberik nehoi egin,

eztaukot ere neure buruari behar nuen baino abantail gehiago eman. Hortik da bakar-bakarrik, badidurit, egia bertute bat izaiten. Bertze eretz orotako etzaiku metafisikako izaite bat baizik, ongirik ez gaizkirik emaiten eztena.

Eztut alta bihotza berexete horietaz askietsia sendi osoki ogengabea nizala uste ukaiteko. Bertzer zor nauena hoin arthoski phizatuz, aski ikertu duta nihauri zor nuena? Urkoarendako zuzen izan behar baldin bada, nor berarendako zintzo izan beharra gizon denak bere gaitasunari zor daukon gizamena da. Ene solasaren agorrek iduripen ogengabe batzuez ordaintzera bortxatzen ninduenean, ogendun nintzan, behar ezteletakoz, norbaiten jostatzeko, bere burua aphaudu, eta, izkiriatzeko atseginak eremanik, egiazko gauzer aphaindura asmatuak gaineratzen nezteenean, ogendunago nintzan oraino, alegia batzuez egiaren aphaintzea zinez haren bertzelakatzea baita.

Baina oraino gutiago desenkusagarri egiten nauena hautatua nuen ikurra da. Ikur horrek bortxatzen ninduen edozein bertze gizon baino gehiago egiaren aithormen hertsia batera, eta hari orotan ene abantailaren eta gutzien sakrifikatzea etzen aski, egin behar nauzkon ere ahulezia eta jite herabea. Beti, aldi oroz egiati izaiteko kuraia eta indarra behar ziren, eta nehoiz etzadin iduripen ez alegiarik jalgi egiari bereziki emanak ziren ene ahotik edo lumatik. Horra zer behar naukon neure buruari erran ikur gora horren hartzean, eta ekhartzeko ausartzia nueno errepikatu. Ehoiz etzituen falsukeriak eman-arazi ene gezurrak, ahultasunetik jin dira guziak, baina horrek biziki gaizki nau desenkusetzen. Arima ahul batekin doi-doia daiteke biziotik geriza, baina bertute handi batzuen aithortzera ausartzea burgoi da eta lanjeros.

Horra gogamen batzu behin ere ukanen enituenak Rosier aphezak ezpalazta jin-arazi. Ontsa berant dateke horietaz baliatzeko; baina ez bederen ene hutsaren zuzentzeko eta erregelaren borondatearen ezartzeko, hori baita hemendik goiti ene menean den guzia. Beraz huntan eta horrelako gauza orotan Zolon-en erregela adin guzietako on da, eta nehoiz ezta berantegi, nor bere etsaien ganik ere, zuhur, egiati, laño izaiteko, eta bere buruaz gutiago uste ukaiteko.

(*) *Vitam impendere vero*: euskaraz «Bizia egiari eman».
(Itzultzailearen oharra)

(**) *Le Temple de Gnide*, Montesquieu-ren maitasunezko elhaberri arin bat (1725). (Itzultzailearen oharra)

(***) Ikus ibilaldi hunen hastapenean Rousseau-k aipatzen duen haurzaroko gezurra. (Itzultzailearen oharra)

(****) Tasso italiarraren *Jerusalen liberatua*-tik hartua den aipamena:
Magnanima menzôgna ! or quando è il vero
Si bello che si possa a te preporre ? (Itzultzailearen oharra)

IBILALDI BORZKARRENA

Egon nizan bizilekuetarik (eta xoragarriak ezagutu ditut), batek eztauta Bienne-ko aintziraren erdian Jondoni-Petriko irlak baino zorion gehiago eman eta batek ez urriki hain samurrak utzi. Neufchâtel-en Munhoko Irla deritzoten irla ttipi hori ontsa guti ezaguna da, Suizan ere. Eztu bidari batek, dakitanaz, aipatzen. Biziki goxagarria da bizkitartean eta bereziki jarria baztertzea maite duen gizon baten zorioneko ; nahiz bakarra nizan behar bada bere zoriak hortaz lege bat egin daukone, eztezaketsinets hoin gustu naturala duen bakarra nizala, orai arteo bertze nehoren baitan ezpadut ere aurkitu.

Bienne-ko aintziraren erripak Genebakoarenak baino basago eta erromantikoago dira, harrokek eta oihaiek ura hurbilagoetik mugatzen baitute ; baina ez tira gutiago xoragarri. Alhor eta ardantze landu gutiago baldin bada, hiri eta etxe gutiago, bada jitezko landaretze gehiago, phentze gehiago, xara atherbe itzaltsu gehiago, ezberdintasunak usuago dira eta makurguneak elgarretarik hurbilago. Ezpaita bazter zoriondun horietan errepide handi karrosendako errexik, lekua bidariez guti ikusia da ; baina zein ohargarria den naturako gozatasunez nahitara xoratzea eta bere baitara biltzea maite dituten behatzale bakartuendako, arranoen garrasiez, xori zenbaiten kantu artekatuez, eta menditik erortzen diren uhaitzen orroaz bertze harrabots batek ere uhertzen eztuen ixilean. Ur eremu eder moldez abantzu ingurudun horrek badaduzka erdi-erdian bi irla xipi, bat jendeztatua eta landua, itzulian lekua erdi batekoa nunbait han, bertzea ttipia, hutsa eta larre utzia, eta barreatua izanen dena azkenean handik ethengabe egiten diren lur garraiatzez uhainek eta ekaitzek handiari egiten dauzkoten kalten antolatzeko. Horrela da beti ahularen mamia indardunaren abantailetan erabilia.

Irlan ezta etxe bakar bat baizik baina handia, gozagarria eta errexa, Berne-ko ospitalearena dena irla bezala, han bizi baita zaintzale bat bere familiarekin eta sehiekin. Han atxikitzen ditu basakurte bat, hegaztindegia bat, eta arrainendako urtegiak.. Irla bere xipian hain da ezberdina lurraldetan eta itxuretan, nun molde orotako lekuak eskaintzen baititu eta lur-lan mota oro jasaiten. Aurkitzen dira elgeak, ardantzeak, oihaiek, sagardoiek, alhagia gizen batzu xarez itzalduak eta mota orotako zuhaxkak itzulian uren hegiak hezea atxikitzen baitaue ; zabalza gora batek bi zuhatz lerroz landaturik hartzen du irlaren bazterra luzean, eta zabalza

horren erdian etxola pollit bat eraiki da hara urbazter auzoetako bizilierrak biltzen baitira eta mahats-biltzetako igandetan jantzara ethortzen.

Irla hortan nintzan gerizatu Motiers-ko harrikatzearen ondotik (*). Egoitza hain xoragarria aurkitu nuen, han neraman bizia ene omoreari hain ontsa zoakona nun, ene egunen han bururatzera deliberaturik, ezpainuen xede horren betetzera utz enezaten arranguraz bertzerik, ezpaitzoan Angeleterrara ene ereman-araztekoarekin, hunen lehen ondorioak ordukotz sendi nituelarik. Aitzinetik khexu ezartzen ninduten sendimenduen erdian, nahiko nuen ihes-leku hortaz betiereko presondegi bat egin zezataten, han bizi guziko hetsia utz nindezaten, eta handik atheratzeko ahal guzia eta itxaropen guzia ekhenduz, leihorrarekilako harreman mota oro debekatua izan zizatan hala nola nun munduan egiten zen guziaren ez jakinean, bazela ere ahatzia ukan nezan eta han ene izaitea ere ahatzia izan zadin.

Eztauztate irla hortan bi ilabetez biziki gehiagoren iragaitea baizik utzi, baina bi urte eremanen nituen, bi mende, eta eternitate osoa ephe batez ere aspertu gabe, enuelarik alta, ene bizi-lagunarekin, zaintzaleaz, haren emazteaz et sehiez bertze lagungorik, oro egia erran jende biziki onak baitziren, jeus gehiago, baina bereziki behar nuena hori zen. Bi ilabete horiek biziko dembora zoriondunendako daduzkat eta hain zoriondunak nun izaite guziko aski izanen baitzizaztan ariman ephe bakar batez ere bertze izanara baten gutiziarik sortzera utzi gabe.

Zein zen beraz zorion hura eta hartaz gozatzea zertan? Asmatzera utz nezake mende huntako gizon guzier han neraman biziaren erakustez. Gozamen horietan lehena eta nagusia *far niente* balios hura izan zen, bere eztitasun osoan jastatu nahi ukan bainuen, eta egoitean egin nuen guzia etzen izan astiz bizitzera emana den gizon baten egiteko atsegingarria eta baitezpadakoa baizik.

Neure baitarik han estekatua nintzan egoitza bakartu hartan uzteaz bertzerik nahi ukanen etzutelako esperanzak, ezpanindaitekeen handik jalgi laguntzarik gabe 'ta ontsa ikusia izan gabe, enuelarik han ez solasik ez harremanik inguratzen ninduten jenden bidez baizik; esperanza horrek, diot, bazematan han egunen bururatzekoa iraganak nituen baino lañokiago, eta osoki gostura akomeatzeko astia ukanen nuelako gogoak egin zuen antolamendurik batere ez egitetik hasi nintzala. Horrara bapatez eremana bakarrik eta hasik, ekharr-arazi nituen bat bertzearen ondotik ene gelaria, ene liburuak eta hornidura ttipia, ukan bainuen hetarik jeusen ez atheratzeko atsegina, ene khutxak eta malak jinak ziren bezala utziz, eta han egunen bururatzeko xedea nuen egoitzan biziz biharamunean

handik abiatu beharko nuen ostatu batean bezala. Gauza oro zoazin moldean, hain ontsa zoazin nun hobeki antolatzea hetan zerbaiten andeatzea baitzen. Ene atsegin handienetarik bat oroz gaineratik beti liburuen uztea khutxetan hetsirik eta izkiriatzekorik ez ukaitea zen. Zorigaitzeko eskutitz batzuek ihardesteko lumaren hartzera bortxatzen nindutenean zaintzalearen izkiriatzekoa hartzen nuen murmurikatuz, eta ihardestera lehiatzen nintzan berriz ez hartu behar ukaiteko uste debaldekoan. Paperreria trixte eta liburueria horren guziaren orde, gamera betetzen nuen lorez eta belarrez ; orduan landare-jakintzarako lehenbiziko su hartan nintzan, Ivernois-ko medikuak eman-arazia baitzautan hortako laster tirria bilakatu zen gustu bat. Laneko egitekorik gehiago ez nahiz jostatzeko bat behar nuen, laket izanen zizatana eta auher batek hartzea maite duen neke hura baizik emanen etzautana. *Flora petrinsularis* baten egitera abiatu nintzan eta irlako landare guzien erakustera bakar bat ahatzi gabe, ene gainerateko egunetan lanean hartua izaiteko behar zen xehetasunarekin. Badiote Aleman batek liburu bat egin duela zitroinaren azalaz, bat eginen nuen soroetako belar bakoitzaz, oihanetako goroldioaz, harrokak estaltzen dituen aukaz ; belar lits bakar bat enuen azkenean utzi nahi, landare izpika bat hedatuki erakutsia elizatekeena. Langai eder horren ondorioz, orok elgarrekin egiten ginuen askaritik landa, banindoan behatzeko bat eskuan eta ene *Systema naturæ* besapean irlako gunen baten ikertzera, hortako laur kantoineko ttipi batzuetan banakatua bainuen urtaro guzietatik bat bertzearen ondotik hetan ibiltzekotan. Jeus ezta han sendi nituen xoramenak, gogo-erautziak baino bereziagorik, landaretzearen egituraz eta moldatzeaz egiten nuen oharpen bakoitzan, eta fruitu emaitzako sesukien jokoaz, moldamen hori osoki berria baitzen orduan enetako. Jatorrizko izanaren berexkuntzak, ezpanuen aitzinean hortaz den gutieneko ideiarik, xoratzen ninduen landare mota arruntenetan ikusiz, arraroago batzu eskainiak izan zizaztan bitartean. Belar beltzaren bi zukun luzen xardekatzeak, asunaren eta xarrangilarenen erresortak, higunikaren fruituaren eta ezpelaren kuxkuaren jauzteak, lehen aldikotz ikusten nituen mila joko ttipiek bozkarioz gairiditzen ninduten, eta banindoan galdeka hea belar beltzaren adarrak ikusiak zituztenez, La Fontaine-ek Habacuc (**) irakurria zutenez galdatzen zuen bezala.

Goizaren gaineratekoa baneraman zaintzalearekin, hunen emaztearekin eta Therezarekin (***) ; haien langilen eta lur-emaitzen ikusten, haiekin eskua lanari emanez, eta ainitzetan ikustera jiten zizaztan Bernatar batzuek aurkitu naute zuhatz handi batzuetara igana, fruituz betetzen nuen zaku bat gerrian, eta gero soka batekin lurrera jausten. Goizean egina nuen indarrieriak eta hortarik ezin berexia

den omore onak biziki goxagarri egiten zautaten bazkariko atsedena ; baina gehiegi luzatzen zenean eta eguraldiak deitzen ninduenean, enezakeen igurika ; eta oraino mahian zaudelarik, itzaltzen nintzan eta banindoan bakarrik untzi batera jauzi egitera nihaurek bidatzen bainuen aintziraren erdira ura jabal zenean, eta hor luze-luzea untzian etzanez begiak zerura, neure burua joaitera uzten nuen uraren gostura, orenendako batzuetan, mila ametseria nahasi baina goxo-goxoetan murgildua, hauk, gai ontsa mugaturik ez iraupenekorik batere gabe ezpaitziren hala ere gutiago ene ustez biziko atseginak deritzenetan aurkitua nuen eztienean guziari hautestekoak. Ainitzetan iguzkiaren jaustek sartzeko ordu zela jakin-arazirik, irlatik hain urrun aurkitzen nintzan nun behar bainuen ene indar guziaz ari izan iluna sartu gabe heltzeko. Bertze batzuetan, ur betera urrundu gabe irlaren erripa muskerren bazterrerik joaita laket zizatan, haren ur garbiek eta itzal hotxek usu mainatzera ekharri binaute.

Baina ene ur-aldi usuenetarik bat irla handitik xipira joaita zen, han lurreratzea eta bazkal-ondoaren han iragaitea, noiz ibilaldi biziki neurtu batzuen egiten saratsar, zumalakar, xinaurri-belar, mota orotako zuhaxken erdian, eta noiz sorotxaz, basa-xarbotez, lorez, eta ere lehenago han ereinik izanak zatezkeen astorkiz eta hirustaz estalia zen munho ondartsu baten bizkarrean jarriz, hor bakean jeusen beldurrik eta jeusi kalterik egin gabe haz zaitezkeen lapinen egoitzetako biziki ontsa egina baitzen. Ideia hori eman naukon zaintzaleari, Neufchâtel-dik lapinak ekharrarazi baitzituen ar eta eme, eta joan ginen ospe handiz, zaintzalea, haren emaztea, arrebetarik bat, Thereza eta ni, irla xipian haien ezartzera, han ene abiatzea baino lehen populatzen hasten ari baitziren, eta joritu baitatezke neguen samina jasan ahal baldin badute. Kolonia xipi horren ezartzea besta handi bat izan zen. Argonauten lemazaina etzen ni baino burgoiako kompaniaren eta lapinen eremaiten irla handitik xipira, eta ohartu nintzan urgulurekin zaintzalesa, uraren ezin beldurrago baitzen eta han beti gaizki aurkitzen, nik bidatuz untziratu zela eta iragaitean lotsarik batere etzuela erakutsi.

Aintzira khexuak etzuenean urean ibiltzera uzten, arratsaldea irlan ibiltzen iragaiten nuen belarketan eskun eta ezker, jarriz noiz zoko xoragarri eta baztertuenetan han gostura amets egiteko, noiz zabaltzetan eta munhoetan, begiak ibiliz aintziraren eta haren erripen ikuspegi mireskarrian, alde batetik auzoko mendiek koronatzeko baitituzte, eta bertzetik ibar aberats eta emankor batzuetan hedatzen baitira hetan ikuspenera baitoa mugatzen zituzten urrunagoko mendi urdinaranetarano.

Arratsa hurbiltzen ari zenean, irlako hegietarik jausten nintzan eta banindoan gogotik aintziraren bazterrean jartzera, ondartzan, geriza-leku gorde batean ; hor uhainen hotsak eta uraren higitzeak ene sensuak geldituz eta arimatik bertze mogimendu oro haizatuz murgiltzen zuten ametseria ezin goxoago batean gauak hortan usu hatzemaiten baininduen nihaur ohartua izan gabe. Uraren jin eta joanak, haren hots jarraiki baina hantuak arteka ene begi-beharrien ethengabe joiteaz ordaitzen zituen ametseriak neure baitan iraungitzen zauztan barneko mogimenduak eta aski zizaztan neure izaitearen sendi-arazteko atseginekin, gogoetan ari izan gabe. Noiztenka sortzen zen gogamen ahul eta labur bat uren axialak haien itxura bazematan mundu huntako gauzen aldakortasunaz ; baina laster iduripen horiek ezeztatzen ziren leriartzen ninduen mogimendu jarraikiaren berdintasunean, arimaren laguntzarik eta indarrik batere gabe ezpaininduen estekatzetik uzten hala nola nun orenak eta hitzartua zen seinaleak deiturik ezpainindaikkeen hortik bortxatu gabe jalgi.

Auhal-ondoan, gaua eder zenean, baginoazin ere oro batean ibilaldi baten egitera zabalzan aitzirako airearen eta hoxturaren hartzeko. Etxolan atsedean hartzen zen, irri egiten, solaztatzen, oraiko bihurtzeko ontsa balio zuen kantu zahar zenbait kantatzen, eta azkenean etzatera joaiten ginen egunaz askietsiak eta biharamuneko bertze berdin bat baizik ez gutiziatuz.

Horra, ustegabeko ikustaldi aspergarriak baztertuz, irla hortan egin dutan egonaldiko aroa ereman dutan moldea. Derradatela orai zer den hor aski erakargarririk ene bihotzean urriki hoin bizi, hoin samur eta hoin iraunkorren sustatzeko, nun hamabortz urteren buruan ezpaitezaket egoitza maite hura gogoan ukan aldi oroz neure burua oraino ene gutziaren oldez hara eremana senditu gabe.

Bizi luze bateko gora-beheretan ohartu niz gozamen eztienean eta atsegin bizienean orduak eztiela bizkitartean beti haien orhoizapenak hetara gehienik erakartzen nauen eta gehienik hunkitzen nautenak. Burxoratzezko eta tirriezko ephe labur horiek, nahi den biziak izan ditenean, eta bere bizitasunaz beraz, eztira alta biziko marra luzean tita ontsa argal batzu baizik. Bekanegi dira eta lasterregi izanara baten egiteko, eta ene bihotza hartaz urrikitan den zoriona ezta ephe iheskor batzuek egin baina izanara xoil eta betiereko batez, beraz bizi-bizirik ezer eztuena, baina haren iraupenak goxatasuna handitzen daukona hartan zorion goienaren aurkitzerano azkenean.

Oro lurrean goiti-beheiti ethengabe batean doa. Jeusek eztu molde betiko eta geldi bat atxikitzen, eta gutaz kampakoz gauzer eratxikitzen diren gure

sendimenduak badoaz baitezpada hek bezala aldatuz. Beti gure aitzinean edo gibeletik, gehiago ezten iraganaz orhoit-arazten dute edo ainitzetan izanen ezten geroa iragartzen : jeuz ezta hor bihotza hari lot dakidiokeen segurrik. Hortakotz dugu behere huntan diragan atseginik baizik ezin ukan ; badirauen zorionik, ezaguna denez dudatzen dut. Gure gozamen bizienetan doi-doia da ephe bat hartan gure bihotzak zinez erran baitezake : *Ephe hunek beti iraun lezan nahi nuke* ; eta nola deritzoke zoriona, bihotza oraino khexu eta hutsa uzten daukun izanara iheskor bati, aitzineko zerbaitez urriki-arazten gituenari, edo geroko zerbaiten gutizia emaiten ?

Baina baldin bada hartan arimak hoki aski azkar bat aurki dezakeen izanara bat hartan oso-osoa atsedean hartzeko eta hara bere izaite guziaren biltzeko, iraganaren gogoratzeko edo gerora jauzi egiteko beharrik gabea ; hartan aroa jeus eztekeena harendako, oraiak beti badirauena bizkitartean iraupenaren ezaugarriarik gabe eta jarraikitzen delako hatzik batere gabe, batere senditu gabe ez beharrik ez gozamenik, atseginik ez bihotzminik, gutiziarik ez beldurrik, ezpada izaite hutsaren bakar hura, eta sendimendu bakar horrek osoki bete lezakeena ; izanara horrek badiraueno hortan aurkitzen denak bere burua zoriondun izenda dezake, ez zorion osagaitz, behartu eta arautu batez, biziko atseginetan aurkitzen dena bezalakoaz, baina zorion ase, oso eta betegin batez, ariman bete behar duela sendi duen hutsik batere uzten eztenaz. Hori da Jondoni-Petriko irlan ene ametseria bakartuetan ainitzetan ukana dutan izanara, ala uraren gostura joaiten uzten nuen untzian etzanik, ala aintzira khexuaren erripan jarririk, ala bertze nunbait, ibai eder baten edo legarrean murmurrikatuz zoan lats baten hegian.

Zertaz gozatzen da horrelako izanaran ? Nor beraren kampoko deusez, nor bere buruaz eta bere izanaraz ezpada deusez, izanara horrek badiraueno nor bere buraz askietsia da Jainkoa bezala. Izaitearen senditzeaz bertze sendimendu orotaz murrizturik bere baitarik askiestezko eta bakezko sendimendu balios bat da, berenaz aski lizatekeena bizi hunen egiteko maitagarri eta ezti, hortarik baztertzer eta duen eztitasunaren behere huntan uhertzera heldu zauzkun sentsuetako eta lurreko iduripen guzien bere ganik urruntzen balakienari. Baina gizonetan gehienek tirria jarraikiez inharrosiek izanara hori guti ezagutzen dute, eta ephe gutiz baizik beteginki ez jastaturik, ezta dukate horren goxoa sendi-arazten daueten ideia ilun eta nahasi bat baizik. Elizateke ere on, gauzek orai duten moldean, lilluramen ezti horien gosez, bizi egiazkoaz nardatuak izan laiten, bere behar beti berrituek horren eginbidea manatzen baitaue. Baina gizonen artetik baztertua izana den zorigaitzeko batek eta behere huntan bertzearendako ez beretako baliagarri eta on den jeus egin

eztezakeenak, aurki dezazke izanara hortan fortunak ez gizonen ekhen eztezazkoten giza-zorion ororen ordaintze batzu.

Egia da ordaintze horiek eztaitezkeela arima guzietan ez egonara guzietan sendituak izan. Bihotzak bakean izan behar du eta tirria batek ere eztezon duen geldia uher. Senditzen dituenak horietara ekharria izan behar du, eta inguruan dituen gauzen laguntza ukan. Ezta behar ez atsedean osorik ez nahasmen handiegirik, baina ez inharrosterik ez arterik ezten mogimendu berdin eta neurtu bat. Mogimendurik gabe bizia ezta lozorro bat baizik : berdintasun gabea edo azkarregia baldin bada atzartzen du, inguruneko gauzak gogora-araziz, ametseriaren goxoa hausten du, eta gure baitarik athera-arazten gitu ordu berean fortunaren eta gizonen uztarri-pean berriz ezarteko eta gure zorigaitzen sendimendura berriz itzul-arazteko. Ixil osoak baderama tristeziara. Herioaren itxura bat emaiten du. Orduan asmamen alaigarri baten laguntza beharrezkoa da eta berainik aski naturalki jiten zeruak hortaz fagoratu dituenen gana. Kampotik ezatorren mogimendua gure baitan egiten da orduan. Atsedena xipiago da, egia, baina gozagarriago ere gogamen arin eta ezti batzuek, arimaren zola nahasi gabe, eztaukotenean gaina, hala erraiteko, doi-doia baizik hunkitzen. Ezta behar gaitz guziak ahatziz nor bere buruaz orhoitzeko aski baizik.. Ametseria mota hortaz goza daiteke geldirik izan daitekeen leku orotan, eta usu gogoetatu dut Bastillan, eta edozein gauzek ene ikuspena joiten ezten presondegi zilo batean ere, oraino gozagarriki amets egin ahalko nuela.

Baina behar da aithortu biziki hobeki egiten zela eta gozagarrikiago irla emankor eta bakartu batean, beraz mugatua eta gainerateko mundutik berezia, iduri alaigarririk baizik eskaintzen etzuen, jeusek orhoitzapen bihotzmingarririk gogora-arazten etzautana, bizilier gutien lagundia estekagarri eta ezti zena ethengabe hartaz hartua izaiterano ohargarri izan gabe ; egun osoan traba ez axolatzerik gabe ene gostuko egitekoer eman nindaitekeena, edo auhertasun gurienari. Gertaldia ederra zatekeen gauza nardagarrienen erdian ametsetako iduri gozagarrienez alhatzen jakinez, sentsuak zinez hunkitzen zauzkon oroz lagunduz hetaz ase zaitkeen ameslari batendako. Ametseria hoin luze 'ta ezitik atheratzean, ikusiz landaretzez, lorez, xoriez inguratua nintzala, eta ikuspena urrunera joiten utziz ur argi eta leihar bateko eremu zabala mugatzen zuten bazter elhaberrietakoetara, gauza maitagarri horiek oro ene iduripener batzen nezteen eta horrela nihauren gana eta inguratzen ninduenera mailka erakarria aurkituz azkenean, enezakeen ezar iduripenen eta gauzen arteko marra berexlea, hain zizatan oro berdin ari egoitza eder hortan neraman bakartu baten bizi bilduaren maita-arazten. Ha ! berriz sor ahal

baliz ! ene egunen bururatzera joan ahal banindaik irla maite hartara nehoiz ere handik jalgi gabe, eta hoinbertze urte huntan ene gainean metatzen jostatzen diren helgaitzez orhoit-araz nindezan leihorreko bizilier bat berrikusi gabe ! Guziak laster betikotz ahaziak litzateke ; enindezakete agian berdin ahatz, baina enuke axolarik, ene atsedenaren uhertzera jiteko biderik eluketen ber !

Gizarteko biziaren harramantzak sortzen dituen lurreko tirria guziez liberatua, ene arima oldez usu igan laiteke hemengo airearen gainera, eta aitzinetik mintza ephe laburrez haien multzoaren handitzeko esperanza duen adimendu zerutarrekin. Gizonak begiratuko dira, badakit, han utzi nahi enuten hoin egoitza eztiaren berriz eni itzulzetik. Baina eztautate bederen asmamenaren hegaletan egun oroz hara joatea debekatuko, eta zenbait orenez oraino han bizi baninz bezalako atseginaz beraz gozatzea. Han egin nezakeen eztiene ene gostura amets egitea lizateke. Han nizala amestuz ez ote dut gauza bera egiten ? Badagit ere gehiago ; gogo hutseko ametseria beti berdin baten deiari gehitzen dauzkot bizia bademoten iduri xoragarriak. Ene gogo-erautzietan haien gaiak enituen ainitzetan senditzen, eta orai gehiago da ene ametseria barnatua are gehiago dauzta bizkorki erakusten. Usu egiazki hetan nintzanean baino haien erdianago niz eta ere goxoakiago. Zorigaitza hau da : asmamena epheltzen ari den arau hori neke gehiagorekin heldu dela eta gutiago duela irauten. Ondikotz ! nor bere azalaren uzten hasten denean da hortaz itsutua izaiten.

(*) Argiratuak zituen liburu batzuek (*Emile, Le Contrat social...*) eginak zauzkoten etsaiek, Parisen ala Geneban, Rousseau-ri aiphamen gaixto bat emanik, herri hortako jendek etxea harrikatu zauzkoten 1765-ko 6-tik 7-rako gauan. (Itzultzailearen oharra)

(**) Rousseau-ren orhoitzapena hutsean da : La Fontaine-ek « Baruch » du aipatzen (Itzultzailearen oharra)

(***) « Thérèse Levasseur » : Orléans-ko linjazain gazte bat Rousseau-k 1745-etik goiti bizi guzian ondoan atxiki zuena, « behin ere maitatu gabe » (hala dio berak *Aithormen*-etan), harekin ukan zituen hirur haurrak Parisko « Haur Aurkituetan » utzirik, 1768-an ezkondu azkenean, hemen aldizka « gelari » (« gouvernante »), « bizi-lagun » eta « emazte » hitzetan izendatzen duena.

IBILALDI SEIGARRENA

Guti dugu haien arrazoina bihotzean aurki eztezakegun mogimendu nahigabekorik, hartan ongi bilatzen baginaki. Atzo, karrika handi berritik iragaitean Gentilly-ko aldera Bièvre-aren bazterretan belarketan artzeko, itzuli bat egin nuen Ifernuko hiri-mugara hurbilduz, eta baserrian urrunduz joan nintzan Fontainebleau-ko bidetik ibai ttipi horren hegietan diren mendixketara heltzeko. Bidegite hori berenez osoki ezpaikoa zen, baina itzuli bera aldi batzuek nahigabetarik egina nuela orhoituz, arrazoina neure baitan bilatu nuen, eta enintzan irri egin gabe egon ahal izan argitzera heldu nintzanean.

Karrika handiaren izkina batean, Ifernuko hiri-mugatik jalgitzean, udan egun oroz jartzen da fruitua, tisana eta opil batzu saltzen dituen emazte bat. Emazte horrek badu mutikoño bat biziki jendekina baina maingua, hau, bere besapekotan xingili-xangala, baitoa aski polliki iragailer amoinaren eskatzera. Halako ezagutza bat egina nuen gizontto harekin ; iragaiten nintzan aldi oroz etzuen bere komplimendu ttipiaren egitera jitea huts egiten, beti ene eskaintza ttipiaz jarraikia. Lehenbiziko aldietan haren ikusteaz loriatua izan nintzan, emaitza biziki gogo onez egiten naukon, eta horrela jarraiki nuen ephe batez atsegin berdinarekin, gaineratuz gehienetan goxagarri zitzatan haren eraste ttipiaren sustatzekoa eta entzutekoa. Mailez mail ohidura bilakatua zen atsegin hori aldatua gertatu zen, nik dakita nola, laster eragozpena senditu naukon halako eginbide batera, oroz gainetik entzun behar zen aitzin hitzaldiaren gatik, hortan ezpaitzuen ehoiz eni « Rousseau Jauna »-ren erraitea huts egiten ontsa ezagutzen ninduela erakusteko, horrek aski ikasten baitzautan aldiz eninduela eskolatua zutenek baino hobeki ezagutzen. Ordutik gogo on gutiagorekin iragan nintzan leku hortan, eta azkenean inguru baten egiteko ohidura hartu nuen ohartu gabean arteka hortara hurbiltzen nintzanean.

Horra zer nuen aurkitu gogoetatuz, holakorik ezer ezpaitzizatan ordurano argiki gogora agerturik izana. Ohar horrek jarrikan bertze ainitz orhoit- arazi dauzta, ontsa segurtatu baitautate eztirela ene egintza gehienen lehenbiziko arrazoin egiazkoak neuretako luzaz iduritua zizatana bezain argi. Badakit eta sendi dut ongiaren egitea dela giza-bihotzak jasta dezakeen zorion egiazkoena ; baina aspaldi du zorion hori ene menetik urrun ezarria dela, eta ezta enea den bezain izanara miseriazkoan uste ukan behar egintza egiazki on bakar bat egin daitekeela hautuz eta ondorio onarekin. Ene zoria manatzen dutenen artha handiena enetako

oro etzadin izan iduripen falsu eta enganakor bat baizik ez izanik, bertutezko gai bat ezta nehoiz eskaintzen zatan amarru bat baizik, hartan estekatu nahi nauten artera ene ereman-arazteko. Hori badakit ; badakik hemendik goiti ene botherean den ongi bakarria egintzatik elikatzea dela, nahi gabea eta jakin gabea gaizki egin beldurrez.

Baina dembora zoridunago batzu izan ziren, hetan, ene bihotzeko older jarraikiz, bertze bihotz bat askietsia bilaka bainezakeen, eta neure buruari zor daukot atsegin hori jastatu ahal dutan aldi oroz bertze edozein baino eztiagoa aurkitu dutalako lekukotasun ohoragarria. Ixuri hori bizia izan zen, egiatia, garbia ; eta jeusek eztauta neure golkoan ehoiz ezeztatu. Ainitzetan sendi dut alta neure ongi eginen phizua ondotik ekharr-arazten zituzten eginbiden gatinatik : orduan atsegina itzali da, eta eztut gehiago lehenik loriatua ninduten artha beren jarraikitzean, eragozpen abantzu ezin jasan bat baizik aurkitu. Ene joritaldi laburretan jende ainitzek hel egiten zautan, eta eman ahal nezteen zerbitzu guzietan ehoiz etzen bat gibelera igorria izan. Baina bihotzeko ixuri batekin egin lehenbiziko ongi horietarik sortzen zizaztan batere atzinetik ikusiak enituen haien uztarria ezin utz nezakeen estekamenduzko gatina lerro batzu. Ene zerbitzu lehenak etziren ukaiten zituztenen begietan jarraiki behar zizezteenen erresak baizik. ; eta zorigaitzeko batek lehenbiziko ongi-eginaren krakoa gainera emana zautan orduko, handik goiti guzia egin zen, eta lehenbiziko ongi libro eta nahitu hori dretxo mugagabe bilakatzen gero haren beharretan izan zaitezkeen guziendako, ezina ere etzizatarik hortik jalgitzeko aski. Horra nola gozamen biziki ezti batzu ondoan menperatze gastukor batzuetara aldatzen zizaztan.

Estekamendu horiek etzizaztan alta biziki phizu iduritu publikoaz ezaguna izan gabe ilunbean bizi izan nintzano. Baina ene idazkiez agerian ezarria izan nintzalarik, huts larria dudarik gabe, baina ene zorigaitzez ordaindua baino gehiago, ordutik bilakatu nintzan dohakaben edo hala zirela zioten guzien helbulegoa, enganatzekoak bilatzen zituzten frikun guziena, alegia emaiten zautaten bothere handiaren estakuru molde batez edo bertzez nitaz jabetu nahi zuten guziena. Orduan nuen ikasi behar ukan jitezko ixuri guziak, ongi egiterakoa bera baztertu gabe, gizartean zuhurtziarik edo hauturik gabe erabiliak edo jarraikiak, izaite motaz aldatzen direla eta usu lehenbiziko bidean baliagarri ziren bezain kaltegarri bilakatzen. Hoinbertze erakaspem mingarriek ene lehenbiziko jiteak apurka aldatu zituzten, edo izaitekotz bere zinezko mugetan hetsiz, ikasi zautaten ongi egitera nuen ixuriari gutiago itsuki jarraikitzen, norbaiten gaixtotasunaren laguntzeko baizik baliagarri etzenean.

Baina eztut erakaspen horietaz urrikitzekorik batere, gogamenaren bidez nor beraren ezagutzeko argi berri batzu ekharri dauztagenaz geroz, eta ene egin-araren egiazko arrazoinez hain usu lilluratua izana nizan mila gertaldietan. Ikusi dut atseginekin ongi egiteko libroki ari izan behar nuela, hertsatua izan gabe, eta ongi egin baten eztitasun guziaren ekhentzeko enetako eginbide bat bilaka zadin aski zela. Orditik egin beharraren phizuak gozamen eztienerarik zama bat egiten dauta, eta *Emile*-an errana dutan bezala, uste dutanaz, Turkoen herrian senar gaitz bat izanen nintzan oihu publikoak bere izanarako eginbiden betetzera deitzen dituenen.

Horra zerk duen hagitz aldatzen luzaz neure bertuteaz ukan nuen aburua; ezpaita batere nor bere ixurier jarraikitzean, ez eta, hortara ekhartzen gituztenean, bere bururari ongi egiteko atseginaren emaitetan. Eginbideak manatzen duenan, aldiz, haien garhaitzean da, manatzen duen horren egiteko, eta orra zeren egiten dutan jakin munduan gizon edozeinek baino gutiago. Sendikor eta on jaioa, urrikalmendua ahuleziarano eremanez, eta neure arima sendituz eskuzabaltasunari datxikon oroz sustatzen, urrikari izan nintzan, ongi egitera ekharria, laguntza emaitera, gustuz, tirriaz ere, ene bihotza baizik hunkia izan etzeno; gizonetan hoberena eta barkakoiena izanen nintzan indardunena izan baninz, eta mendekiorako nahikaria ooren neure baitan iraungitzeko, mendekatu ahal ukaitea aski ukanen nuen. Nekerik gabe zuzen izanen nintzan ere neure abantailaren kontra, baina maite nituen jenden aldera enintzan hala izaitera deliberatzen ahalko. Eginbidea eta bihotza elgarren kontra nituen orduko, lehenak irabazia bekan ukan zuen, elikatzea baizik egin behar etzenean bederen; orduan azkar nintzan gehienetan, baina ene ixurien kontra artzea beti ezina izan zizatan. Manatzaleak izan ditzen gizonak, eginbidea, edo beharra bera, bihotza ixilik denean, borondatea gor dago, eta enezake obedi. Mehaxatzen nauen gaitza badakusat eta jitera uzten dut haren aitzintzeko khexatu baino lehen. Batzuetan hasten niz indarka, baina indar horrek ontsa laster aspertzen nau eta ezintzen; jarraikitzen enakike. Azma daitekeen gauza orotan atseginekin egiten eztutana berahala ezin egina bilakatzen zata.

Bada gehiago. Ene gutziarekin bat den herstura aski zata haren ezeztatzeko, eta higuntasunera aldatzeko, hastiora ere, azkarregi ari den ber, eta horra zerk dautan hertsiki nahi den ongia mingarri bilakatzen eta nahi etzelarik neure baitarik egiten nuena. Ongi osoki urru bat segurki haren egitea maite dutan gauza da. Baina ukana duenak dretxo bilakatzen duenean gero jarraikitzearen baitezpada nahi ukaiteko herraren mehatxuan, betiko haren ongi-egile izaitiaz lege

bat egiten daularik, ordutik hasten da nekea eta atsegina ezeztatzen. Orduan amor emanaz badagitana ahulezia et' ahalge gaixto da, baina ezta gehiago gogo onik, eta neure buruaren goresetik urrun, gogo-kontra ongi egiteaz konzienzian erasian ari niz.

Badakit badela halako kontratu bat eta orotako sainduena ere, ongi-egilearen eta ukailearen artean. Halako lagundia bat dute batak bertzearekin egiten, gehienetan gizonak orotakoan batzen dituen hura baino hertsia, eta ukaileak ixilean bere burua esker onera bortxatzen baldin badu, egileak bere burua berdin bortxatzen du bertzearendako, hortako gai izaitetik geldituko ezteno, erakutsia daukon gogo on berean egoitera, eta ahalko duen eta eskatua izanen den aldi oroz egintzen berritzera. Eztira horiek baitezpadako aitzin-arrazoinak, baina haien artean jartzen den harremanaren ondorio zuzenak. Eskatzen zakon zerbitzu urru bati lehen aldi eza emaiten duenak eztauko eza eman daukonari arranguratzeko zuzenbiderik batere emaiten ; baina horrelako aldi batez aitzinean zerbitzu egin zaukon hari berari zerbitzu bera eman nahi eztaukonak, ukaitea haizu utzi daukon esperanzaz gabetzen du ; phitz-arazi duen itxaropen bat bairatzen du eta ukatzen. Ez hortan senditzen da bertzean baino nik dakita zer zuzengaitzago eta gogorrago dena ; baina ezta hala ere gutiago bihotzak maite duen eta indarririk gabe uzten eztauen libertate baten ondorioa. Zor bat ordaintzen dutanean eginbide bat dut betetzen ; emaitza bat egiten dutanean neure buruari bademotan atsegin bat da. Eginbiden betetzeko atsegina bertutearen ohiduraz bakarrik sortzen direnetarik da ; jitetik zuzen heldu zazkunak eztira hoin gora igaiten.

Hoinbertze erakaspen trixten ondotik, ene lehenbiziko olde jarraikien ondorioen urrundik ikusten ikasia dut, eta egiteko gura eta ahala nuen ongi-egite batetik usu elikatu niz, gogoetatu gabean egiten baldin banuen ondotik haren menean jarri behar nuen eginbeharrak izitua. Beldur hori ezta beti senditu, aldiz gaztaroan neure ongi-egitez estekatzen nintzan, eta ainitzetan senditu dut berdin zerbitzu emaiten nauenek maitatzen nindutela esker onez abantail-nahiz baino ere gehiago. Baina alde hortara bertze orotara bezala gauzak itxuraz aldatu dira ene zorigaitzak hasi diren orduko. Ordutik lehenbizikoa batere iduri etzuen gizalde batean bizi izan niz, eta bertzen aldera nituen sendimenduek haienetan aurkitu ditutan aldamenaz pairatu dute. Bi gizalde hoin ezberdin horietan bat bertzearen ondotik ikusi ditutan jende berak batari eta bertzeari berdindu bezala dira. Egiati eta zintzo zirenetik hastapenean, direnak bilakaturik, bertze guziek bezala egin dute ; eta bakar bakarrik aroak aldatuak direlaketz, gizonak hek bezala

aldatu dira. He! nola atxik nezazke sendimendu berak sorr-arazi zituztenen kontrakoa aurkitzen dauetenendako! Eztitut hastiatzen, hastia ezpainezazke; baina ezin zain naiteke merezi duten gaitzestetik eta haier horren erakustetik ezin elika.

Behar bada, ohartu gabe, behartzen baino gehiago bertzelakatu nizateke nihaier ere. Nolako jiteak iharduk lezake aldatu gabe enea bezalako izanaldi bati? Hogeia urteko erakaspenen bidez sinetsirik naturalezak nitan ezarri duen onerako ixuri oro ene zoriak eta nihaieren eta bertzen kaltetan hunen jabeak direnek itzulia dela, eztezaket gehiago egiteko aitzineratzen zatan ongi bat gibelean gaitz bat gordea duen arte bat bezala baizik ikus. Badakit, zer ondorio ere ukan dezan ongiak, eztutala gutiago ene xede onaren mereximendua ukanen. Ba, mereximendua hor dateke beti, baina barneko goxoa ez, eta sustagarri hunek huts egiten dautan orduko, eztut neure baitan axolagabe 'ta hormarik baizik sendi, eta egintza zinez baliagarri baten orde enganatzen nauen bat baizik eztagitala segurrean, neure baitako amodioaren sumindurak arrazoinaren ezari loturik eztauta gehiago higuntasunik eta ihardokitzerik baizik eman-arazten, ene jitezko izanaran suz eta garrez betea baizik izanen enintzalarik.

Arima goititzen eta azkartzen duten nahigabeak badira, baina badira aurdikitzen dutenak eta hiltzen; hunelakoa da menean nadukana. Enean hazkarri gaitz zenbait izan baliz gehiegi iraki-araziko zuen, ezin egona bilakatuko ninduen; baina enau ezteus baizik bilakatu. Neuretako ala bertzearendako ongi egiteko ahalik gabe, egitetik elikatzen niz; eta izanara horrek, bortxatua izaiteaz baizik ogengabea eztena, halako eztitasun bat aurki-arazten dauta neure jitezko ixurira erasiarik gabe osoki emaiten. Urrunegi banoake, egiteko aldiak baztertzen ditutanaz geroz, ongi egiterik baizik ikusten ez tutan lekuan ere. Baina diren bezala gauzen ikustera utziko enautela segurrean, emaiten zeen itxuratik haien jujatzetik elikatzen niz, eta egiteko arrazoinak zein nahi enganioz estal ditzaten, arrazoinak ene menean utziak izan diten aski da enganagarri direla segur izaiteko.

Badiduri ene zoriak eskaini dautala haurzarotik bertze orotara erortzeko hain errexa bilakatu nauen lehenbiziko sarea. Gizonetan fidakorrena iaioa niz eta berrogeia urte osotan konfiencia hori etzen aldi bat ere enganatua izan. Bapatez bertze jende 'ta gauza mota batera eroririk mila artetara eman dut behin ere bati ohartu gabe, eta hogeia urte erakaspen doi-doia aski izan dira neure suertez argitzeko. Behin sinetsiz geroz nasaiki erakusten zauztaten sinoak etzirela gezur eta enganio baizik bertze burura lasterrez joan niz: ezen nor bere jitetik atheraia denean, atxikitzen gituzten mugarik ezta. Ordutik gizonez higundu niz, eta hortan ene

borondateak haienarekin bat eginez banaduka haien ganik zimarku guziek egiten nauten baino ere urrunago.

Badagitela nahi dutena: higitasun hori ezin doake nehoiz hastiorano. Ni bere menean ezarri nahiz neure menean jarriak direla gogoan hartuz egiazko urriki bat emaiten dautate. Zorigaitzean baldin baniz berak hala dira ere, eta neure baitan sartzen nizan aldi oroz beti urrikkalgarri aurkitzen ditut. Urgulua nahasten dateke jujamendu horiekin, haiek baino sobera gorago sendi niz haien hastiatzeko. Hunki nezakete gehien gehienik gaitzemenarano, baina ez hastiorano. Hori neure izaitearen hertsatzea, zapatzea lizateke, eta nahi nuke izaitekotz mundu osorano hedatu.

Hastiatu baino nahiago dut hetarik ihes egin. Haien ikusteak mila behako bortitzek penagarri bilakatzen dauztaten iduripenez joiten dauzta sentsuak, eta hortik bihotza; baina gaizki izaite hori emaiten duen gauza joan orduko gelditzen da. Hetaz ontsa nahi gabetan axolatzen niz hor direlakotz, baina nehoiz haien orhoitzapenaz. Ikusten eztitutanean, enetako ezpalire bezala da.

Eztut ere hetaz axolarik nihuri doatanean baizik; ezen bere artean dituzten harremanetan oraino atxik nezakete eta hunki, jokatzen ikusiko nuen drama bateko personaiek bezala. Zuzengabearen eta gaixtakeriaren ikusteak haserrez odola oraino irekitzen daut a; espanturik ez erakus-nahirik ikusten eztauetan bertutezko egintzek bozkarioz ikhara jauz-arazten dautate beti eta nigar ezti batzu ekhentzen. Baina behar ditut ikusi eta nihaurek estimatu; ezen nihauren ixtorioaren ondotik eroa izan behar nuke nahi den gauzan gizonen aburuaren onhartzeko, eta bertze baten lekukotasunaz jeusen sinesteko.

Ene begitarte eta itxura nortasuna eta jitea diren bezain gizonez ezezagunak balire, nekerik gabe bizi nindaieke oraino haien artean; haien lagundia laket ukan nezake ere haiendako osoki arrotz izan naiteno. Bortxurik gabe neure ixurietara emana, maita nezazke ere ezpalire nitaz ehoiz axolatzen. Banuke haien aldera orotako ongi-nahi osoki abantail-nahi gabeko bat: baina estekamendu berezirik ehoiz moldatu gabe, eta edozein eginbideren uztarririk jasan gabe, egin nezake haiendako librok eta neure baitarik, hek bere baitako amodioaz sustaturik eta lege guzietz botxaturik hain nekez badagitena.

Egon baninz libro, ilunbean, bakartia, izaiteko egina nintzan bezala, enuen ongirik baizik eginen, bihotzean ezpaitut tirria kaltegarri bakar baten hazirik. Jainkoa bezala ezin ikusia eta bothere osokoa baninz, hura bezala ongi-egile eta ona ninzateke. Indarrak eta libertateak dituzte gizon hoberenak egiten. Ahul eta

esklabotasunak eztute nehoiz gaixtaginik baizik egin. Gygès-en erhaztunaren jabe izan baninz, gizonen menetik atherako ninduen eta hek enean ezarriko zituen. Usu neure baitan galdegin dut, neure ametsezko xedetan, erhaztun hori zertan baliatuko nuen ; ezen hor duke bada sobera egiteko tentamenduak bothereari hurbil izan behar. Ene gutizien asetzeko nagusi, ororen egiteko ahalean ehorez enganatua izan ahal gabe, zer nuen jarraipen zenbaitekin gutiziatuko ? Gauza bakar bat : bihotz guzien askietsiak ikustea izanen zen. Jende guziaren zorionaren ikusteak zuen bakarrik ene bihotza betiko sendimendu batez hunki ahalko, eta hortara artzeko gutizia suharra ene tirria iraunkorrena izanen zen.

Beti alderdikieririk gabe zuzen eta ahuleziarik gabe ona, neurri berean zainduko nintzan bai mesfidanza itsuetarik bai herra amorratuetarik ; hori, gizonak diren bezala hartuz eta haien bihotzaren zolan errex ikusiz, guti edirenen nuelakotz ene atxikimendu guzien merezitzeko aski maitagarririk, guti ene herraren guziaren merezitzeko aski hastiagarririk, eta haien gaixtotasunak berak hetaz urrikitzera ekharriko ninduelakotz, bertzer egin nahiz bere buruer badagiten gaitzaren ezagutze segurretik. Ukanen nuen behar bada alaitasunezko ephe batzuez artetan mirakulu batzuen egiteko haurtasuna : baina neure aldera osoki abantail-nahi gabea eta ene jitezko ixuriez bertze legerik ez ukanez, justizia biphilezko egintza batzuekin barkamenduzko eta zuzentasunezko mila eginen nituen. Probindenziaren minixtro eta ene nahitara haren legen emaile, leienda urrezko eta san Medardoko (*) mirakuluak baino zuhurragoak eta baliagarriagoak eginen nituen.

Gauza bakar bat baizik ezta hartan ikusi gabe orotara sartzeko ahalak gaizki ihardokiko ahal nezteen tentamendu batzu bila-araziko ahal zatzana, eta galbide horietara behin sartuz geroz norano enintzan hetaz eremana izanen ? Naturaren eta nihauren ontsa gaizki ezagutzea lizateke ahal horiek bilduko enindutela neure buruaren lausengatzea, edo arrazoinak malda gaizkor hortan atxikiko ninduela. Bertze gai orotan nitaz segur, hortaz bakarrik galdua nintzan. Bere bothereak gizonen gainean ezartzen duen harek gizonen ahuleziak baino gorago izan behar du, hori gabe bothere soberakin hori ezpaitzako bertzeak baino eta bertzen heineko egonez bere baitarik izanen zen baino beherago ezartzeko baizik egiazki baliatuko.

Guzia ontsa ikusirik, uste dut hobeki egin nezakeela ene erhaztun mirazkoa botatuz zozokeria zenbait egin-arazia dautan baino lehen. Gizonak hisitzen badira ene ikusten osoki nizan ez bezalakoa eta ene ikusteak zuzengaitza haserretzen baldin badaue, ikuspen horren ekhartzeko ihesi joan behar zaie, baina ez haien

artean gorde. Haier da ene aitzinean gordetzea, nitarik bere jukutrien baztertzea, egunaren argitik ihesi joatea, satorrak bezala lupean sartzea. Ni aldiz ikus nezatela ahal badute, hanbat hobe, baina ezin dute ; ene orde eztute nehoiz berek moldatua eta, nahitara hastiatzeko, bere gogoen araura egina duten Jean-Jacques baizik ikusiko. Huts banegike beraz ikusten nauten moldeaz hunkia izanez : eztut hortaz egiazki batere axolatu behar, horrela dakusatena ezpainiz ni.

Gogoeta horietarik guzietarik athera dezaketan ondorioa hau da : ehoiz enizala gai izan hartan oro eragozpen, eginbehar, eginbide den gizarteko, eta ene jite libro nahiak beti egin ninduela gizonen artean bizi nahi duenarendako baitezpadakoa den menperatua izaiteko ahalik gabea. Libroki ari nizano ona niz eta eztut ongirik baizik egiten ; baina uztarria sendi dutan orduko, ala beharrarena ala gizonena, eztut, zer nahi gerta ere, egiten ; eztut ere nahi dutan hura egiten, ahula bainiz. Egitetik elikatzen niz, ene ahulezia guzia egintzako baita, ene indar guzia ezara emana, eta ene bekatu guziak ez eginarenak dira, bekan egintzazkoak. Eztut ehoiz uste ukan gizonaren libertatea nahi duenaren egitean zela, baina ba nahi eztuenaren ehoiz ez egitean, eta horra zer dutan beti eskatu, ainitzetan atxiki, eta zertarik izana nizan ene arokoendako gehienik eskandalean. Ezen hauk, erne, higikor, handi-nahi, libertatea bertzetan hastiatuz eta beretako ez nahiz, batzuetan bere nahia badagiten ber, edo izaitekotz bertzearena menperatzen duten ber, bizi guzian eragozpenetan dira hastio dutena eginez eta eztute manatzeko aphaltarri den ezer huts egiten. Haien ogena ezta beraz gizartetik debaldeko norbait bezala ene baztertzea, baina galgarri bat bezala hartarik bahitzea ; ezen biziki ongi guti egin dut, aithor dut, baina gaitzik, ezta ene bizian nehoiz ene gogoan sartu, eta badela munduan gizon bat zinez nik baino gutiago egin duenik dudan emaiten dut.

(*) Parisen izen hortako hilerrietan ehortzia zen Paris diakrearen hilhobiak, 1730 inguruan, arrakasta handia ukana zuen sinesle buru berotu batzuen artean, eta sendatze mirakuluzkoak gertatuak omen ziren. (Itzultzailearen oharra)

IBILALDI ZAZPIGARRENA

Ene amets luzen bilduma doi-doia da hasia, eta sendi dut jadanik bururapenera hunkitzen duela. Bertze jostagarri bat jarraikitzen zako, hartzen nau, eta amets egiteko astia ere ekhentzen dauta. Hari emana nako bitxikeriatik baduen eta gogoetatzen nizanean nihauri irria egin-arazten dautan khar batekin ; baina enako gutiago emana, ezpaitut, nizan egonara huntan, egiten dutaneko neure ixuriari trabarik gabe jarraikitzeaz bertze erregelarik. Jeus eztezaket ene zorian alda, ogengabeko ixuririk baizik eztut, eta gizonen jujamendu guziak enetako hemendik goiti ezteusak izanez, zuhurtziak berak nahi du menean gelditzen zautanean balakatzen nauen guzia badagitan, neure aburuaz bertze erregelarik, eta gelditua zautan indar gutiaz bertze neurriarik gabe. Huna beraz janari guziko neure belarrean, eta lan orotako landareketan. Ja zahartua lehenbiziko gostua Suizan hartua nuen, Ivernois medikuaren ondoan, eta belar biltzen aski zorionekin ari izana nintzan neure bidaietan landaretzearen ezagutza onhargarri baten hartzeko. Baina hiruretan hogeitaz goiti heldurik eta bizitzen Parisko hirian jarririk, indarrak joaiten hasirik belarketa handietako, eta bertzela ere ene musika kopiatzeaz aski hartua bertze lanik ez behar ukaiteko, baitezpadako etzizatan jostagailu hori utzia nuen ; ene belar bilduma saldua nuen, salduak ene liburuak, Parisko ingurunetan egiten nituen ibilaldietan ikusten nituen landare ohikoez askietsia. Arte hortan, banakien gutia gogotik abantzu osoki ezabatu zata, eta hartua izana zen baino ontsa lasterrago.

Bapatean, hiruretan hogeitaz birtz urteak iraganik (*), nuen orhoitza gutiaz eta baserrian ibilzeko gelditzen zizaztan indarrez gabeturik, bidaririk gabe, baratzerik gabe, belar bildumarik gabe, huna nun erokeria hortaz berriz hartua nizan, baina ari nintzan lehenbizian ukana nuen baino ere khar gehiagorekin ; huna Murray-ren *Regnum vegetabile*-aren (**), gogoz ikasteko xede zuhurraz seriozki hartua, eta lurrean aipatuak diren landare guzien ezagutzeaz. Landeretzetako liburu berrerozteko ahalik gabean mailegatu dauzatenen kopiatzeko xedetan abiatua niz, eta lehenbizikoa baino aberatsagoko belar-bilduma baten egitera deliberatua ; itsasoko et' Alpetako landare eta Indietako zuhatz guziak hartan ezar ditzatan artean, merkerik hasten niz bederen xori-belarretik, perrexil-xehetik, morroinetik eta zorna-belarretik ; belar biltzen ari niz jakintsuki ene xorien kaiolaren gainean eta edireriten dutan belar izpi bakoitzan, neure buruari badiot atseginekin : horra beti landare bat gehiago.

Eztut burutik iragaiten zatanaren egiteko xedearen onharr-araztea bilatzen ; biziki arrazoinekoa zata, nizan egonaran balakatzen nauten jostagailuetara emaita zuhurtzia handia dela segur izanez, eta bertute handia ere : bihotzean mendekio edo herraren hazirik batere hozitzera ez uzteko bidea da, eta ene zorian jostagailu zerbaiti oraino gustu edireiteko, segurki behar da jitea haserrezko sendimendu bortitz oroz ontsa akhitua ukan. Asaldatzen nautenez neure moldean mendekatzea da, enezazke haien gatik zorionean izanez baino bortizkiago gaztiga.

Bai, badiduri, erakhartzen nauen eta jarraikitzea ezerek debekatzen eztautan ixuri orori emaita arrazoinak haizu uzten dauta, manatzen ere ; baina eztauta ikasten zergatik nauen erakhartzen, eta zer gozo edireiten dutan baliorik ez aitzinatzerik gabeko ikaspen hutsal batean, eta, erasle zahar ja hebaindu eta phizua, errextasunik gabea, orhoitik gabea, gaztaroko lanetara eta eskoletako ikastaldietara zerk neraman. Bitxikeria hori nuke bada aztertu nahi ; badidurit, ontsa azterturik, argi berri bat eman lezokeela ene azken astiak hortara emanak ditutan neure buruaren ezagutzari.

Aski barnatuki gogoetatu niz batzuetan, baina atseginekin bekan, abantzu beti neure gogo onaren kontra eta bortxaz bezala : ametseria atsedean zata eta jostagarri, gogoetatzea akhi eta trixtagarri ; gogatzeta beti egiteko nekagarria eta gozorik gabea izan zizatan. Aldi batzuez ene ametseriak gogoetatzetik bururatzen dira, baina gogoetatzeak usuago ametseriatik, eta bide galtze horietan ene arima badabila mundu osoan asmamenaren hegaletan airean, bertze gozamen oro gaititzen duten gogo-erautzi batzuetan.

Hori bere garbitasun osoan jastatzen nueno bertze egiteko oro geza izan zizatan beti. Baina noiz ere, olde arrotz batzuek bultzaturik literaturako bidera egotzia, gogoko lanaren akhidura eta zorigaitzeko aipamen baten nardagarritasuna senditu baintuen, aldi berean senditu nituen ene ametseria eztiak ahultzen eta epheltzen, eta laster nahigabea ene izanara trixteaz axolatzera bortxatua, enituen gogo-erautzi maite horiek ontsa bekan baizik berraurkitu ahal ukan, berrogei-ta hamar urtez fortuna eta loriatzat ukanak nituelarik, eta, aroarenaz bertze gasturik gabe, auhertasunean hilkizunetan zoriondunena bilakaturik.

Beldur izan behar nuen ere ene ametserietan zorigaitzek ohildua zautaten asmamenak bere egintza alde hortara itzul zezan, eta ene zorigaitzen sendimendu jarraikiak bihotza mailka hertsituz, enindezaten azkenean bere phizuez leher. Izanara hortan, jitezkoa dutan asmu batek gogoeta trixtagarri orotarik ihes-arazten ninduela, ene idurimena ixilera bortxatu zuen, eta oharra inguratzen

ninduten gauzetan lotuz, lehen aldikotz ikus-arazi zautan xeheki naturalezaren ikusgarria, ezpainaukon ordurano oro batean eta metan baizik behatua.

Zuhatzak, zuhaxkak, landareak lurraren aphaindura eta jantziak dira. Jeus ezta eskualde murriz eta larrutu, begietara harri, lohi eta ondartzik baizik hedatzen eztuen baten itxura baino trixteagorik. Baina naturak phizturik eta haren ezteietako arropaz jantzirik latsen eta xori kantuen erdian, lurrak ezkaintzen dauko gizonari hirur izaite moten batasunean, biziz, balioz eta gozoz betea den ikusgarri bat, begiak eta bihotza nehoiz aspertzen eztauzkon ikusgarri bakarra.

Gehiago du behatzale batek arima sendikorra, are gehiago da batasun horrek sustatzen dauzkon gogo-erautzietara emaiten. Ametseria ezti eta barnatu bat haren sentsuez jabetzen da orduan, eta xoramen goxo batekin galtzen da hartan bera barne dela sendi duen egitura horren neurrigabeen. Orduan gauza berezi guziek huts egiten daukote ; ezer ezta ikusten ez senditzen oso hortan baizik. Gertaldi berezi zenbaitek behar dauzko gogoetak hertsitu eta idurimena mugatu osoan hartzera entseatzen zen mundu horri zatika behatzeko.

Hori da naturalki gertatu zizatana ene bihotz antsiaz hertsituak mogimendu horiek oro bere inguruan hurbiltzen eta biltzen zituelarik, hartara mailez mail erortzera ari nintzan ahulezian ezeztatzera eta iraungitzera zoan bero ondar horren beiratzeko. Banindabilan axolatu gabe oihanetan eta mendietan, gogoetatzera mentura gabe ene oinazeak azkar beldurrez. Gauza nekagarririk nahi eztuen idurimenak uzten zautan sentsuak inguruko gauzen ikuspen arin baina ezteiz hartuak izaitera. Begiak banabiltzan ethengabe batetik bertzera, eta ezin zen hanbateko gauza mota andanaren artean, gehiago atxik eta luzazago geldiaraz zitzanik izan etzadin.

Begien jostatze hori gustatu zizatan, zorigaitzean atsedeen emaiten baitu, arintzen, izpiritua libertitzen eta atsekaben sendimendua gelditzen. Gauzen nolakotasunak libertimendu hortara hagitz laguntzen du eta gustagarriago egiten. Usain goxoak, margo biziak, gauzen molde aphainenak badiduri ari direla zein gehiagoka gure oharra atxiki beharrez. Ezta atsegina maite ukan behar baizik hoin sendimen ezteietara emaiteko, eta ondorio hori izaiten ezpada senditzen dituzten guzien baitan, batzuetako jitezko sendikortasun eskasez da, eta gehienendako izpiritua, bertze gogoeta batzuetan hartuegia, ezpaitzee ebaska baizik sentsuak joiten dezteen gauzetara emaiten.

Bertze gauza bat bada oraino jende «gostudunen» oharra landaretzetako gaitik urruntzera badakarrena ; hori da landaretan droga eta

sendagailu baizik ez bilatzeko ohidura. Theofraztez bertze moldez ari izana zen, eta filosofo hori ikus daiteke aro zaharreko landarekin bakarra bezala; ezta ere gutartean abantzu batere ezaguna; baina delako Dioscoride bati esker, sendagailu biltzale handia, eta haren aztertzaile, medikuntza hanbatetarano da erremedio xoiletara aldatu lanadarez jabetu nun ezpaitzee hetan ikusten eztena baizik ikusten, hori da bati eta bertzeari haier emaita laket zakon delako indarrak baizik. Ezta gogora emaiten landaretako moldamenak ohartze zenbait bere baitarik merezi ukan dezakeela; bizia maskor batzuen jakintsuki antolatzen iragaiten duten batzu landarekintzaz trufatzen dira ikaskuntza debaldeko batez bezala ezpazako, diotenez, landaren indarra gaineratzen; erran nahi da, gezurrik eta holakorik jeus erraiten eztaukun naturalezari behatzea uzten ezpada, bakarrik emaiteko gizonen burupean, gezurtiak baitira eta berek erranean sinetsi behar diren gauza ainitz baieztatzen baitute, eztelarik hori bera bertze norbaiten burupean jarria dena baizik. Loreztatua den phentze batean geldi zaite bat bertzearen ondotik hetaz dirdiratzten duen lore horien ikertzen, egiten ikusiko zituztenek, fraide batendako hartuz, belarrak galdeginen dauzkitzute, haurren maldaren sendatzeko, gizonen hazterien edo zaldien gormuaren. Aburu hingungarri hori bertze herrietan eta oroz gainetik Angeleterran Linnæus-i esker ezeztatua da, landarekintza farmaziako ikastetxetarik apur bat athera baitu ixtorio naturalari eta ekonomiako erabiltzer itzultzeko; baina Frantzian ikaskuntza hori munduko jendetan gutiago sartu baita, gai hortan hain salbaiak gelditu dira nun Parisko izpiritu eder batek Londresen ikusiz norbaiten baratzea zuhatz eta landare arraroz betea, laudorio orotako egin baitzuen: « Horra botikari baten baratze biziki ederra! » Horrela ikusiz lehenbiziko botikaria Adame izan zen. Ezpaita errex Edengo baratzea baino landarez hobeki hornitu baten asmatzea.

Medikuntzako ideia horiek eztira segurki landaretzearen ikaskuntza gozagarri egin dezaketenak, soroetako esmaila, lilien dirdira histen ditu, zuhaztoietako hoxtura idortzen, orstatzea eta itzalguneak gezak eta higungarriak egiten; itxura xoragarri eta garaziadun horiek biziki guti datxikate hori guzia morteyru batean eho baizik nahi ez tuen bat, eta nehor ezta atzaintsendako girlanda bila aiutetako belarretara joanen.

Etzautan farmazia horrek guziak phentzetako iduriak zikintzen; hetarik jeus etzen tisanak eta xaflak baino urrunago. Ainitzetan gogoetatua nuen landetara, sagardoietara, oi hanetara eta hetako bizilierretara so eginez, landaretze mota naturalezak gizonari eta ihizier eman janari magasina bat zela. Baina behin ere

etzata hartan droga eta erremedio bilatzea gogora ethorri. Haren emaitza guzietan jeus eztut ikusten baliatze horri oharr-arazten nauenik, eta nahi ukan balu hautua erakutsia ukanen zaukun, jateko direnendako egina duen bezala. Senditu dut ere zuhaztoietan ibiltzen hartzen dutan atsegina pozoindatua lizatekeela gizonen narrioen ikusteaz uzten banindu sukarras, harriaz, hezueriaz, eta erorteko minaz gogoetatzer. Bertzela ezteztuet landaretzer emaiten zezteen indar handiak ukatuko ; erranen dut bakarrik indar horiek egiazkoak direla uste ukanez eriek maltzurreria hutsa dutela hala izaiten jarraikiz ; ezen gizonak biltzen dituzten hoinbertze eritasunetan bat ezpaita hoge mota belarrek osoki senda dezaketenik.

Oro beti gure gauzetako abantailera erakhartzen dituzten gogo molde horiek , orotan irabazi ala erremedio bila-arazten dutenak, eta beti osasunean bagine naturaleza guzia axolarik gabe ikus-araz lezaketenat, eztira nehoiz eneak izan. Gauza hortan bertze gizon guzien osoki kontrakoa sendi niz : ene beharren sendimenduari datxikon guziak trixtatzen dauzta gogoetak eta andeatzen, eta nehoiz eztut izpirituko atseginetan egiazko gozorik ediren ene soinaren abantaila osoki ahatziz baizik. Horrela medikuntzan sinestea baldin banu ere, eta haren erremedioak gozagarriak balire, ehoiz enezazke hartaz artzean aurki behamen huts eta abantail nahi gabe batek emaiten dituen atsegin hek, eta ene arimak elakike goratzen eta naturalezaren gainean hegaldaka egoiten, soinaren lokailuer badatxikala senditzen dutano. Bertzela ere, medikuntzan behin ere sineste handirik ukan gabe, ainitz ukan dut estimatzen nituen medikuetan, maite nituenetan, eta ene hezurreria larderia osoarekin gobernatzera uzten nauenetan. Hamabortz urte erakaspeneak argitu naute neure kaltetan ; orai naturalezaren lege xoilan azpira sartua, haren bidez lehenbiziko osagarria berriz hartua dut. Medikuek bertze erraitekorik ezpalute ene kontra, haien herraz nor ustegabe laiteke ? Haien jakitatearen hutsaltasun eta arthen debaldetasunaren behazun bizia niz.

Ez, nihauri doatan jeusek, ene soinaren abantailari datxikon jeusek elezake ene arima zinez har. Ehoiz eniz gogoetatzen, eniz ametsari emaiten neure burua ahazten dutanean baino gozagarrikiago. Gogo-erautzi batzu senditzen ditut, xoramen ezin erran batzu izaiten sistiman hala erraiteko urtuz, nuturaleza osoarekin bat eginez. Gizonak anaiak izan zizaztano, lurreko zoriona xedatzen nuen ; xede horiek beti osoari arautuak izanez, enindaitekeen zorionean izan zorion publikoaz baizik, eta zorion berezi baten ideiak eztauta behin ere bihotza hunki anaiek berea etzutela miserian baizik bilatzen ikusi dutanean baizik. Orduan haien ez hastiatzeko, ihes egin behar izan zaie bada ; orduan orotako amaren baitan gerizatuz, hunen

besoetan bilatu dut bereak dituen haurren ukaldien menetik atheratzea, bakartia bilakatu niz, edo, dioten bezala, lagunetarik ihesle eta gizonen hastiatzale, bakartasun oiesena gaixtoen lagundiari, trahitzez eta hastioz baizik hazten eztenari hauteskarri iduritzen zatalakotz.

Gogoetatu gabe egoitera bortxatua, nahi ukan gabe ene zorigaitzak gogora beldurrez ; idurimen alai baina ahuldu baten ondarren heztera bortxatua, hoinbertze antsiek ohil bailezakete azkenean ; gizonen ahaztera bortxatua, desohorez eta laidoz lehertzen binaute, beldurrez eta sumindurak enindezan azkenean samin haien aldera, enindaik bizkitartean nihauren baitara bil, ene arima bertzetara emanak bilatzen baitu, nik nahi ala ez, bere sendimenduen eta izaitearen bertze izaite batzuetara hedatzea ; eta enindaik lehen bezala buruz beheiti naturalezako itsaso zabal hortara egotz, ene ahal xipitu eta gurituek ezpaitute lehen bezala ohargai aski mugatu, aski geldi, aski ene meneko denik hetan azkarki lotzeko, eta ezpaitut neure baitan aski indar sendi lehengo gogo-erautzien nahasmenean igerika joiteko. Ene ideiak eztira gehiago abantzu sendimen batzu baizik, eta ene adimenduaren hedapena eztoa hurbil-hurbildik inguratzen nauten gauzak baino urrunago.

Gizonetarik ihes, bakartasunaren bila, idurimenaz gabetua, oraino gutiago gogoetatuz, eta bizkitartean soraiotasun ahitu eta hitsetik urruntzen nauen jite bizi batez dohatua, inguruan nuen guziari ohartzetik hasi nintzan eta asmu biziki errex batez gauza gozagarrienak hautetsi nituen. Harrietako motak jeus eztu bere baitan maitagarri eta erakhargarririk ; dituen aberastasun lurraren barnean hetsiak badiduri gizonen behakotik urrunduak izanak direla haien gutiziaren ez sustatzeko. Hor daude beiratuak bezala, egun batez gehiago menean dituen eta uhertzen ari den arau haien gostua galtzen ari duen aberastasunen ordainez baliatzeko. Orduan behar du industriari, nekeari eta lanari hel egin bere miserien sokorri ; lurraren sabela miatzen du, badoa haren barnera biziaren irriskutan eta osagarriaren kaltetan iduripenezko ontasun batzuen bila, hetaz gozaten bazakienean lurak berainik eskaintzen zauzkon ontasun egiazkoen orde. Gehiago ikusteko gai ezten iguzkiari et' argiari ihes egiten du ; bere burua bizi-bizirik ehorzten du eta ontsa egiten, egunaren argian bizitza ezpaitu merexi. Hor, harrokiak, lezeak, aroztegiak, labeak, ingude, marteilu, khe 'ta suzko mekanikeria dira baserriko lanen iduri ezten orde. Minetako khe usainduetan ahitzen ari diren zorigaitzekoen aurpegi histuak, arotz beltz batzu, ziklope itsusi batzu dira minetako antolamenak, lurraren sabelean, haren azalean orstatze 'ta lorenaren, zeru urdinaren, artzain maitalen eta laborari azkarrenenaren orde bademan ikusgarria.

Errex da, aithor dut, ondartz eta harri biltzera joaitea, hetaz sakelen eta gabinetaren betetzea eta horrekin naturalixta baten itxuren hartzea : baina molde hortako bilketetan lotzen eta gelditzen direnak ohian jakitate gabeko aberats batzu dira ikusiak izaiteko atsegina baizik hortan bilatzen eztutenak. Mineraleriaren ikasteaz baliatzeko, ximikalaria izan behar da edo fisikalaria ; ariketa nekagarri eta gostagarri batzu egin behar dira, entsegutegi batzuetan lan egin, ainitz diru eta dembora galdu ikatzaren, laben, untzi-bihurrien artean, khean eta lanho ithogarrietan, beti biziaren irriskutan eta osagarriaren kaltetan. Lan trixte 'ta akhigarri hortarik guztik urgulu baino jakitate biziki gutiago atheratzen da ohian ; eta nun da naturalezako egintza handi guziak argituak dituela uste eztuen ximikalari artekoena, antzezko antolamendu xipi zenbait ustegabetarik behar bada aurkitu dituelakotz ?

Ihizien mota gure menezago da eta ikertua izaita oraino hobeki merezi du. Baina ikaskuntza horrek ere ez ote ditu bere unhadurak, trabak, nardak eta nekeak ! Oroz gainetik nehoren ganik, ez bere jokoetan ez bere lanetan laguntza beha egon behar eztuen bakartu batendako. Nola iker dezazket, motz, ikas xoriak airean, arrainak urean, haizea baino arinago, gizona baino azkarrago eta ene ikertzetara jiteko nik ondotik lasterrez eta bortxaz haien menperatzeko baino gutizia gehiago eztuten ihiziak lurrean ? Karakolak, harrak, uliak ukanen ditut beraz atherabidetako, eta bizia hatsa bahituz iraganen dut pimpirinen gibeletik lasterka, mamutxa gaixo batzuen sartzen zirietan, hartzen ahalko ditutanean saguen xeheki ebakitzen edo noiz ere hilak edirenen ditutan ihizien ondarren. Ihizien ikertzea jeus ezta anatomia gabe ; huntarik da ikasten haien ordenatzen, moten, azpi-moten elgarretarik berexten. Bizi-moduetarik, jitetarik ikertzeko, behar litzateke xoritegiak, arraindegiak, ihizitegiak ; behar litzateke zer moldez ahal baliz ere ene inguruan bilduak egoitera bortxatu. Eztut haien preso atxikitzeke ez gosturik ez ahalik, ez eta libertatean direnean haien ibilarari jarraikitzeke behar den zalutasunik. Behar litzateke beraz hilak ikertu, urratu, hezurrez hustu, haien sabel bizietan astira miatu ! Ezta hor, hitzemaiten dut, Jean-Jacques jostagailu bila joanen den lekua.

Lore dirdirantak, soroen esmaila, itzalpe hotxak, lats, xara, ortstatze, zaugite gauza itsusi horiek zikindu dautaten idurimenaren garbitzera. Mogimendu handi horietarako hila dutan arima ezin daiteke gehiago gauza sendigarriez baizik hunkia izan ; eztut sendimenik baizik, eta enezakete gehiago horietarik baizik bihotzminak eta atseginak behere huntan hunki. Inguratzen nauten gauza goxagarriek erakharririk, urkusten ditut, haier beha nago, gombaratzen ditut,

azkenean haien lerrokatzen ikasten dut, eta horra nun nizan bapatez haren maitatzeko arrazoin berri batzuen ethengabe edireiteko baizik naturaleza ikertu nahi eztuenak izan behar duen bezain landarekin.

Eztut ikastea bilatzen : berantegi da. Bertzela ere nehoiz eztut ikusi hoinbertze jakitatek biziko zorionari zerbait ekhartzen daukola. Baina nekerik gabe goza dezazketan eta ene zorigaitzetarik bazter nezaketen jostagailu ezti eta laño batzu neure buruari eman bila nabil. Eztut gasturik egiteko ez nekerik hartzeko axolagabea belarretik belarrera ibiliz, landaretik landarera, hauen ikertzen, dituzten berezitasun guzien erkidatzen, elgarren egite 'ta ezberdintasunen marratzen, azkenik landaretako antolamenduari ohartzen mekanika bizidun horien ibilararen eta jokoaren ikusteko moldez, dituzten lege orotakoen, egitura guzien arrazoinaren eta helburuaren bilatzen batzuetan ondorio onarekin, eta hortaz guziaz goza-arazten nauen eskuarendako miresmen eskerdun bateko atseginari joaitera neure buruaren uzten.

Badiduri landareak nasaiki lurraren gainean ereinak direla, izarrak zeruan bezala, gizonaren gomitatzeko atseginaren eta ikusi-nahiaren erakharpeneren bidez naturalezaren ikaskuntzara ; baina izarrak gutarik urrun ezarriak dira : behar dituzte ezagutza bereziak, tresnak, mekanikak, zurubi ontsa luzeak hetara heltzeko eta gure heinera haien ekhartzeko. Landareak berenaz hemen dira. Gure oinetan sortzen dira, eta hala erraiteko gure eskuetan, eta dituzten zati nagusien xipitasunak ikuspen xoiletik gordetzen baldin badauzku batzuetan, hartara berriz emaiten dituzten tresnak izargintzakoak baino biziki erabil errexagoak dira. Landaregintza astia duen eta bakartu auher baten ikaskuntza da. Badabila, badoa libroki gauza batetik bertzera, lili bakoitzaren ikertzea atseginekin eta jakin-nahiarekin egiten du, eta haien egiturako legen ezagutzen hasten deneko, haien ikertzen hartzen du nekerik gabeko atsegin bat ainitz gostatzen balizako bezain bizia.

Bada astizko lan hortan tirrien jabaldura osoan baizik senditzen ezten goxatasun bat baina biziaren zoriondun eta ezti bilakatzeko bakarrik aski dena ; baina abantail-nahizko edo handieriazko arrazoin bat nahasten zakon orduko, ala leku batzuen betetzeko ala liburu egiteko, erakasteko baizik ikasi nahi ezteneko, landare biltzea idazle ala erekasle bilakatzeko baizik egiten eztenean, goxo hori guzia ezeztatzen da, ezta gehiago landaretan gure tirrietako tresna batzu baizik ikusten, haien ikertzen egiazko atseginik ezta gehiago aurkitzen, ezta gehiago jakin nahi dena baina jakina dena erakutsi nahi, eta oihanetan ezta munduaren antzokian baizik izaiten, nor bere buruaren mirets-arazteaz hartua ; edo gabineteko landaregintzan

mugatuz edo gehien-gehienik baratzekoan, landaren ikusteko orde naturalezan, ezta gehiago sistima eta eginaraz baizik hartua izaiten ; betiereko aharra gai, eztuelarik landare bakar bat gehiago ezagun-arazten eta ixtorio naturalari eta landaretako motari zinezko argirik batere emaiten. Hortik herrak, bekaizkeriak, aipamenerako burkidetzak landarekinen baitan sustatzen dituenak bertze jakintsunen artean bezenbat edo gehiago. Ikaskuntza maitagarri hori itsustuz, hirien eta akademien erdira ekhartzen dute han ezpaita afizionatuen baratzetan landare arrotzak baino gutiago andeatzen.

Gogo molde ontsa ezberdin batzuek egin dute enetako ikaskuntza hortaz halako tirria bat gehiago eztitutan guzien hutsa betetzen duena. Igaiten ditut harrokak, mendiak, ibarretan barna sartzen niz, oihanetan, ahal bezainbat gizonen orhoitzapenetik eta gaixtoen menetik ihes egiteko. Badidurit oihan baten itzalpetan ahatzia nizala, gehiago etsairik ezpanu bezala libro eta bakean, edo zuhatzen orstailak haien ukaldietarik geriza nindezakeela, ene orhoitzapenetik urruntzen dituen bezala, eta uste dut ene zozoan hetaz ez gehiago gogoetatuz enutela ere gogoan ukanen. Lilluramen hortan halako eztitasuna edireiten dut nun oso-osoa hortara eman bainezake, ene izanarak, ahultasunak eta beharrek haizu uzten balautate. Gehiago da orduan bizi nizan bakartasuna barnatua, are gehiago niz huts hura bete dezan zerbaiten beharretan, eta ene idurimenak emaiten eztauztan edo orhoitak urruntzen dauztanak ordainduak dira lurak, gizonak bortxatu gabe, alde orotan ene begier eskaintzen dezteenez. Landare berri batzuen bila desertu batera joaitako atseginak asaldatazaler ihes egitekoa gaintitzen du ; eta gizon hatzik batere aurkitzen ez tutan lekuetan, errexago hats hartzen dut haien herra jarraikitzen etzatan gerizagune batean bezala.

Bizi guzian orhoituko niz egun batez Clerc justizialariaren mendia den Robaila-ko aldera egin nuen belar biltze batez. Bakarrik nintzan, mendiaren arteka gunetan barna sartu, eta oihanez oihan, harrokaz harroka, heldu nintzan zoko hain gorde batetara nun ezpaitut bizian itxura basagorik ikusi. Izai beltz batzuek gaitzeko phago batzuer nahasiak, batzuek, zahartasunez eroriak eta batzu bertzer artekatuak, zoko hori ezin sartzeko moldez hesten baitzuten ; inguru ilun horrek uzten zituen arte batzuek etzuten haratago eskaintzen sabelaz lurrera etzanik baizik so egitera menturatzen enindauen harroka zut-zuta moztu eta leze laztagarririk baizik. Dukeak, kahekak eta huntzak bere garrasia entzun-arazten zuten mendiaren arteketan, xori ttipi bekan baina etxekotu batzuek arintzen zutelarik bizkitartean bakartasun hortako lazta. Hor aurkitu nituen *dentaire heptaphyllos*, *cyclamen*, *nidus avis*,

laccerpitium handia eta loriatu eta luzaz jostatu ninduten bertze landare batzu. Baina emeki gauzen ikuspenaren indarrak harturik, belargintza eta landareak ahatzi nituen, *lycopodium* eta goroldio buhurdiko batzuetan jarri nintzan, eta goxokiago ametsari eman hortik jazarlek atherako eninduten eta mundu guziaz ez ezaguna zen gerizaleku batean nintzala gogoratuz. Urguluzko olde bat nahasi zen berehala ametseria horri. Neure burua erkidatzen nuen irla huts bat aurkitzen duten bidari handiekin, eta banion neure burua lausengatuz : hunarano sartu den lehenbiziko jendea nizateke ; ikusten nintzan abantzu bertze Colomb bat bezala. Ideia hortan hantua nindabilala, nitarik ez urrun entzun nuen ezagutzen nuela uste ukan nuen kilixka bat ; beharria emaiten dut : harrabots bera errepikatzen da eta gehitzen. Ustegabetua eta jakin-nahia zutitzen niz, berro sarri batean hara banoa horrabotsa heldu zen aldera, eta naba batean, lehenbizikorik hara heldua nintzala uste nuen leku beretik hogeit urratsetan, galtzerdi landegi bat ikusten dut.

Aurkitze hortan bihotzean senditu nuen molde orotako nahasmen bizia enezake erran. Lehenik ukan nuena bozkariozko sendimendu bat izan zen gizakien erdian aurkituz osoki bakarrik nintzala uste nuen lekuan. Baina zimizta baino lasterragoko olde horrek lekua berehala utzi zaukon bihotzminezko sendimendu iraunkorrago bati, nola enezakeen Alpetako harpetan beretan ene gaizki erabiltzera amorratuak ziren gizonen esku abretarik ihes egin. Segur-segurra bainintzan etzirela behar bada landegi hortan bi gizon Montmollin pheredikaria buruzagi egina zen zimarkuan, eta lehenbiziko arrazoinak urrunagotik hartzen zituenean jakinak etzirenak (***) .

Baina nork zuen bada nehoiz uste ukanen erroitz batean landegi bat aurkituko zuela. Ezta munduan Suiza baizik basa-naturaleza eta giza-industriako nahasketa hori eskain dezakeenik. Suiza osoa ezta, hala erraiteko, hiri handi bat baizik, haren karrika Parisen San-Antoniokoa baino zabal eta luzeagoak oihanez ihaurtuak baitira, mendiez moztuak, hartako etxe banakatu eta bakartiek ezpaitute elgarrekin harremanik baratze angeles batzuen bidez baizik. Hortan bertze landare biltzeko aldi batez orhoitu nintzan, Du Peyrou, d'Escherny, Pury koronelak, Clerc justiziariak eta nik zuela zenbait dembora Chasseron-go mendian egina ginuenaz, haren gaineratik ikusten baitira zazpi aintzira. Erran zaukuten etzela mendi hortan etxe bakar bat baizik, eta ezkinuen segurki han bizi zenaren ofizioa asmatuko, gaineratu ezpalaukute liburuzain bat zela, eta bere irabaziak herrian biziki ontsa egiten zituela ere. Badidurit mota hortako egintza bakar batek bidarien erakusketa guziek baino hobeki ezagun-arazten duela Suiza.

Huna bertze bat sail berekoa edo nunbait han, jendalde biziki ezberdin bat eztuena gutiago ezagun-arazten. Grenoble-en egon nintzanean belar biltze ttipi batzu egiten nituen hiritik kampo Bovier jaunarekin, herrialde hortako abokata ; ez landaregintza maite ez jakina zuelakotz, baina ene besoko begiralea bilakaturik, urrats batez ene ez uzteaz lege bat egina baitzuen. Egun batez Isère-ko bazterrean ginabilan sarats elhorridunez betea den lekuan. Zuhaxka horietan fruitu zohituak ikusi nituen, jastatzeko gutizia ukan nuen, eta xamintasun biziki goxagarri bat aurkituz, frexkatzeko bihika hetarik jaten hasi nintzan ; Bovier jauna ene sahetsean zagon nik bezala egin gabe 'ta ixilik. Haren adixkidetarik bat ethorri zen, bihika hetarik ahoan ikusiz erran baitzautan : « He ! jauna, zer ari zira hor ? Fruitu horrek pozoindatzen duela eztaizua ? – Fruitu hunek pozoindatzen ? – Dudarik gabe, egin zuen berriz ; eta jende guziak hori hain ontsa badaki nun herrian ehor ezpaita jastatzera menturatzen. » Bovier jaunari so egin naukon eta erran : « Zergatik enauzu bada abisatu ? – Ha ! jauna, ihardetsi zautan doinu errespetudun batekin, enintzan libertate horren hartzera menturatzen. » Irriz hasi nintzan lañotasun delfinatar hortaz, ene aphairu ttipia hautsiz hala ere. Segur nintzan, oraino hala nizan bezala, naturako ekoizpen gostura gozagarri bat ezin daitekeela kaltegarri izan gorputzarendako edo bederen eztela hala sobera hartzetik baizik. Aithor dut bizkitartean neure buruari behatu naukola egunaren gainerateko guzian : baina khexu apur batekin kitto izan nintzan ; auharia biziki ontsa egin nuen, hobeki lo egin, eta goizean osagarri osoan jeiki nintzan, bezperan *hippophae* izigarri hartarik hamabortz edo hoge bihika janik, izari biziki ttipian pozoindatzen duelarik, biharamunean Grenoble-en jende guziak erran zautanaz. Gertakari hori hain atsegingarri iduritu zizatan nun ehoiz ezpaitzata irri egin gabe Bovier jaun abokataren ixila gogoratzen.

Ene landaregintzako itzuli guziek, oharra jo dautaten gauzen lekuko iduripen guziek, sorr-arazi dauztan gogamen guziek, hetan nahasi diren gertakariak, horiek guziek sendimen batzu utzi dauztate leku horietan beretan bilduak diren landaren ikusteaz berritzen baitira. Eskualde eder horiek eztitut berriz ikusiko, oihan, aintzira, xara, harroka, mendi, haien itxurak bihotza beti hunki baitauta : baina orai leku zorionezko horietan ezin ibil naitekeelarik, ene belar bildumaren idekitzea aski zata eta berriz hetara banerama. Han bildu ditutan landarekiak aski ditut ikusgarri handizki egin hartaz orhoitzeko. Belar bilduma hori belargintzako aldien egunkari bat da enetako, goxatsun berri batekin berriz has-arazten

dauzkitana, ene begietara berriz ere marra lezazkeen ikusteko tresna baten ondorioa emaiten dautana.

Bazterreko gogoeten gatinak nau landaregintzari atxikitzen. Biltzen ditu eta ene idurimenari orhoit-arazten dauzko oraino lausengatzen duten gogamen guziak. Phentzeak, urak, oihanak, bakartasuna, bakea oroz gainetik eta horren guziaren erdian edireiten den atsedena ethengabe ene orhoitean berriz marratzen ditu. Gizonen jazarmenak, haien herra, haien gaitzesmena, haien laidoak ahatz-arazten dauzta, eta haiendako nuen atxikimendu samur eta zintzoaren ordainez egin dauztaten gaitz guziak. Egoitza baketsu batzuetara banerama lehen haiekin bizi izana nizan bezalako jende laño eta on batzuen artera. Orhoit-arazten dauzta bai haurzaroa bai ene atsegin ogengabeak, berriz ere hetaz goza-arazten nau, eta oraino ainitzetan zoriondun egiten ehoiz hilkor batek jasan duen izanara trixtenean.

(*) Adin hortara Rousseau 1777-ko uztailean heldua zen. (Itzultzalearen oharra)

(**) Linné-ren landaretzetako lana Murray-k agertua zuen 1774-an, izenburu horrekilako aitzin-solas batekin. (Itzultzalearen oharra)

(***) Montmollin aphez protestantaren pheredikuek zuten Môtiers-ko jendea Rousseau-ren harrikatzera sustatu 1765-ean. Ikus Ibilaldi borzkarrena. (Itzultzalearen oharra)

IBILALDI ZORTZIGARRENA

Biziko gertaldi guzietan ene arimak ukanak dituen izanarez gogoetatzean, ezin gehiago ustegabetua niz ene zoriaren molde ezberdinak eta hetaz hunkiak diren gaitzeko edo oneko sendimendu ohikoak hoin guti arautuak ikusiz. Ene joritasun laburren artegune guziek hunki nauten ara min eta iraunkorraren orhoitzapen gozagarririk abantzu batere eztautate utzi, eta aldiz, ene biziko nahigabe guzietan sendi nintzan beti sendimendu samur, hunkigarri, goxoenez betea, ene bihotz joaren zaurietara gantzugailu sendagarri bat ixuriz, iduri baitzuten oinazea atseginera aldatzen zutela, eta haien orhoitzapen maitagarria itzultzen baitzata bakarrik, aldi berean sendi nituen gaitzez garbiturik. Badidurit bizitzearen ezta gehiago dutala senditu, zinez gehiago bizi izana nizala, ene sendimenduak, hala erraiteko, bihotzaren inguruan ene zoriak tinkaturik, etzirenean kampa gizonen estimuan diren gauza guzietara airatzen, hain guti baitute hori berenaz merezi, eta zorionean uste diren jenden egiteko bakarria baitagite.

Oro ene inguruan ordenuan zenean, inguratzen ninduen guziaz eta hartan bizi behar nuen munduaz askietsia nintzanean, guzia ene sendimenduz betetzen nuen. Ene arima ixurkoia bertze gauza batzuetara hedatzen zen, eta ethengabe neure baitarik urrun eremana mila motako gostuez, bihotza ethengabe hartzen zautaten atxikimendu maitagarriez, neure burua ahazten nuen zerbait moldez, oso-osea arrotz zizatanean nindagon eta bihotzeko nahasmen jarraikian, giza-gauzetako gora-behera guziak sendi nituen. Bizi harrabostun horrek etzautan uzten ez bakerik barnean ez atsedetik kampoan. Itxuraz zorionean, enuen sendimendu bat gogamenaren indarra jasan zezakeenik eta hartan zinez laketa nindaitekeenik. Enintzan ehoiz osoki askietsia ez bertzetaz ez nitaz. Munduko harramantzak burxoratzen ninduen, bakartasunak aspertzen, beti banuen lekuz aldatzeko beharra eta nihun enintzan ontsa. Ospatua nintzan alta, ontsa nahitua, ontsa hartua, orotan lausengatua. Etsai bat enuen, ez gaitzerraile bat, ez bekaizti bat. Ezpaitzen eni zerbitzu emaita baizik bilatzen, banuen nihaurek ere ainitzetan jende ainitzi zerbitzu emaitako atsegina ; eta, ontasunik gabe, ofiziorik gabe, gerizatzalerik gabe, antze ontsa hedaturik ez ontsa ezagunik gabe, horri guziari lotu abantail guziez gozatzen nintzan, eta nehor enuen edozein lerrotan ikusten haren zoria eneari

hautesgarri iduritzen zizatanik. Zerk huts egiten zautan beraz zorionean izaiteko ? Eztakit ; baina hala enintzala ba.

Zer dur eskas gaurregun hilkorretan den zorigaitzekoarenaren izaiteko ? Gizonek hortako beretik ezarri dutenetik jeus ez. Alta, izanara deitoragarri huntan enuke izaitetz eta zoriz haien arteko zoridunenarekin aldatu nahi, eta nahiago dut oraino ene miseria guzian nihaur izan hetarik bat bere zorion guzian baino. Ni bakar huntara hertsitua, alhatzen niz, egia da, nihauren mamiaz, baina ezta agortzen eta nihaur aski niz, hausnaurrian hala erraiteko hutsean ari nizan eta ene idurimen agortuak eta gogoeta iraungiek eztautaten gehiago ene bihotzaren arauko janaririk emaiten. Ene arima ilundua, soinez trabatua, egunetik egunera beheiti ari da eta zama dorpe horien azpian eztu lehen bezala bere azal zaharretik oldez airatzeko indarrik aski.

Gure baitara itzultze hortara gitu nahigabeak bortxatzen, eta hori da behar bada gizon gehienendako ezin jasanena egiten duena. Nik eztutalarik neure buruaren erasiatze huts batzu baizik edireiten, salatzen dut ene ahulezia eta konsolatzen niz ; ezpaitzen aitzinetik gaizki deliberaturik ene bihotzera behin ere hurbildu.

Bizkitartean zozo ez izaitekotz, nola beha ephe batez ene egonarari egina duten bezain laztagarria dela ikusi gabe, eta oinazez eta etsipenez hil gabe ? Hortik urrun, ni izaitetan sendikorrena, beha nagoko eta eniz hunkia ; eta neure burua gudukatu gabe, bortxatu gabe, ikusten niz abantzu axolarik gabe bertze gizon edozeinek behar bada laztarik gabe haren itxura jasan elezakeen izanaran.

Nola niz hortaratu? Ezen gogo baketi huntarik ontsa urrun nintzan ohartu gabeen aspaldi danik hartan estekatua nintzan zimarkuaz ukan nuen lehenbiziko aieruan. Aurkitze berri horrek uzkaile ninduen. Itsuskeriak eta traditzeak ustegabetarik hatzeman ninduten. Zein arima zuzena da mota hortako nahigabetara prestatua ! aitzinetik ikusteko merezituak izan behar lukete. Aitzinean zilatu zauztagen trampa guzietara erori nintzan, sumindura, haserrea, zoroa nitaz jabetu ziren, burua galdu nuen, nahasi zizatan, eta hetan gelditu gabe murgildurik atxiki nauten ilunbe lazkarrietan, enuen gehiago ikusi ez argirik ene bidatzeko, ez hetan bermurik egon nindaitekeen eta neraman etsipenari iharduk nezokeen laguntzarik eta lokailurik gehiago ikusi gabe.

Nola bizi zorionean eta gostura izanara izigarri hortan ? Alta hor niz oraino eta nehoiz baino sartuagoa, eta jabaldura eta bakea aurkitu ditut, gostura eta zorionean bizi niz, eta irriz nago ene asalatzalek ethengabe bere buruari debaldetan

emaiten dituzten neke ezin sinetsiez, ni bakean nagolarik, lorez, zukunez eta haurkeriez hartua, eta hetaz orhoitu ere gabe.

Gogoz aldatze hori nola egin da ? Naturalki, ohartu gabe 'ta nekerik gabe. Lehenbiziko ustekabetzea izigarria izan zen. Nik, maitasun eta estimuaren gai sendi nintzana, ohoratua uste nintzana, merezi nuen bezala maitatua, ikusi nuen bapatez neure burua behin ere izan etzen bezalako mustro izigarri itsusi batera aldatua. Badakusat gizaldi oso bat aburu bitxi hortara guzia laster egiten, argipenik gabe, dudarik gabe, ahalgerik gabe, eta nihaur itzultze bitxi hori egiten zuenaren bederen jakitera behin ere heldu ahal izan gabe. Bortizki ihardoki nuen eta enuen neure burua hobeki esteka-arazi baizik. Nahi ukan nituen ene asaldatzaleak enekin argitzera bortxatu ; etzauden hortan. Ondoriorik gabe luzaz oinazkatu eta, hats hartu behar izan zen bada. Esperanza beti banuen alta ; banion neure buruari : hoin itsutze zozoa, hoin aitzin aburu arrazoin gabea, ezin daiteke jende guzira heda. Badira erokeria hortan barne eztiren gionak ; badira zimarkua eta traditzaleak hastio dituzten arima zuzenak. Bila dezagun, behar bada azkenean gizon bat bederen aurkituko dut ; aurkitzen badut, galduak dira. Debaldetan bilatu dut, eztut aurkitu. Batasuna orotakoa da, berexkuntzarik gabea, itzultzerik gabea, eta segur niz egunak bahitze izigarri huntan bururatuko ditutala, mitxerio hau behin ere zilatu gabe.

Izanara lastimagarri hortan ditut, antsia luze batzuen ondotik, ene zoria izan behar zuela iduri zuen etsipenaren orde, gogo jabaldura, sosegua, bakea, zoriona bera berraurkitu, biziko egun bakoitzak bezperakoaz atseginekin orhoit-arazten nauenez geroz, eta biharamuneko bertzerik gutiziatzen eztutanaz geroz.

Ezberdintasun hori nundik dator ? Gauza bakar batetik. Beharraren uztarriaren jasaiten ikasi baitut murmurikatu gabe. Oraino mila gauzari atxikia izaitera bortxatzen nintzalarik eta esteka horiek guziek bat bertzearen ondotik ihes eginik, ni bakar huntara hertsatua, ene hokia berriz hartu dut azkenean. Alde orotarik hertsatua, banago heinean jeusi ez lotuz ezpainiz neure baitan baizik bermatzen.

Jendearen aburuari hainbertze suhartasunekin jazartzen nindakonean, oraino haren uztarri-pean nindagon ohartu gabe. Estimutzen diren jendez estimatua izan nahi da, eta gizonez edo bederen gizon zenbaitez abantailgarriki jujatu ahal nueno, etzaitzkeen nitaz egiten zituzten jujamenduak ezpaikoak izan enetako. Banakusan jendearen jujamenduak ainitzetan zuzenak direla ; baina zuzentasun hori bera halabeharraren ondorioa zela enuen ikusten, gizonek bere aburuak hetan jartzen dituzten erregelak eztirela emaiten dituzten

tirrietaryk edo aitzin-gogoetetaryk hartuak baizik , eta zuzen jujatzen dutenean berean ere, oraino ainitzetan jujamendu on horiek hastapen gaixto batetik sortzen direla, hala nola ukan den ondorio on zenbaitetan gizon baten mereximendua alegia ohoratzen dutenean, ez zuzentasuneko gogoz, baina bere buruari itxura alderdigabe baten emaiteko gizon beraz bertze gai batzuetan nahitara gaitzerranez.

Baina, bilatze luze ' ta debaldeko batzuen ondotik, ikusi nituenean guziak bat baztertu gabe ifernuko izpiritu batek azma zezakeen sistima zuzengaitz eta arrazoinik gabekoenean egoiten ; ikusi nuenean gizaldi erotu bat oso osoan bere bidarien haserre itsuari emaiten, gaitzik nehoi behin ere ez nahi ukan ez egin zuen zorigaitzeko bati jaukitzeko ; gizon bat debaldetan bilaturik ene esku-argia iraungi behar ukan nuenean erranez : « gehiago ezta ! » ; orduan hasi nintzan lurrean bakarrik nintzala ikusten, eta hartu nuen ene arokideak etzirela ene aldera oldez baizik ari etziren izaite mekanika batzu baizik eta haien egintza enezakeela mogimenduaren legetarik baizik izer. Zein ere xede, zein ere tirria uste ukana ahal nezan haien arimetan, nehoiz etzuten entzun nezakeen moldez argitu ahalko ene aldera zuten eginara. Horrela ziren haien baitako sendimenduak enetako zerbait izaitetik gelditu ; hetan enuen gehiago ikusi ezberdinki higitzen ziren gauza andana bat baizik, ene alderako zuzentasun oroz gabetua.

Gertatzen zauzkun gaitz guzietan, ondorioari baino gehiago xedeari dugu behatzen. Hegaztegi batetik erortzen den teila batek zauri gitzaizke xede gaixtoko esku batez egotzia den harri batek baino gehiago baina ez hunek bezenbat hunki. Ukaldiak huts egiten du batzuetan baina xedeak ez behin ere. Egiatzko oinazea gutienik sendi dena da zoriaren ausikietan, eta zorigaiztunek bere zorigaitzez nori lot eztakitenean halabeharrari lotzen zazko persona bilakatzen dutela eta begiak eta adimendu bat emaiten dauzkotela espesuki haien oinazkatzeko. Horrela da jokolari bat bere galtzez asperturik sumintzen noren kontra jakin gabe. Haren oinazkatzera espesuki hisitzen den zori bat asmatzen du, eta bere haserrearen janari bat aurkituz, berak eginak duen etsaiaren kontra phizten da eta sutzen. Gizon zuhurrak, ezpaitu heldu zazkon zorigaitz guzietan halabehar itsuaren ukaldirik baizik ikusten, zentzu gabeko nahasmendu horietarik eztu ; bere oinazean oihu egiten du baina erotu gabe, haserrerik gabe ; eztu haren aztaparretan dela sendi duen gaitzetik oinaze egiatzkoa baizik ikusten, eta ukaiten dituen ukaldiek bera oinazka dezakete, bat etzako bihotzerano heltzen.

Hortara heldua izaitea ainitz da baina hortan gelditzen baldin bada ezta guzia egina. Gaitza moztua da bada, baina erroa utzia. Ezen erro hori ezta

arrotzak zauzkun izaitetan, gure baitan berean da eta hor da haren osoki atheratzeko lan egin behar. Horra zer nuen beteginki senditu neure baitaratzen hasi nintzaneko. Arrazoinak ezpaitzautan arrazoingaberik baizik erakusten gertatzen zautanari emaitako bilatzen nituen argibide guzietan, hartu nuen horren guziaren egilek, tresnek, arartekoek nitaz ezezagunak eta ezin argituak izanez, enetako ezteus izan behar zutela ; ene zoriko xehetasun guziak ikusi behar nituela halabehar hutsaren egintza batzu bezala hetan norapiderik, xederik, ez arrazoin moralik bazela uste ukan behar gabe ; arrazoinkatu eta ikardoki gabe onhartu behar zela hori debaldekoa izanen zelakotz ; eta oraino lurrean egiteko gelditzen zizatan guzia neure buruaren ikustea zela izaite osoki jasaile bat bezala, enuela jasaiteko gelditzen zizatan indar guzia ene zoriari auherretan ihardokitzean higitu behar. Horra zer nion neure baitan. Arrazoinak, bihotzak hori baieztatzen zautaten eta hala ere sendi nuen oraino bihotz hau murmurikan. Murmurika hori nundik zetorren? Bilatu nuen, aurkitu ; neure alderako maitasunetik heldu zen, gizonen kontra sumindurik arrazoinari jaukitzen baitzizakon oraino.

Aurkitze hori etzen uste lizatekeen bezain egin errexa, ezen asaldatua den ogengabe batek luzaz zuzenbidearen maitasun hutsarendako hartzen du bere nor xipiaren urgulua. Baina ere egiazko ithurburua behin ezagutuaz geroz agor edo bederen itzul errexa da. Nor beraren amodioa arima urgioen eremaile handiena da ; nor beraren estimu hori, lilluraz emankor, itxuraldatzen da eta bere burua estimu horrendako harr-arazten du ; baina baira azkenean agertzen denean eta burgoitasuna ezin daitekeenean gorde, ordutik beldurtzekorik eztu eta nahiz nekez ithotzen den errex menperatzen da bederen.

Enuen ehoiz urgoitasunerako ixuririk ainitz ukan ; baina tirria hutsal hori berotua zizatan munduan, eta gehienik idazle izan nintzanean ; bertze batek baino gutiago banukeen ere, banuen handizki. Ukan ditutan ikastaldi izigarriek bere lehenbiziko mugetan laster hetsi dute ; zuzengabearen kontra jazartzen hasi zen baina gutietsi du azkenean. Neure arimara bilduz eta garratz egiten duten kampoko harremanak moztuz, gomparatze 'ta hautesteak bazterrera utziz, aski ukan du neuretako on izan nindadin ; orduan berriz neure alderako amodio bilakatuz naturalezaren ordenuan sartu da eta jenden aburuaren uztarritik arindu nau.

Ordutik arimako bakea berraurkitu dut et' abantzu zoriona. Zein ere egonaratan gerta dadin norbait, ezta hartaz baizik ethengabe zorigaitzean izaiten. Ixiltzen denean eta arrazoina mintzatzen, hunek azkenean konsolatzen gitu haien baztertzea gure menean izana ezten gaitz guzietarik. Ezteuseratzen ditu ere gure

baitan arartekorik gabeko eraginik eztuten bezenbatean, hetaz axolatzetik geldituz haien ukaldi bizien bazterteaz segur delakotz. Hetaz orhoitzen eztenarendako jeus eztira. Laidoak, mendekioak, bidegabeak, irainak, zuzengaitzak, jeus eztira jasaiten dituen gaitzetan gaitza baizik ikusten eztuenarendako eta ez xedea, bere estimuan badadukan lekua bertzek eman nahi daukotenaren meneko eztenarendako. Gizonek zein moldetan ikusi nahi banaute ere, elezakete ene izaitea alda, eta duten botherearen eta azpikeria guzien gatik, jarraikiko niz, zer ere egin dezaten, haien gatik, nizan hunen izaiten. Egia da ene aldera dituzten gogoek bere eragina badutela ene egiazko izanaran, haien eta ene artean ezarria duten zedeak ene zaharraroko beharretan bizipideko eta laguntzako atherabide oro ekhentzen dautala. Dirua bera debaldeko egiten dauta, behar ditutan zerbitzuak ezin eman dezaztanaz geroz ; ezta gehiago haiekin eta enekin ez elgarren arteko harremanik ez laguntzarik, ez eta haien eta ene arteko berri emaiterik. Haien artean bakarrik, sokorririk eztut nihaur baizik, eta sokorri hori ontsa ahula da nizan adin eta izanaran. Gaitz horiek handiak dira, baina enetako indar guzia galdua dute horietaz sumindu gabe jasaiten ikasi dutanetik. Egiazko beharra sendi-arazten den uneak beti bekan dira. Aitzinera ikusteak eta idurimenak gehitzen dituzte, eta sendimenduetako jarraipen hortarik da nor bera khexatzen eta zorigaitzeko bilakatzen.

Ene aldetik, ontsa jakiten ahal dut bihar pairatu beharko dutala, egun ez oinazkatua izaitea aski zata gostura izaiteko. Eniz aitzinetik dakusatan gaitzaz hunkia izaiten baina bakarrik senditzen dutanaz, eta horrek biziki gauza gutira ttipitzen du. Bakarrik, eri eta ohe zokoan utzia, han gabeziaz, hotzez eta gosez hil naiteke, nehor hortaz penatu gabe. Baina zer axola, nihaur ezpaldin baniz hortaz penatzen eta ene zoriaz, zer bada ere, bertzeak bezain guti hunkia baldin baniz ? Jeus eztea, ene adinean oroz gaineretik, biziaren eta herioaren, eritasunaren eta osasunaren, loriaren eta laidoaren ikustea ezazoltasun berdinarekin ? Bertze zaharrak oro orotaz khexu dira ; ni eniz jeusetaz khexatzen, zer gerta dadin ere, oro berdin zata, eta berdintasun hori ezta ene zuhurtziaren lana, ene etsaiena da. Dikasagun bada abantail horien hartzen egiten dauztaten gaizkien ordainez. Nahigabeari soraio bilaka-araziz haren ukaldiak baztertu baldin balauztate baino ongi gehiago egina dautate. Nahigabea ez sendituz beti haren beldur ninzateke, menperatuz aldiz enaularik izitzen.

Izanara horrek, ene biziko atsekaben artean, ene jitezko axolagabeari uzten nau abantzu joritasun osoenean bizi baninz bezain beteki, gauzen hor izaiteaz khexu mingarrietara erakharria nizan ephe laburretarik hara. Gainerateko guzian,

ene ixurien bidez bereganatzen nauten atxikimenduetara utzia, bihotza oraino alha dut hetako sortua den sendimenduetan, eta hauetaz gozatzen niz egiten dituzten idurimenezko izaitekin, eta izaite horiek ere gozamen hortan barne dira egiazki balire bezala. Eginak ditutalakotz enetako izaitea badute eta eniz ez trahi nezaten ez utz nezaten beldur. Ene zorigaitzek berek bezenbat iraunen dute eta horien ahatz-arazteko aski izanen dira.

Orok itzul-arazten nau hartako jaioa nintzan bizi zorioneko eta eztira. Biziko hirur laurdenak iragaiten ditut, ala gauza ikaskarri eta ere gozagarriez hartua, izpiritua eta sentsuak atseginekin hetara emaiten ditutala, ala neure bihotzaren araura eginak ditutan eta haiekin egoiteak sendimenduak hazten dauzkon ene asmamenetako izaitekin, ala bakarrik nihaurekin, neure buruaz askietsia eta zor zatala sendi dutan zorionaz jadanik betea. Huntan guzian neure alderako amodioak du lan guzia egiten, urgoitasuna ezta jeusetan sartzen. Ezta gauza bera oraino gizonen artean iragaiten ditutan aldi trixtetan, haien phereku trahitzalen jostagailu, haien komplimendu hantu eta ezteusen, haien maltzurutasun zurien. Zer moldez ere jokatu ahal baniz urgoitasunak orduan bere jokoa egiten du. Azal arrunt hortan zehar haien bihotzetan ikusten ditutan herrak eta gorrotoak enea oinazez urratzen dute ; eta horrela zozoki enganatua izaiteko ideiak gaineratzen dauko oraino oinaze horri biziki haurkeriazkoa den sumindura bat, arrazoin gabe guzia ikusten daukotan burgoitasun zozo baten ondorioa, baina menpera eztezaketana. Behako laidagarri eta trufari horien aldera azkartzeko eginak ditutan indarrak ezin sinetsiak dira. Ehun aldiz ibilgune 'ta leku publiko erabilienetarik iragana niz jaukitze bortitz horier jartzeko xede bakarrarekin ; eniz bakarrik hortara ezin heldu, baina eniz oraino jeusetan aitzinatu, eta ene indar nekagarri eta ahul guziek utzi naute aitzinean bezain nahas, oinazka, sumin errex.

Zer ere egin ahal dezatan ene sentsuen menean izanez, behin ere eztut haien eraginer ihardokitzen jakin ahal ukan, eta gauzak haietan indar egiten dueno bihotza etzata hunkia izaitetik gelditzen ; baina hunkitze iragankor horiek eztute eman-arazten dituen sendimenak baino gehiago irauten. Gizon herradunaren hor izaiteak bortizki hunkitzen nau, baina itzaltzen deneko hunkimena gelditzen da; ikusten eztitutan orduan berean eniz hetaz gehiago gogutzen. Nitaz ariko dela jakin dezaket, enaiteke hartaz axola. Oraian sendi eztutan gaitzak enau edozein moldez hunkitzen, ikusten eztutan asaldatzalea jeus ezta enetako. Ene zoria menean dadukatener izanara horrek emaiten dauen abantaila sendi dut. Badadukatela bada

bere nahitara. Ihardokitzerik gabe oinazka nezaten nahiago dut ere haien ukaldietarik gerizatzeko haietaz gogatzera bortxatua izaitea baino.

Sentsuek ene bihotzean duten eragin hori da ene biziko oinaze bakarra. Nehor ikusten eztutan egunetan, eniz ene zoriaz gogutzen, eztut gehiago senditzen, ez gehiago sofritzen, zorionean niz eta bertzerik gabe, eragozpenik gabe askietsia. Baina bekan dut ukaldi sendigarri zenbait huts egiten, eta gutienik gogoan dutalarik, ohartzen nakon jestu bat, behako ilun bat, entzuten dutan hitz pozoindatu bat, aurkitzen dutan gaizki-nahi bat aski da ene nahasteko. Horrelako aldian badagiketan gauza bakarra laster ahaztea da eta ihes egitea. Bihotzeko nahasmena joaiten zata egina duen gauzarekin eta bakean sartzen niz bakarrik nizan orduko. Edo zerbaitek khexatzen baldin banau, bidenabar oinaze arrazoin berri zenbaiten aurkitzeko beldurra da. Hori da ene pena guzia ; baina zorionaren uhertzeko aski. Paris-eren erdian bizi niz. Etxetik atheratzean baserriaz eta bakartasunaz hasperenetan nago, baina bila hain urrun joan behar da nun gostura hats-hartu baino lehen aurkitzen baititut bihotza hertsatzen dautaten mila gauza, eta egunaren erdia antsietan iragaiten zata bila noan ihes-lekura heldu baino lehen. Zorionean, bidearen bururatzeraz uzten banaute bederen. Gaixtoen andanatik ihes egiten dutan ordua goxagarria da, eta neure burua zuhatzen, orstatzen erdian ikusten dutaneko, lurreko parabisuan nizala uste dut eta hartzen dut barneko atsegin bat gizonetan zoriondunena baninz bezain bizia.

Bete betean orhoit niz ene joritaldi laburretan, gaurregun hain goxagarri zoztan ibilaldi horiek berak gezak eta aspergarriak zizoztala. Baserrian norbaiten etxean nintzalarik, indar egiteko eta aire onaren hartzeko beharrak usu bakarrik jalgi-arazten ninduen, banindoan ohoin bat bezala parkean edo baserrian ibiltzera ; baina orai hartzen dutan bake zoriondunaren edireiteko orde, baneraman hara saloian gogoa atxikia zautaten gogamen hutsalen nahasmena ; han utzia nuen kompaniaren orhoita jarraitzen zizoztan, bakartasunean urgoitasunaren lanhoek eta munduko harramantzak histen zuten ene begietan xaretako hoxtura eta erretretako bakea uhertzen. Oihanen barnera ihes egin nezakeen, jendetze nardagarri bat jarraitzen zizoztan orotara eta naturaleza estaltzen zautan. Gizarteko tirrietarik eta haien ingurumen trixtetarik baztertua izan ondoan dut bakarrik bere lillura guziekin berraurkitu.

Lehenbiziko olde nahigabeko horien ezin atxikitzeaz segurtaturik, hortarako indar guziak utziak ditut. Ukaldi bakoitzean uzten dut odola sutzera, haserrea eta idurimena ene sentsuez jabetzera, lehenbiziko jauzte hori naturalezari

uzten daukot ene indar guziek ezpailezakete geldi ez hauts. Entsegu egiten dut bakarrik ondorio zenbait emana ukan dezan baino lehen geldi-arazteko. Begiak phindarretan, aurpegia sutan, zango-besoak ikharan, pilpira hats-behargarriak, hori oro fisika hutsari datxikako, eta arrazoinamenduak eztezake hor jeus egin ; baina jiteari bere lehenbiziko jauztearen egitea utzirik, nor beraren jabe bilaka daiteke apurka apurka bere baitaratuz ; horren egitera dut indar egin luzaz ondoriorik gabe, baina askenean zorion gehiagorekin. Eta ene indarra ihardokitze debaldeko batean erabiltzetik geldituz, garhaitzeko orduaren beha nago arrazoina egitera utziz, ezpaitzata mintzo entzun-arazten ahal duenean baizik. Eta zer diot ondikotz ! ene arrazoina ? ogendun handi nintzateke irabazte horren ohorea hari utziz guti baita hortan barne. Oro berdin haize bortitz batek inharrosten duen jite aldakor batetik dator, baina haizeak ufatzen eztueneko jabalduran sartzen denetik Ene jite sutsuak nau inharrosten, ene jite axolagabeak ezitzen. Oraiko olde guzier amor emaiten dauet, ukaldi orok mogimendu bizi eta labor bat ekhartzen dauta ; ukaldirik ezten orduko, mogimendua gelditzen da, ekharria zautan jeusek ezin du neure baitan iraun. Fortunako gertakari guziek, gizonen zimarku guziek eragin guti dute horrela egina den gizon baten baitan. Bihotzmin iraunkor batzuek hunkia izaiteko, sendimenak behar luke ordu oroz berritu. Ezen arteak diren bezain labor izanik ere aski dira berriz neure baitara-arazteko. Gizonek nahi dutena niz ene sentsuetan eragina baduteno ; baina utzia nizan lehenbiziko unean naturalezak nahi ukana duena bilakatzen niz berriz : hortan da, nahi dena eginik ere, ene izanara iraunkorra eta ene zoria-gatik hartako moldatua nizala sendi dutan zorionaz gozaz arazten nauena. Izanara hori agertu dut ene ibialdiatarik batean. Hain ontsa zata egoki nun ezpaitut iraun dezan baizik gutiziatzen eta ezpainiz uhertua izan dadin baizik beldur. Gizonek egin dautaten gaitzak enau edozein moldez hunkitzen ; oraino egin ahal dezatenaren beldur bakarrak du ene nahasteko ahala ; baina sendimendu iraunkor batez hunki ahal nezaten lokunerik eztutela segurrean, haien zimarku guziez irri dagit eta hek izanik ere neure buruaz gozatzen niz.

IBILALDI BEDERATZIGARRENA

Zoriona izanara iraunkor bat da gizonarendako egina ez dela iduri duena. Lurrean oro betiereko gora-behera batean da ezere ezpaitezake molde iraunkorrik har. Oro aldatzen ari da gure inguruan. Guhaur aldatzen gira eta batek eztezake egun maite duena bihar maitatuko duela hitzeman. Horrela gure zorioneko xede guziak bizi huntan lilluramen batzu dira. Gogoko askiesteaz balia gaiten jiten denean; gure hutsaz haren urruntzetik begira gaiten, baina eztezagun haren estekatzeko xederik ukan, xede horiek erokeria hutsak baitira. Zorionean den gizon guti ikusi dut, behar bada batere ez; baina ainitzetan ikusi ditut bihotz askietsiak, eta hunki nauten gauza guzietan gehienik egin nauena nihaur gehienik askietsi nauena da: ene azaleko sendimenduetan sendimenek duten indarraren ondorio zuzena. Zorionak ez du iragarpen ageririk; badela ezagutzeko, gizon zoriondunaren bihotzean irakurri behar lizateke; baina askiestea begietan irakurtzen da, egon moldean, doinuan, ibilaran, eta badiduri ikusten duena ere hunkitzen duela. Jei egun batez jendalde oso bat zorionera emaiten ikustea baino gozamen eztiago bat badea, eta bihotz guzien ikustea, biziko hedoen artetik laster bizian diragan atseginaren arrai hedakorretan zabaltzen?

Badu hirur egun M. P. jin zizatala ohigabeko lehia batekin Alembert-ko Jaunak Geoffrin Andereaz egina duen laudorioaren erakustera. Irakurri aitzinean izan ziren irri karkaila luze 'ta handi batzu idazki hortako hitz berrikeria irrieginarriaz eta betea zela zion hitz joko jostagarriez. Irakurtzen hasi zen beti irria zariola, ez titu zuen seriositasun batekin entzun nuen, eta ikusiz hark bezala egin gabe nindagola beti, irri egitetik gelditu zen azkenean. Idazki hortako artikulua luze 'ta bereziena Geoffrin Andereak haurren ikustean eta haien mintza-araztean hartzen zuen atseginaz ari zen. Gostu hortarik idazleak ondorioztatzen zuen arrazoinekin jite on baten lekukotasuna zela. Baina etzen hortan gelditzen eta ixuri bera etzuten guziak jite gaixtoz eta gaizki egitez salatzen zituen, erraiterano hortaz galdezkatzen baldin baziren urkhabera edo errotara eremaiten direnak orok onhartuko zutela haurrak etzitzutela maite ukanak. Hitz horiek bitxi egiten zuten ziren lekuan. Hori guzia egia zela uste ukanez ere, erraiteko ordua zena eta emazte estimagarri baten laudorioa behar zena gaztigu bortitz eta gaixtagin marrazki batzuek zikindu? Errex hartu nuen joko itsusi horren arrazoina eta M.P.ek irakurtzea bururatua ukan

zuenean, laudorioan zer zizatan ontsa iduritua erranez, gaineratu nuen egileak izkiriartzean bazuela bihotzean adixkidetasun baino herra gehiago.

Biharamunean, aroa ederra izanez nahiz hotza, itzuli bat egin nuen Eskola-Militarrerano, goroldio batzu lili betean aurkituko nituelakoan. Joaitan, bezperako ikustaldiaz ametsetan nindagon eta Alembert-ko Jaunaren idazkiaz, uste bainuen arte-hitz hori etzela xederik gabe ezarririk izana; eta liburutto horren bereziki eni ekartzeko egintza bakarrak, oro gordetzen zatan huni, aski erakusten zautan arrazoina zein zen. Haurrak ezarriak nituen Haur-Aurkituetan; aski zen aita bihozgabe batetara ene aldatzeko, eta hortik, ideia hori hedatuz eta pherekatuz haurrak hastio nituelako ondorio garbira joana zen; gogoaz mailkatze horien gatinari jarraikitzean, miresten nuen zenbat antzerekin gizonen maleziak badakien zuritik beltzera gauzen itzultzen. Ezpaitut uste nehoiz gizon batek nik baino gehiago maitatu duela haurño horien ikustea elgarrekin irriz eta josteta, eta ainitzetan karrikan ala ibilaldietan gelditzen niz haien alaitasunari eta josteter so, nehorri ukaiten ikusten eztaukotan ohartasun batekin. M. P. ethorri zen egun hartan berean, haren ikustaldia baino oren bat lehenago, ukana nuen bi Soussoi ttipiena, ene ostatzalearen haur gaztenak, gehienak zazpi urte baitituzke; besarkatzera jinak zizatan hain gogo onez eta pherekuak hain samurki itzuliak nezteen nun adinen ezberditasuna izanik ere enekin zinez laket zirela iduri baitzuten, eta ene aldetik lorian nintzan ene begitarte zaharrak etzituela ohilduak ikusiz; ttipienak ere iduri zuen ene gana hain gogotik itzultzen zela nun, hek baino haurrago, sendi bainuen hari hautestez atxikitzen ari nintzala jadanik, eta joaiten ikusi nuen enea izana baliz bezenbat urrikirekin.

Har dezaket ene haurrak Haur-Aurkituetan ezarri ditutalako erasia errex gaiztu dela, itzuli apur batekin, aita gaixto izaiteko eta haurren hastiatzekora. Segur da bizkitartean haiendako zori mila aldiz gaitzagoak eta bertze bide oroz abantzu ezin hutseginak nauela gehienik urrats hortara deliberatu. Bilakatu behar zutenaz gutiago axolaturik eta nihaur haien hazteko heinean ez izanez, beharko nituen ene izanaran haztera gaizki eginen zituen bere amari utzi, edo mustro batzu bilakatuko zituen hunen familiari. Hori gogoratuz ikharan nago oraino. Mahomet-ek Seidez egin zuena jeus ezta ene aldera haietaz egina izanen zenaren ondoan eta hortan ondotik hedatuak izanak zizatan trampek hortako xedea ontsa moldatua zela aski baieztatzen dautate. Egia erran zimarku lazkarri horien aitzinera ikustetik ontsa urrun nintzan orduan: baina ikaskuntza haiendako lanjer gutienekoa Haur-Aurkituetakoa zela banakien eta han ezarri nituen. Berriz ere egin nezake ontsa duda

gutia gorekin ere gauza egitekoa baliz, eta ontsa badakit aita edozein eztela ni haiendako izanen nintzan baino samurrago, ohidurak naturaleza lagunduko zuen ber.

Giza-bihotzaren ezagutzan aitzinatze zenbait egin baldin badut, haur haien ikusten eta haier beha egoiten nuen atseginari zor daukot. Atsegin horrek berak, gaztaroan, halako traba bat ezarri dautu hortako, ezen haurrekin jostatzen nintzan hain alaiki eta hain gogo onez nun ezpaitzizatan batere haien ikertzea gogoratzen. Baina zahartzean ene aurpegi hebainak khexa-arazten zituela ikusiz haien nardatzetik elikatu niz, eta nahiago ukan dut haien bozkarioa uhertu baino atsegin batez gabetu; orduan haien josteta eta itzul-inguru xipier behatzeaz askietsia izanik, ene sakrifizioaren ordaina aurkitu dut ohartzeko horiek eman-arazi dautaten argietan, gure jakintsun guziek hetan jeusik ezagutzen ez tuten naturalezaren lehenbiziko eta egiazko urratsez. Ene idazkietan ezarria dut atseginekin ez egin ukaiteko ikertze hortaz artha soberarekin axolatua izan nitalako phorogua, eta munduan den gauza ezin sinetsiegia lizateke *Héloïse* eta *Emile* haurrak maite etzituen gizon baten lanak izan zaitezkeela.

Ehoiz enuen ukan ez gogoko ernetasunik ez mintzatzeko errextasunik; baina ene zorigaitzez geroz mihia eta burua gero eta gehiago dorpetuak zaza. Ideiak eta hitz zuzenak usu ihes egiten dautate, eta jeusek eztu behar haurrer emaiten diren solasek bezain ezagutza hobea eta itzuli zuzenagoen hautatzea. Traba hori nitan handitzen duena oraino, entzulen oharmena da, haurrendako espesuki izkiriatu duen baten ganik heldu den orori emaiten dauzkoten erran-nahiak eta phizua, uste baita etzauela pheredikuz baizik mintzaten. Eragozpen ezin handiago horrek eta nitan sendi dutan gai eskasak nahasten naute, balditzen eta Asiako errege baten aitzinean eras-arazi behar den haurño batenean baino ontsa errexkiago nintzateke.

Bertze behargabe batek banaduka orai hetarik urrunago, eta ene zorigaitzez geroztik beti atsegin berarekin ikusten ditut, baina ez tut gehiago haiekin etxekotasun bera. Haurrek ez tute zahartasuna maite, naturaleza hebainduaren ikustea itsusi da haiendako, hetan badakusatan higuntasunak erdiratzen nau; eta eragozpen edo narda eman baino nahiago dut haien pherekatzetik elikatu. Arima zinez maitariak baizik hunkitzen ez tituen arrazoin hori ez teus da gure dotore 'ta dotoresendako. Geoffrin Anderea haurrek harekin atsegin hartzen zutenez biziki eragozpen gutitan zen, berak haiekin hartzen zuen ber. Baina enetako atsegin hori ez teus baino gutiago da, uzitua ez tenean ezezkoa da, eta eniz gehiago haur baten

bihotz xipia enarekin zabaltzen zen izanaran ez adinean. Hori gerta ahal baladit oraino, bekanago bilakatu atsegin hori elizateke enetako biziagoa baizik, eta joan den goizean ontsa senditu nuen Soussoi xipien pherekatzean hartzen nuen gozoan, ez bakarrik ekhartzen zituen sehiak ezpaitzuen enetako larderia handirik eta neure buruari behatzeko beharra gutiago sendi nuelakotz haren aitzinean, baina ene gana jitean zuten itxura arraia ezpaitzuten utzi, eta enekin etzirela laket eta aspertzen zirela iduritu etzutelakotz.

Oi! Oraino ere baldin banitu bihotzetik heldu diren phereku garbi batzu oraino jaketaz jantzia lizatekeen haur baten ganik baizik ezpaliz ere, begi batzuetan ikus ahal banitza enekin izaiteko bozkarioa eta gozoa, lehenago hain usu ikusten nituenak, edo bederen nik eman araziko nituenak, zenbat gaitz eta bihotzminez enezakete ordain neure bihotzeko ixurtze labur eta ezti horiek? Ha! Enintzateke oraikotz gizakien artean emana etzatan ongi-nahizko soaren ihizietan bilatzera botxatua izanen. Hori behazun biziki gutien bidez dezaket estima baina beti bihotzera maitagarri izanen zagtanez.

Huna hemen bertze edozein izanaratan abantzu ahatzia ukanen nuen bat, neure baitan ukana duen ondoriak ene miseria guzia erakusten baitu. Duela bi urte ibiltzera Frantzia-Berriko (*) aldera joanik, urrunago aitzinatu nintzan, gero ezkerrera joanez eta Montmartre-ko ingurua egin nahiz, Clignancourt-eko herrixka iragan nuen. Banindoan ohargabeen eta ametsetan ene ingurura behatu gabe bapatez belhaunetarik hartzen senditu nintzanean. Behatzen dut eta borzpasei urteko haur bat ikusten belhaunak bere indar guziaz tinkatzen zauztala itxura hain etxekotu eta pherekariatz so eginez nun barnea hunkia ukan bainuen eta banion neure buruari: horrela nintzan izanen neurekin. Haurra besoetan hartu nuen, eta aldi bat baino gehiagotan apatu halako olde batean eta gero neure bideari jarraiki nintzan. Ibiltzean zerbaitek huts egiten zautala sendi nuen, sortzen ari zen behar batek gibelerara itzul-arazten ninduen. Neure burua erasiatzen nuen haur hura hain bapatean utzirik, haren egintza arrazoin ageri gabekoan, uste nuen gutietsi behar etzen dei bat ikusten nuela. Azkenean gutziari amor emanez, gibelerara itzultzen niz, haurraren gana laster egiten dut, berriz besarkatzen dut eta emaiten daukot opil xipi batzuen erostekoa saltzalea halabeharrez handik irraigaiten ari baitzen, eta hasten niz haurraren eras-arazten. Geldegin naukon aita nun zuen; erakutsi zautan dupa batzuen estekatzen. Haurraren uztera nindoan hari mintzatzera joaiteko, ikusi nuenean aurpegi gaixtoko gizon batek aitzinatua ninduela, beti ene hatzetan emanak diren salatari hetarik bat zela iduritu baitzizatan. Gizon hori beharrira mintzatzen ari

zizakon bitartean, ikusi nituen dupaginaren begiak ohartuki nitan gelditzen adixkidantzazkorik jeus etzuen itxura batekin. Gauza horrek bihotza ordu berean hertsatu zautan eta utzi nituen aita eta haurra gibelera itzultzeko emana nuen baino ere lehia gehiagorekin, baina ene xede guziak bertzelakatu zituen nahasmen gutiago gozagarri batean.

Aski usu berriz sortzen senditu ditut alta geroztik; aldi bat baino gehiagotan iragan niz Clignancourt-etik haur haren berrikusteko esperanza baino eztitut ikusi ez hura ez haren aita, eta etzaut aurkintza hortarik gelditu orhoitzapen aski bizi bat baizik eztitasunez eta bihotzminez nahasia, oraino ene bihotzerano zilatzen duten eta hau berriz hetsiz beti ihardokitze mingarri batetik bururatzen diren hunkimen guziak bezala.

Orok badu bere ordaina. Atseginak bekan eta labur baldin baditut jiten direnean ohikoak banitu baino bizitasun gehiagorekin hartzen ditut ere; orhoitze usuz, hala erraiteko, hetan hasnaurritan nago, eta bekanak izanik ere, hutsak eta nahasterik gabe balire ene joritaldian baino zorion gehiago banuke behar bada. Miseria gorrian gutirekin aberats izaiten da, eskudo bat edireiten duen erromesa molsa bat urre egiten duen aberatsa lizatekeen baino hunkiago da. Irri egin laiteke ene asaldatzalen begirantzari ebats dezazketan mota hortako atsegin den xipienek ariman egiten dautaten hunkitzea ikus baladi. Azkenetarik bat eskainia izan zizatan duela borzypsei urte, hartaz ezpainiz ehoiz orhoitzen hain ontsa baliaturik loriatua senditu gabe.

Joanak ginen igande batez, emaztea eta biak, Maillot Athe aldean bazkaltzera. Bazkal-eta Boulogne oihera zeharkatu ginuen Muetterano; hor sorotxan jarri ginen itzalean iguzkia jautsia izan zadin igurikatuz gero Passy-n gaindi emeki emeki itzultzeko. Hogei bat nexka ttipi serora iduri batek eremanak ethorri ziren, batzu jartzera bertzeak jostatzeraz gutarik aski hurbil. Jostatzen ari ziren bitartean gertatu zen olata saltzale bat iragan zela bere atabal eta itzulikariarekin, erosle eske. Nexkatoek olata gutizia handia zutela ikusi nuen eta hetarik bizpahirurek, ardit zenbait baitzuten iduriz, itzulikarian jokatzea galdegin zuten. Zaintzalea dudan baitzagon eta erasian olataria deitu nuen eta erran naukon: "Jokarazkitzu andereño horiek guziak bakoitza bere aldian eta guzia ordainduko dautut." Hitz horrek hedatu zuen multzo ttipi guzian bozkario bat ene molsa berak ordainduko baino gehiago baitzuen guzia hortan hustua ukan banu ere.

Ikusi bainuen desordenu zenbaitekin lehiatzen zirela, zaintzalearen baimenarekin oro alde batean lerroka-arazi nituen, eta gero jokatua zuten arau bertze

aldera iragan-arazi bat bertzearen ondotik. Nahiz billet xuririk etzen eta olata bat bederen bazen jeus atheratua etzutenetarik bakoitzarendako, eta hetarik bat etzaitkeen izan osoki gaitzitua, besta oraino alaiago egin beharrez, olatariari erran naukon segeretuki bere ohiko antzeaz balia zadin kontrako aldera ahalko zuen bezainbat jokotaldi on eror-araziz, eta ordainduko nuela. Artha horren bidez ehun bat olata hurbil banakatuak izan ziren, nahiz nexka bakoitzak etzuen aldi bakar baizik jokatzen, ezen hortan egon bainintzan gogorki, ez nahiz ez soberakeriarik lagundu ez gaitzi zezakeen hautesterik erakutsi. Ene emazteak jokotaldi onak atheraiak zituztener entzun-arazi zauen bere lagunekin uzi zitzaten, horren bidez uzitzea abantzu berdina bilakatu baitzen eta bozkarioa ororena.

Serora othoiztu nuen hark ere bere aldian joka zezan, ene eskaintza gutietsiko zuelako beldur azkar batekin; gogo onez onhartu zuen, nexkatoek bezala jokatu eta bertzerik gabe heldu zizakona hartu, ezin erranezko esker ona ukan bainuen harendako, eta hortan halako jendetasun bat senditu nuen biziki gustatu zizatana eta sinokeriena ontsa balio duena uste dutanaz. Egintza hortan guzian aharra batzu sortu ziren ene auzitegira ekharri zirenak, eta nexka ttipi hek bakoitza bere aldian arrazoinaren emaitera jinez eman zautaten, nahiz bat etzen pollitik, batzuen amultsutasunak zuten itsustasuna ahatz-arazten zuela ohartzeko aldia.

Elgarretarik berexi ginen azkenean batzu bertzez biziki askietsiak; eta arratsalde hura ene bizian gozotasun gehienarekin gogoratzen zatzanetarik bat izan zen. Besta etzen bertzela ere hondagarria izan, eta gehien gehienik hogeita hamar sos gusta zizatanarekin, izan zen ehun eskudoko bozkarioa. Bertze aldi batzuez leku berera oren berean itzuli niz, multzo xipiaren berraurkitzeko esperanza, baina ezta nehoiz gertatu.

Hunek orhoit-arazten dauta mota bertsuko bertze jostaldi bat haren orhoitzapena biziki urrunagotik gelditu baitzata. Aberatsen eta letretako jenden artera sarturik haien atsegin trixtetan barne nintzan aro zorigaitzekoetan zen. Chevrette-an nintzan etxeko nagusiaren besta egunetan (**). Haren familia guzia bestako bildua zen, eta atsegin harrabostunen ospe guzia hortako emana izan zen. Joko, ikusgarri, aphairu, su jauzte, jeus etzen ahatzi. Hats hartzeko astirik etzen eta burxoratzen zen jostatzeke orde. Bazkaldu eta ethorbidean aire hartzera joan zen. Bazen han halako feria bat. Jantzak emaiten ziren; jaunek onhartu zuten laborarisekin jantzatzea, baina Anderek bere lerroa atxiki.

Hor eztigosu batzu saltzen ziren. Kompainiako mutiko gazte batek nahi ukan zuen hetarik erosi jendaldearen erdira bat bertzearen ondotik botatzeko,

eta hainbat atsegin hartu zen ikusiz hetarik ukaiteko bilaun hek guziak lasterrez jiten, elgar joiten, aurdikitzen, nun guziek nahi ukan baitzuten atsegin bera hartu. Eta eztigosiak airera eskun eta ezker, eta nexkato eta mutiko lasterka, metatuz eta elgar zaurituz; hori jende guziari gozagarri iduritzen zizakon. Bertzek bezala egin nuen, ahalge gaixtoz, nahiz barnez enintzan hek bezainbat jostatzen. Baina jenden leherrazteko ene molsaren husteaz asperturik, kompainia ona hor utzi nuen eta joan nintzan bakarrik ferian ibiltzera. Gauza mota ezberdinek luzaz jostatu ninduten. Borzpasei Saboiar ikusi nituen bertzen artean bere sal-mahian oraino hamabi bat sagar txar bazituen nexka xipi baten inguruan gogotik saldu nahiko baitzituen. Saboiarrek bere aldetik hetaz gogotik arinduko zuten baina etzuten orok betan bizpahirur ardit baizik eta etzen sagarretan zilo handiaren egitekoa. Sal-mahi hori haiendako Hesperidetako baratzea zen, eta nexka xipia hura zaintzen zuen heren-sugea. Komedia horrek luzaz jostatu ninduen; bururapena egin nuen azkenean sagarrak nexkatoari ordainduz eta muttikoer banaka-araziz. Ukan nuen orduan gizon baten bihotza balaka dezakeen ikusgarri eztienetarik bat, bozkarioaren ikustea adineko ogengabetasunarekin baturik ene inguruan hedatzen; ezen ikusleak berak hartan barne izan ziren, eta nik, bozkarioan hoin merkerik barne nintzana, banuen gainera ene lana zela senditzekoa.

Josteta hori utzi berriak nituenekin erkidatuz, sendi nuen goxotasunekin gustu sano eta atsegin naturalen eta aberastasunak sortzen dituenen artean den ezberdintasuna, hauk ezpaitira gaitzesmenak emaiten dituen trufazko eta gutizia berexletako atsegin batzu baizik. Ezen zer atsegin mota har zaitekeen gizon multzo miseriak ezteustu batzuen ikustean metatzen, elgar ithotzen, bortizki makertzen, elgarri eztigosi oinazpikatu eta iztilez estali batzuen amikatuki ekhentzeko?

Ontsa gogoetatu niz neure aldetik horrelako gertaldietan sendi nuen atsegin motaz, eta ediren dut gutiago zagola ongi-eginezko sendimendu batean nola begitarte askietsi batzuen ikusteko atseginean. Alderdi horrek badu enetako goxatasun bat, bihotzerano sartzen bazata ere, sendimenezkoa iduri duena bakarrik. Eman-arazten dutan askiestea ikusten ezpaldin badut, badela segur izanik ere, enezake erdikara baizik goza. Atsegin abantail-nahigabeko bat da ere enetako, nihaur hartan barne izan ahalaren menean eztena; ezen jende xoilaren bestetan begitarten ikusteak bozkarioan azkarki erakharri nau beti. Itxaropen hori usu hautsia izan da alta Frantzian, hain alai izan nahi duen erresuma horrek bozkario guti erakusten baitu bere jostetetan. Lehenago banindoan usu jantzalekuetara jende

xehearen ikusteko jantzaten: baina jantzak hain erakaitzak zituen, egonara hain trixtea eta moldegaitza, nun bozkariatutrik baino gehiago ilundurik atheratzen bainintzan. Geneban aldiz eta Suizan, han irria ezpaita ethengabe maltzurreria eroxka batzuetara airatzen, bestetan gozoa eta bozkarioa orotakoak dira, miseriak eztu hara bere itxura itsusia ekhartzen, aberastasunesko ospeak bere ozartasuna erakusten; ongi izaiteak, anaietasunak, batasunak ekartzen dituzte bihotzak idekitzera, eta ainitzetan bozkario laño bateko oldetan, arrotzak elgarretaratzen dira, besarkatzen, eta eguneko atseginez batean gozatzera gomitatzen. Besta maitagarri horietaz gozatzeko, nihaurek ezutut hetan barne izaitearen beharrik, ikustea aski zata; ikusiz hetan barne niz; eta hoinbertze begitarte alaien artean, enea baino bihotz alaiago bat eztela segur.

Nahiz ezten hor sendimenezko atsegin bat baizik moraleko arrazoin bat badu segurki, eta phorogua hau da: ikuste horrek berak, lausengatzeko, gustatzeko orde, oinazez eta suminduraz urra bainezake, badakitalarik atseginezko eta bozkariozko seinale horiek berak eztirela gaixtoen begitartean haien gaixtakeriaren ezaugarriak baizik. Ogengabeko bozkarioa ene bihotza bere seinalez balakatzen duen bakarra da. Bozkario gaixto eta trufariak zaurtzen du eta lastimatzen nihaurekin zer ikus ez ukanik ere. Seinale horiek eztaitezke osoki berdinak izan, egia, hoin hastapen ezberdinetakoak izanez: baina bozkariozko seinale berdinak dira, eta dituzten ezberdintasun sendigarriak eztira segurki nitan phizten dituzten mogimenduen araukoak.

Oinazez eta bihotzminezkoak oraino sendigarriago zazta ezin jasanak izaiterano, itxuratzen dituztenak baino hunkimen behar bada oraino biziagoez nihaur nahasia izan gabe. Idurimenak sendimena azkartuz oinazetan denarekin bat egiten nau eta bademata ainitzetan hark berak sendi duen baino ere antsia gehiago. Begitarte khexu bat ezin jasan dezaketan ikusgarri bat zata ere, khexu hori enegatik dela uste ukaiteko arrazoina baldin badut oroz gainetik. Enezake erran mutur eginez zerbitzatzen duten mutilen itxura murmurikari eta mokorrak zenbat eskudo athera-arazi dautan lehenago hetara eraman-arazia izaiteko zozotasuna banuen etxetan, hetan mutilek ontsa khario ordain-arazi baitautate nagusien ostattatzea. Beti gauza sendigarriez gehiegi hunkia, eta oroz gainetik atsegin eta bihotzminen, onginahi eta gorromiaren ezaugarria badakartenez, kampoko idurimen horiez ereman-arazia izaitera uzten niz, ehoiz ihes egiteaz baizik baztertu ahal izan gabe. Arrotz baten kheinu bat, jestu bat, begi ukaldi bat aski zata atseginen uhertzeko

edo bihotzminen ezitzeko. Eniz nihaurena bakarrik nizanean baizik, hortik hara inguratzen nauten guzien jostagailua niz.

Lehenago atseginekin bizi nintzan munduan enuelarik begi guzietan onginahia baizik ikusten, eta gaixtoenik axolagabea ezagutzen eninduteneetan. Baina orai jendeari ene begitartearen erakustea eztelarik ene jitearen gordetzea baino nekezago egiten, eztezaket oina karrikan ezar gauza erdiragarriez inguratua izan gabe; baserrira urrats handiz joaitera lehiatzen niz; orstatzea dakusatan orduko, hats hartzen hasten niz. Bakartasuna maite baldin badut ustegabetu behar dea? Gizonen aurpegian ez tut gorrotorik baizik ikusten, eta naturaleza irriz ari zata beti.

Atsegina sendi dut alta oraino, aithortu behar da, gizonen artean bizitzen, ene begitartea ezagutzen ez tuteno. Baina guti uzten zatan atsegina da. Duela zenbait urte maite nuen oraino herrixketan gaindi joaita eta laborarien ikustea bere kardailuen antolatzen edo athetan emazten ikustea bere haurrekin. Ikuspen horrek bazuen bihotza hunkitzen zautan nik dakita zer. Batzuetan gelditzen nintzan, ohartu gabean, jende on horien harat-hunater beha, eta hasperenka sendi nintzan zergatik jakin gabe. Atsegin ttipi horri sendikor ikusia izana nizan ez ezakit eta hori ere ekhendu nahi ukan dautatenez; baina begitartetan badakusatan aldatzean, eta behatua nizan moldean, bortxatua niz bada ez ezaguna izaita horren ekhentzeko artha handia hartua dela senditzera.

Gauza bera gertatua zata eta molde argiago batez Embaldituetan. Eraikuntza eder hori beti ohargarri izan zata. Zahar on horien multzoak ez titut ehoiz hunkimenik eta errespeturik gabe ikusten, baiterrakete Lakedemoniakoe bezala:

Izanak gira lehenago

Gazte, bihoztun eta suhar.

Ene ibilaldi hautetsienetarik bat Eskola militarreko ingurunetan zen et' atseginekin aurkitzen nituen han edo hemen embalditu zenbait, aitzineko onestasan militarra atxikirik, iragaitean agurtzen baininduten. Ene bihotzak ehun aldiz itzultzen zaueten agur horrek lausengatzen ninduen eta haien ikustean nuen atsegina handitzen zautan. Hunkitzen nauenetik jeusen gordetzen ezpaitakit, usu aipatzen nituen embaldituak eta haien ikustea zer moldez senditzen nuen. Etzen gehiagokorik behar izan. Zenbait demboraren buruan ohartu nintzan haien artean enintzala gehiago ez ezagun bat, edo izaitekotz ontza gehiago ere hala nintzala publikoaren begi berarekin ikusten nindutenez geroz. Gehiago ez jendetasunezko elherik, gehiago ez agurrik. Itxura nardagarri bat, behako ohil bat jarraikiak zizazkon lehenbiziko gizontasunari. Bere ofizioko zintzotasun zaharrak ezpaitu uzten

bertzeak bezala maska murrikari eta trahitzale batez gorrotoaren gordetzera, ageri agerian erakusten dautate bere herra bortitza, eta halakoa da ene miseriaren soberantza nun bortxatua bainiz neure estimuan bere haserrea gutienik gordetzen dautatenen berextera.

Geroztik atsegin gutiagorekin nabila Embaldituetoako aldean; bizkitartean haien alderako ene sendimenduak ezpaitira hek ene aldera dituztenen meneko, eztitut bere aberriaren zaintzale zahar horiek errespetu eta sendimendu gutiagorekin ikusten; baina biziki gogor zata egiten dauetan justiziaz haien aldetik hoin gaizki ordaindua izaita. Halabeharrez erakaspen ohituetarik ihes egona den batekin batzen nizanean, edo ene begitartea ez ezagunez gorromiorik batere erakusten eztautan batekin, bakar horren agur zintzoak ordaintzen nau bertzen egonara latzaz. Ahazten ditut hartaz baizik ez axolatzeko, eta asmatzen dut baduela herra hartara ezin sar laitekeen enea bezalako arima bat.

Atsegin hori ukan nuen oraino jaz uraren iragaitean ibilaldiz Zisnen irlara joaiteko. Embalditu zahar gaizo bat bazagon untzi batean uraren zeharkatzeko norbaiten aiduru. Joan nintzan eta untzizainari erran naukon abia zadin. Ura azkar zen eta zeharkatzea luze izan. Enindakon embaldituari abantzu mintzatzera menturatzen ohian bezala gaizki erabilia eta gibelera igorria izan beldurrez, baina zuen itxura zintzoak konfiñxian ezarri ninduen. Solastatu ginen. Gizon zentzuduna eta bizimolde onekoa iduritu zizatan. Haren doinu ideki eta goxoaz ustegabetua eta loriatua izan nintzan, enintzan hoinbertze fagore ukaitera jarria; ene ustegabea gelditu zen probinziatik berri-berriki zetorrela ikasi zautanean. Hartu nuen ene aurpegia etzaukotela oraino erakutsia eta jakin behar zuena ez errana. Ezaguna ez izaita hortaz baliatu nintzan ephe zenbaitez gizon batekin solastatzeko eta hortan edireiten nuen eztitasunetik senditu nuen atsegin arruntenen bekanak haien balioa handitzen duela. Untzitik atheratzean bere bi ardit xipien prestatzen ari zen. Iragaitea ordaindu nuen eta atxik zitzan orthoiztu hura khexa beldurrez ikharan. Etzen hori gertatu; aldiz ene arthari sendikor zela iduritu zuen eta oroz gainetik, ni baino zaharrago baitzen, untzitik jalgitzen haren laguntzeko hartu nuenari. Atseginez nigar egiteko aski haur izan nintzala nork sinets lezake? Hogeita-laur sos tabako ukaiteko eskuan ezartzeko gutizia gorrian nindagokon; ehoiz enintzan menturatu. Gelditu ninduen ahalge berak ongi egiteak debekatu dauzta ainitzetan, bozkarioz beteko nindutelarik eta ene zozokeria deitoratuz baizik ezpainiz hetarik elikatu. Aldi hartan, ene embalditu zaharra utzi eta, berehala konsolatu nintzan

nihauren erregeler uko eginen nauela gogoratuz, gauza zuzenetan haien nobletasuna andeatzen eta abantail-nahigabea zikintzen duen diruzko sari bat nahasiz.

Beharretan direnen laguntzera lehiatu behar da, baina biziko harreman ohikoetan utz ditzagun onginahi naturala eta jendetasuna bakoitza berearen egiten, ehoiz ere ezer eroskai eta merkatari denik mentura ezta din hoin ithurburu garbirano hurbiltzera haren usteltzeko et' andeatzeko. Badiote Holandan bere burua ordain-arazten dutela zuri zer oren den erraiteko eta bidearen erakusteko. Jende ontsa gaitzeskarria dateke gizonaren eginbide xoilenez horrela tratu badagiena.

Ohartu niz eztela Europa bakarra baizik etxean ostatu emaita ordaintzen denik. Asia guzian urrurik ostatatua zira, baitakusat eztituzula han errextasunak hain ontsa edireiten. Baina jeus eztea bere buruari erraitea: "gizon niz eta gizakien artean onhartua"? Gizatasun hutsak dauzta jan-edanak emaiten. Gabezia xipi horiek nekerik gabe jasaiten dira, bihotza soina baino hobeki arthatua denean.

oharra) (*) Parisko ostatu eta jantza-leku baten izena zen. (Itzulzalearen

(**) 1757-ko larrazkenean. (Itzultzalaren oharra)

IBILALDI HAMARGARRENA

Egun Erramu eguna badira berrogei-ta hamar urte zuzen Warens-ko Anderearen ene lehenbiziko ezagutzeaz geroztik (*). Hogeita zortzi urte zituen, mendearekin sortua izanez. Enituen oraino hamazazpi, eta sortzen ari zen ene jiteak, baina oraino ezagutzen enuenak, bero berri bat emaiten zautan berenaz biziz betea nuen bihotzean. Mutiko gazte bizi, baina ezti eta laño, begitarte aski gozagarriarekilako baten aldera ongi-nahia ukan zezan ezpazen ustegabegarri, oraino gutiago hala zen emazte xoragarri, izpirituz eta garaziaz bete batek esker onarekin batean eman-araz zitzatan hartarik berexten enituen sendimendu samurrago batzu. Baina gutiago ohi dena oraino hau da: lehenbiziko aldi horrek ene bizi guziko deliberatu zuela, eta, ondorioen gatina ezin hutsegin batez, gainerateko ene egunetako zoria eman. Ene arimak, soinak ezpaitzitu oraino ahal baliosenak handi-araziak, etzuen oraino molde berezirik batere harturik. Igurikatzen zuen, halako ezin-egon batean, hori eman behar zaukon ordua, eta aurkitze horrek lehiatu ordu hori etzen berehala ethorri, eta erakaskuntzak emana zautan bizi moldetako lañotasun hartan, ikusi nuen maitasuna eta ogengabea bihotz berean bizi diren izanara goxo baina labur hura luzaz irauten.

Urrundua ninduen (**). Orok harengana itzulz-arazten ninduen, hala egin behar izan zen. Itzultze horrek ene zoria jarri zuen, eta hartaz jabetu baino aspaldi ere lehenago enintzan haren baitan eta harendako baizik bizi. Ha! haren bihotzeko aski izan baninz hura enearendako aski zen bezala! Zein egun bakezko eta goxoak ezkinituen elgarrekin ere manen! Horrelakoak iragan ditugu baina zein labur eta lasterrak izan diren, eta nolako zoria zeen jarraiki! Egunik ezta ene biziko dembora bakar eta labur hartaz bozkario eta hunkimenekin orhoitzen enizanik, hartan izan bainintzan beteki nihaur, nahasterik eta trabarik gabe, eta erran baitezaket zinez bizi izan nizala. Pretorioko prefet hark bezalatsu erran dezaket, Vezpazianuen aroan desgaraziatua izanik joan baitzen bakean bere azken egunen baserrian iragaitera: “Hiruretan hogeita hamar urte eman ditut lurrean, eta zazpi urte bizi.” Une labur baina balios hura gabe nihaurez dudan geldituko nintzan behar bada; ezen gainerateko bizi guzian, ahul eta ihardokitze korik gabe, beti izan niz bertzen tirriez hainbertze nahasia, bimbilikatua, thirabiratu, nun hoin bizi harrabostunean neke bainuke nihauren ibilaran neuretik zer den berexteko, hanbat

dauta behar gogorrek etengabe gainean phizatu. Baina urte andana xipi hortan, onginahiz eta ezintasunez betea zen emazte batez maitatua, egin nahi nuena egin nuen, izan nahi nuena izan nintzan, eta ene astien erabiltzeko moldeaz, haren ikastaldiez eta behazunaz langudurik, jakin nuen ene arima oraino laño eta berriari egokienik zizakon eta geroztik atxiki duen moldearen emaiten.

Bakartasuneko eta behameneko gostua ene bihotzean sortu zen haren hazkurritako eginak ziren sendimendu hedakor eta samurrekin. Harramantzak eta harrabotsak hertsatzen dituzte 'ta ithotzen, ixilak eta bakeak phizten eta sustatzen. Maitatzeko neure baitara bildu behar dut. Ama (***) erakharri nuen baserrian bizitzera. Etxe baztertu bat haran bateko aldapan izan zen gure geriza, eta hor dut laurzpabortz urtez mende bateko biziaz eta zorion bete 'ta hutsaz gozatu, estaltzen baitu bere lilluraz ene oraiko zoriak duen laztagarri guzia. Ene bihotzaren arauko emazte baten adixkidantza behar nuen, banadukan. Baserria gutiziatua nuen, ukana nuen; menpeko izaitea enezakeen jasan, beteki libro nintzan, eta libro baino hobeki, ezen, ene atxikimendu bakarrer emana, nahi nuena baizik enuen egiten. Ene asti guzia artha amultsuez betea zen eta baserriko egitekoez. Jeus enuen gutiziatzen izanara hoin eztiaren jarrikitzea baizik. Ene beldur bakarra luzaz iraun etzezan zen, eta beldur hori, gure egonarako eragozpenetik sortua, etzen arrazoinik gabea. Ordutik gogoan ukan nuena khexu horren baztertzeko behar zenaren jabe izaitea izan zen eta ukanen zituen ondorioen aitzinetik urruntzeko biden ukaitea. Gogatu nuen jakitate batzuen biltzea zela miseriari kontra egiteko bide segurrena, eta ene astien erabiltzea deliberatu egun batez, ahal bazen, emaztetan hoberenari haren ganik ukana nuen laguntzaren ordaintzeko heinean izaiteko.

(*) *Aithormen*-ek diotenaz ere 1728-an gertatu zen. Rousseau-k hamargarren ibilaldi hau hasten duenean, eta bururatu gabe uzten, 1778-ko Erramu eguna da beraz. Paris ostaroan utzirik, urte bereko uztailaren 2-an hilen da Ermenonville-en. (Itzultzailearen oharra)

(**) Rousseau sortzez protestanta baitzen, Warens-ko andereak Turin-era igorri zuen katoliko bilakatzera.

(***) Egiazko ama Rousseau-k sortu eta zortzi egunen buruan galdua zuen. Berak baino hamar bat urte gehiago baizik ez ukanik ere, horrela ("maman") deitua zuen Warens-ko Anderea.

*

* *

En 4e de couverture:

Literaturan aipameneko urteak iraganik eta ekharri dauzkoten nahigabeak, 1762-ean *Emile* eta *Contrat social*-en ondotik kondenatua, “filosofo” lagun ohiek baztertua, Suizatik Angleterrara ibili ondoan, Jean-Jacques Rousseau (1712-1778), gerizapen handi batzuen azpian, Parisen jartzen da 1770-tik 1778-ra. Hor ditu, egiazki nor den ezagun-arazi nahiz egin dituen liburuen (*Aithormenak* 1771) sail berean, *Ibilkari bakartuaren ametseriak* hasten, eta 1778-ko ostaroan uzten, azken ilabeten bizitzera joaiteko Ermenonville-en Girardin-go markesaren gerizan. Parisen eta hango ingurune orduan baserritarretako ibilaldi zinezkoen estakuru, den izanaran, munduaren, moralaren ala bere aldera dituen gogo-sendimenduen iker eta argitzeko xedetan abiatzen da. Gizartearekin harreman guziak behin betikotz hautsirik, zoriona eztu bere baitan baizik bilatzen, orhoitzapen onetan, naturalezari behatzean, haraindiko mundu bateko itxaropenean. Moralazko ikermenak eta “orotako zimarku” baten sendimendu ezin baztertuak baderamate batzuetan burxoratzerano, eta irakurlea harekin. Badira ere hor, belargintzan eta naturalezari beha egoiteko atsegin lañoen aipatzean, erromantismo atzineko literatura frantzeseko orrialde ederrenetarik batzu.

Passées les années de gloire littéraire et les difficultés qu’elles lui ont causées, condamné après *l’Emile* et le *Contrat social* (1762), rejeté par ses anciens camarades “philosophes”, après avoir erré de Suisse en Angleterre, Jean-Jacques Rousseau (1712-1778), qui a de hautes protections, s’installe à Paris de 1770 à 1778. Il y commence, dans la continuité des œuvres autobiographiques où il tente de se faire connaître tel qu’il est (*Les Confessions* 1771), ses *Rêveries du promeneur solitaire*, et les interrompt en mai 1778 pour aller vivre ses derniers mois à Ermenonville sous la protection du marquis de Girardin. Sous le prétexte de ses promenades très réelles dans Paris et ses environs alors champêtres, c’est, dans la situation où il se trouve, une œuvre d’introspection et d’analyse de ses pensées et de ses sentiments à l’égard du monde, de la morale et de soi-même qu’il commence. Tous ses rapports au monde une fois pour toutes rompus, il ne cherche plus son bonheur qu’en lui-même, dans les bons souvenirs, la contemplation de la nature, l’espoir dans un au-delà. L’analyse morale et le sentiment obsédant du “complot universel” y sont poussés parfois jusqu’au vertige, et il y entraîne son lecteur. Il y aussi là, dans l’évocation des plaisirs simples de l’herborisation et la contemplation de la nature, quelques-unes des plus belles pages de la littérature française pré-romantique.

